

Paula Kasares

Hizkuntz eskubideak Euskal Herrian

Zer eskubidez ari garen eta zertan diren

Giza
eskubideak

Deustuko
Unibertsitatea

• • • • • • • •

**Giza Eskubideen
Institutua**

Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak

Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak

31. Zenb.

Hizkuntz eskubideak Euskal Herrian:
zer eskubidez ari garen eta zertan diren

Paula Kasares

Bilbao
Deustuko Unibertsitatea
2004

Zuzendaritza Kontseilua:

Jaime Oraá
Xabier Etxeberria
Felipe Gómez
Eduardo Ruiz Vieytes
Trinidad L. Vicente

Debekatuta dago, legearen arabera, argitalpen hau —diseinua eta irudiak barne— bikoiztea, biltzea edo igortzea, ez osorik, ez zatika, ezta inolako bitarteko edo prozedura teknikoren bidez ere, argitaratzailearen berriazko baimenik gabe.

Argitalpen hau paper ekologikoan inprimaturik dago

© Deustuko Unibertsitatearen Argitalpenak
Posta Kutxa 1 - 48080 Bilbao
e-posta: publicaciones@deusto.es

ISBN: 978-84-9830-581-4

Fermini

Heuscaldun den guizon oroc alcha beça buruya...

Bernard Etxepare,
1545, *Linguae Vasconum Primitiae*

Baldin elcar artzen baguendu gucioc, nor bere sallari dichecala, Francian icaratuco guntuque franciar guciac, ta Españian españiar guciac. Non da ordea elcarte hori? Nagoan isillic.

Manuel de Larramedí,
1882, *Corografía o descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipuzcoa*

Bizitzen ari garen errealitatearen aurean diagnostikoa eta jarrera bat izateko kontzientzia kritiko bat behar dugu. Kontzientzia kritikoa «intelektual» delako jendearen ardura ere bada. Zergatik galdu dute erantzunkizun hori? Zer gertatu zaie?

José María Sánchez Carrión, Txepetx,
1997, *Txepetxekin solasean biziaren hizkuntzaz*.

(...) la historia humana también nos enseña que cada «fin de ciclo» se supera cuando hay una minoría que es capaz de instalarse mentalmente en las necesidades y exigencias del ciclo siguiente, y comienza a actuar desde ellas en el fin del ciclo anterior.

José María Sánchez Carrión, Txepetx,
1999, *Márgenes de encuentro. Bilbao y el Euskara. Aplicación sociolingüística de la territorialidad*

Aurkibidea

1. Sarbide gisa	13
2. Hizkuntz eskubideen kontzeptua eta garapena	19
2.1. Hizkuntz eskubideen argitze kontzeptualaren beharra	19
2.2. Hizkuntz eskubideak giza eskubide gisa	20
2.3. Eleaniztasuna eta hizkuntz eskubideen aintzatespena.	23
3. Hizkuntz eskubideak nazioarteko zuzenbidean.	29
3.1. Hizkuntz gutxiengoaren eskubideak nazioarteko zuzenbidean. . .	29
3.2. Erregioetako edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Ituna . . .	32
3.3. Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala.	35
4. Hizkuntz eskubideak Euskal Herrian	41
4.1. Hizkuntz eskubideen egoera aztertzeko oinarriak.	41
4.2. Euskararen estatusa Euskal Herrian eta hizkuntz eskubideak. . .	42
4.2.1. Ipar Euskal Herrian	43
4.2.1.1. Legezko egoera	44
4.2.1.2. Legezko babesik ezaren ondorioak	45
4.2.1.3. Frantziaren jokabidea Europako testuinguruan	51
4.2.2. Hego Euskal Herrian	55
4.2.2.1. Espainiako Estatu Administrazioa	56
4.2.2.2. Euskal Autonomia Erkidegoa.	71
4.2.2.3. Nafarroako Foru Komunitatea.	80

4.3. Hizkuntz eskubideak eremu pribatuan	95
4.4. Hizkuntz komunitatea oinarri hartuta: ondorioak eta ekarpenak	96
5. Hizkuntz eskubideen aldeko herri ekimena Euskal Herrian	105
6. Azken gogoeta gisa	113
7. Bibliografia.	115

1.

Sarbide gisa

Egun, hizkuntz eskubideak gaurkotasun handiko gaia dira. Ez bakarrik gure artean, Euskal Herrian, euskarari bere lurralde historikoetan aintzatesten ez zaion estatus juridikoagatik eta, horren ondorioz, herri-tarrei hizkuntza horrekiko aitortzen ez zaizkien eskubideengatik. Hori aldarrikapen ugarien zioa izan da azken urteotan, eta egun eztabaida politiko eta sozialean bizi-bizirik dagoen auzia da. Baina gure egoeratik kanpo ere, eta ikusmolde global batetik, ukaezina da azken urteotan munduko hizkuntz aniztasunaren galeraren inguruan zabaldu diren mezuak larriak direla eta, horien aitzinean, aditu ezberdinek hizkuntz aniztasunaren defentsa giza hizkuntz eskubide gisa formulatu beharra proposatu dute.

Izan ere, 1992an Michael Kraussek argitara eman zuen «The world's languages in crisis» artikuluan, berriki sartu garen mende honetan munduan mintzatzen diren 6000 bat¹ hizkuntzetatik %90 galduko direla edo ezinbesteko galbidean sartuko direla iragarri zuen. Berrikiago, aditu ezberdinek (Junyent, 1999; Wurm, 2001) hizkuntz aniztasunaren galera prozesua berretsi dute, aurreikuspen guztiek galera abiadura bera antzematen ez badute ere. Nolanahi ere, aurreikuspen beldurgarriak dira, areago ere Carme Junyent hizkuntzalari kataluniarrak dioen beza-la, gogoan hartzen badugu:

«...que, en cada llengua que s'extingeix, hi ha una comunitat agredida, a la qual s'ha exclòs del curs de la història de la humanitat» (Junyent 1998, 16 orr.)².

¹ Egile ezberdinek bat egiten dute kopuru horretan: Grimes (1992), Junyent (1998), Siguan (2001).

² Egilearen itzulpena: «...desagertzen den hizkuntza bakoitzean gizadiaren historia-tik baztertua izan den komunitate erasotu bat dagoela».

Kontuan hartzen badugu munduan 6000 bat hizkuntza mintzatzaren direla eta munduaren lurak politikoki 200 bat estatutan banatuta daudela, estatu bakoitzari batez beste dagokion hizkuntza kopuruak argi erakusten du munduko estaturik gehien-gehienak eleanitzak direla. Beraz, hizkuntzen eremuek ez dute zerikusirik muga politikoein eta biek bat egiten dutela dioten diskurtsoek (edo bat egin beharko luketela defendatzen duten proiektuek) errealitate anitza estatu elebakarren molde homegeneizatzaile eta baztertzailan deuseztatu nahi dute. Europan, adibidez, Islandia omen dugu kasu bakarra bere lurraldean hizkuntz komunitate historiko bat baino ez duena. Berriki, Portugalek berak mirandera hizkuntza aitortu du eta legezko estatusa aintzatetsi dio.

Eta kontuan hartuta 120 bat estatuk hizkuntza ofizial gisa lau hizkuntza hauetatik bat dutela: ingelesa, gaztelania, arabiera edo frantseza; eta beste 50 estatuk beste hizkuntza ofizial bat dutela, orokorki haien eremuetan hizkuntza nagusia dena. Horiei, gehitzen badizkiegu 40 edo 50 hizkuntza euren erregioetako hizkuntza gisa nolabaiteko aintzatespen ofiziala dutenak eta 50etik 100era bitarteko beste hizkuntza batzuk, estatus ofiziala izan gabe nolabaiteko erabilera idatzia dutenak; orotara, gehien jota 200 hizkuntza *prestigidun* ditugu, hau da, munduan dauden guztietatik %3 baino ez (Siguan, 2001, 210 orr.). Azken batean, esaten ari garena da egun, munduko estatuak euren hizkuntzei ematen dieten babesa ikusita, hizkuntzen %3rak soilik duela, alde edo moldez, bere biziraupenerako bermeren bat:

«Existe una importante evidencia que demuestra que los idiomas no pueden sobrevivir por mucho tiempo en el mundo moderno, salvo que se empleen en la vida pública, así pues, las decisiones que toman los gobiernos sobre idiomas oficiales, son en efecto, decisiones sobre qué idiomas van a prosperar y cuáles se extinguirán» (Kymlicka, 2000, 53 orr.).

Beraz, lan honetan aztergai ditugun hizkuntz eskubideak gaurkotatsun unibertsaleko gaia dira, gure egoeraren ikusmoldeetik ez ezik, ikusmolde global batetik ere:

«... observamos la creciente amenaza de extinción de una gran parte de las lenguas del mundo, a pesar de las múltiples expresiones de resistencia. Dado que en el 96 por ciento de los Estados del mundo coexisten diferentes grupos lingüísticos, las relaciones de dominación y subordinación, y los procesos de desplazamiento y resistencia entre lenguas y sus hablantes constituyen fenómenos prácticamente universales» (Hamel, 1995, 12 orr.).

Lan honen ikuspegia ez da juridikoa. Legedia (edo legerik eza) hizkuntz eskubideen egoeraren arlo bat baizik ez dira. William Mackey berak ohartarazi zigun bezala (1989/1993), hizkuntz legeek hiztunen jokamoldeetan duten eragina aski mugatua izaten da³. Hizkuntz lege-diaren ondoan, gizarte kinka ezberdinetan gehiengoan jarrera eta ideologia linguistikoak, hizkuntz komunitate gutxituek eta haien hiztunek euren hizkuntza erabiltzeko dituzten aukera erreala eta euren hizkuntza erabiltzearen alde sortzen dituzten dinamikak eta erresistentziak aztertzea da, gure ustez, interesgarriena eta hizkuntz eskubideen arloari bere sakontasun osoa eman diezaiokeen ikuspegia.

Euskal Herriko herritarren hizkuntz eskubideak zertan diren ez digu soilik hizkuntz legediak esaten. Hori azaleko egoera formalak baino ez da, errealiategia anitzagoa da eta legeak ezartzen duen *statu quo*aren azpian onartze eta kuestionamendu, inertzia eta erresistentzia, jokamolde, joera eta jarrera ezberdinak daude hizkuntza den errealtate anitz eta identitate elementu horren inguruan. Beraz, lan honetan egoera jurilinguistikoa ez ezik, hizkuntz eskubideen inguruko gizarte prozesuak ere azalduko ditugu.

Euskal Herrian euskaldunen hizkuntz eskubideen aldeko herri ekimena aspaldikoa eta zabala da. Gizarte erakunde anitzek eraman izan dute aurrera hizkuntz eskubideen aldeko aldarrikapena. Eskuarki, ekitaldi puntualak izan dira: kanpaina edo bestelako ekimen berezituak, mobilizazio eta agerraldiak. 2000. urteaz geroztik, berriz, euskalgin-tzak hizkuntz eskubideen aldarrikapenari gai estrategikoaren trataera eman izan dio. 2001ean, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Hizkuntz Eskubideen Behatokia sortu zuen, bere jardura Euskal Herriko herritarren hizkuntz eskubideak *Euskal Herri osoan, arlo publikoan nola pribatuan, bermatzera zuzendua* duena (Behatokia, 2002a). 2000 urtetik, eta Nafarroa Garaian bereziki, Nafarroako Gobernuak hasi zuen euskararen gutxiagotze instituzionalaren karitik, gizarte erakundeak, sindikatuak, toki entitateak eta herritarrak beraiek hizkuntz eskubideen kontrako erabaki administratiboak epaitegietan helegiten hasi

³ «Hizkuntza politiken historia luzean zehar, Erdi Aroaren bukaeratik gaurdaino, hizkuntza legeek ez dute beren helburua lortu, hau da, hizkuntza jokaerak aldatzea. Badi-rudi, lege horien eragingarritasuna, helburu-motaren (sustapena, tolerantzia, debekua) eta testuinguru geolinguistikoak baldintzatutako hizkuntza komunitate-motaren (regre-siboa, progresiboa edo residuala) arteko erlazioan datzala. Erlazio horien arabera ulertu behar da hizkuntza legeen arrakasta edo porrota (...) Hizkuntza-legeak eraginkorrak dira sustatu nahi den hizkuntzari atxikita dauden beste alorretako nagusitasunak gertatzen direnean: nagusitasun kulturala, ekonomikoa, demografikoa, e.a.» (Mackey, 1989/1993, 12 orr.).

ziren. Euskara Kultur Elkargoak auzitegiratzeari heldu izan dio modu sistematiko samarrean, Nafarroako Foru Komunitatean soilik egin badu ere.

Egun, euskara eta euskal kulturaren inguruko herri mugimendu zaballean hizkuntz eskubideen aldeko aldarrikapenak nolabaiteko protagonismoa hartu du eta auzitegiratzeaz gain, bestelako bideak ere hautatu dituzte hainbat euskal gizarte erakundek hizkuntz eskubideen aldeko lanean: Euskal Herrian Euskaraz taldeak justizia alorrean sustatu duen intsumisio judiziala eta osasun alorrean bultzatu dituen protesta kanpainak, Iparraldean Demoek zerbitzu publikoen alorrean aitzin eraman duten desobediencia zibilaren bidea, Oinarriak Nafarroan egin duen *Euskaraz, eskubide osoz!* kanpaina zabala edo Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak 2004an Euskal Herri osoan antolatua: *Hizkuntz eskubideak, denon konpromisoa!*

Beraz, hizkuntz eskubideen inguruko gizarte dinamika bizia dugu gurean. Lan honek hizkuntz eskubideen izaera eta horien egoera Euskal Herrian azaldu nahi ditu.

Sarbide honen ondotik, bigarren atalean, hizkuntz eskubideen kontzeptua argitzetik hasi eta galdemodu hauei erantzuna ematen saiatuko gara: zer eskubidez ari garen hizkuntz eskubideez hitz egiten dugunean, eskubide horiek giza eskubide gisa har ote daitezkeen eta estatuen eleantzasunari eusteko balio dutenentz.

Hirugarren atalean, hizkuntz eskubideek nazioarteko zuzenbidean duten lekuaz arituko gara. Hizkuntz gutxiengoaren eskubideei eman zaien trataera ikusita, aipamen berezia merezi duten bi dokumentuok xehekiago azalduko ditugu: Erregioetako edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Ituna eta Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala.

Laugarrenean, Euskal Herriari loturik eta azalpen jurilinguistikoa abiapuntu hartuta, euskarak bere lur eta gizarte eremu historikoan egun duen estatusa azalduko dugu. Baina errealitatea ez dago indarreango legeen baitan, legeak errealitate anitz horren arlo bat baizik ez dira eta batzuetan, ikusiko dugun bezala, eraentza juridiko oso ezberdinen azpian herritarrek aukera antzeko xamarrek izaten dituzte eguneroko bizitzan euskara erabili ahal izateko. Legeen inplementazioari eta hizkuntz politikei begiratuko diegu. Euskal Herriko banaketa administratiiboak eragindako hiru hizkuntz eraentzek herritarren hizkuntz eskubideetan dituzten ondorioak aztertuko ditugu eta egoera horren gainean hizkuntz eskubideen egoera aztertzen duten erakundeek egin dituzten diagnosiak ere azalduko ditugu.

Bosgarrenean, Euskal Herrian hizkuntz eskubideen alde dagoen herri ekimena aipatuko dugu auzitegiratze eta bestelako aldarrikatze bideei erreparatuta.

Eta amaitzeko, seigarrenean, azken gogoeta gisa, Euskal Herriko egoera aztertuta, hizkuntz eskubideen gaineko bost hausnarketa nagusi eskainiko ditugu.

Lan honek bere xedea erdietsiko luke hurrengo orriotan azaldutakoek euskaldun jendeari haren hizkuntz eskubideen egoeraz jabetzen eta horren garrantziaz ohartzen lagunduko baliote. Eta beraz, zuri ere, irakurle, horretan laguntzen badizu.

Eskuetan duzun lan hau gogoetagarri bezain gogaragarri izan dakizula.

2.

Hizkuntz eskubideen kontzeptua eta garapena

Gizakioi dagozkigun kontzeptu nagusi guztiekin gertatzen den bezalaxe, *hizkuntz eskubideak* ez da kontzeptu estatikoa, etengabeko garapenean dagoen kontzeptua baizik, gizon-emakumeok geure oinarrizko askatasuna murrizten duenaren inguruko pertzepzioarekin batera aldatzen baita, eta nazioarteko komunitateak justizia ezari aurre egiteko duen beharrari egokitzen baitzaio (Phillipson *et al.*, 1994, 16 orr.).

Atal honetan hizkuntz eskubideen zehazte kontzeptuala ematen saiatuko gara, giza eskubide gisa har ote daitezkeen aztertuko dugu, horretarako giza eskubideen izaera indibiduala eta kolektiboaren aldean inguruko eztabaida, gaingiroki bada ere, adieraziz eta, azkenik, nazioarteko itun eta arau nagusiek hizkuntz eskubideak nola jaso dituzten azalduko dugu.

2.1. Hizkuntz eskubideen argitze kontzeptualaren beharra

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, mundu zabalean egoera aski ohikoa da gizon-emakumeak eta giza taldeak haien hizkuntz eskubideez gabeturik bizitzea, izan ere, hizkuntza nagusien hiztunek baizik ez baitituzte osoki bermaturik (Skutnabb-Kangas eta Phillipson, 1994, 71 orr.). xx. mendeko 70. hamarkadatik, gutxiengo etnolinguistikoen estatusaren inguruko nazioarteko eztabaidan gutxiengo horien hizkuntz eskubideen babesa, giza eskubideekin batera, kontuan hartzen hasi zen gero eta gehiago. *Linguistic Human Rights* kontzeptua sortu zen. Aditu ezberdinek (Skutnabb-Kangas, Phillipson, Rannut, Kontra, Várady, Hamel, Paulston eta abarrek) kontzeptu hori, Hizkuntz Giza Eskubideak,

erabiltzen dute euren lanetan, haien ustez hizkuntz eskubideak oinarrizko giza eskubidetzat hartu beharko bailirateke (Phillipson *et al.*, 1994, 1 orr.). Hizkuntz giza eskubideak, giza eskubideekin gertatzen den bezala, gizon-emakume guztiei dagozkie, baina kontzeptua gutxiengoan egoerei aplikatuzetik sortu zen.

Hizkuntz eskubideen ikerketa hizkuntz plangintzaren barneko azpi-gai gisa garatu da, hizkuntz politikaren inguruan eta, bereziki, estatuek euren barneko gutxiengoak babesteko duten beharrari loturik. Zuzenbidetik ere arreta jarri zaio hizkuntzaren arautzearen gaiari eta *hizkuntz zuzenbidea* espezialitatea garatu da herritarren hizkuntz eskubideak eta hizkuntz eraentza juridikoa aztergai dituela (Vernet, 2003, 22 orr.).

Azken urteotan gero eta profesional eta ikertzaile gehiago (diziplina ezberdinetatik: hizkuntzalaritza aplikatu, hezkuntza, hizkuntz plangintza, hizkuntzaren soziologia eta zuzenbidetik) arduratzen dira horretaz eta agerian gelditu da zer premiazkoa den hizkuntz giza eskubideen inguruan diziplinarreko argitze kontzeptuala egitea. Izan ere, begi-bistakoa da hizkuntzak gizartea kontrolatzeko bide gisa duen garrantzia, eta bestalde, kasu ugari daude hizkuntzak gizarte justizia lortzeko bidean izan duen egitekoa frogatzen dutenak (Phillipson *et al.*, 1994, 1 orr.).

Egun, oraindik ez dugu hizkuntz eskubideak kontzeptua guttiz zehazturik, azken finean, hizkuntz eskubideak aplikatzen diren lurraldearen boterearen arabera izaten baitira. Esan dugun bezala, hizkuntz giza eskubideak gizon-emakume orori badagozkio ere, gutxiengoak izan ohi dira oinarrizko eskubide horiek bermaturik izan ez dituztenak eta, horren ondorioz, justizia eza pairatu behar izaten dutenak. Gehiengoak gutxi arduratu ohi dira oinarrizko eskubide horiek argitu eta zehazteaz guttiz bermatuta izan baitituzte.

Gutxiengo hizkuntzen artean ezberdintasunak badaude, batzuek nolabaiteko aintzatespen ofiziala dute, eta beste batzuek inolako estatusik izan gabe desagertzeko arrisku handia dute.

Beraz, errealitate eta egoera ezberdin anitzi erantzun eman beharrak are premiazkoagoak bihurtu ditu hizkuntz eskubideen zehaztapena eta argitze kontzeptuala.

2.2. Hizkuntz eskubideak giza eskubide gisa

Egile batzuen iritziz giza eskubide oro indibiduala da eta ez dago eskubide kolektiborik (hor dugu Amerikako Estatu Batuetan eta Kandan oso garatuta dagoen eztabaida filosofiko-politikoa, Habermas, Taylor edo Kymlicka teorikoen artean).

Egun ezagutzen dugun giza eskubideen nazioarteko araudiak II. Mundu Gerraren ondoren sortu zen ordena berrian du bere oinarria. Oroitu beharrekoa da ordena berri hori sortu zenean munduak arrazan oinarritutako diskurtsoa garatu zuen pentsamolde faxistaren ondorio latzak bizi berriak zituela eta hori nolana ere berriz ez gertatzeko eskubide indibidual batzuk aintzatesi beharra ikusi zuela: edozein errealitatetan bermatu beharreko giza eskubide indibidual batzuk. Horrela sortu zen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, Mendebaldeko oinarri eta kultura filosofikoek iradokia.

Baina giza eskubideen garapenean giza taldeen eskubideak ere jaso ziren, 1966ko itunetan, hain zuzen ere (Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean eta Eskubide Ekonomiko Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean). Horietan, norbanako eskubideez gain giza taldeenak ere aipatu ziren, gure gaiaren ikuspegitik interesgarrienak aipatzearren: batetik, gutxiengoaren eskubideak (nahiz eta lehenengo formulazioa gutxiengoaren partaide diren gizabanakoei buruzkoa izan, denboraz gutxiengoaren eskubideei buruzko doktrina zabaldu zen nazioarteko giza eskubideetan); eta bestetik, herrien eskubideak (autodeterminazio eskubidea, hori ere giza eskubide izaerakoa).

1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak, 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak eta 1966ko Eskubide Ekonomiko Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak, hirurek osatzen dute Giza Eskubideen Karta eta doktrina horri erreparatuta, esatea dago eskubide kolektiboak izan badirela.

Hori horrela, hizkuntz eskubideek zer izaera dute? Nazioartean onartutako giza eskubideetan jasotzen al dira hizkuntz eskubideak?

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak (1948) ez zuen hizkuntz eskubideei buruzko aipamen zehatzik egin, bai ordea bazterkeria edo diskriminaziorik ez jasateko eskubidearena, eta hizkuntza dela eta baztertua ez izateko eskubidea ere ager daiteke (2.1 art.). Ondoren onartu ziren Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak (1966koak, 2.1 eta 26 artikulua) eta Giza Eskubideen Konbentzio Europarrak (1950koak, 14 art.) ere jaso zuten eskubide hori.

Hizkuntza dela eta diskriminaziorik ez jasateko eskubideak ez du esan nahi nazioarteko zuzenbideak hizkuntza jakin baterako eskubidea aintzatesten duenik. Ez du esan nahi estatu batek hizkuntza jakin baten aldeko politika ezarri ezin duenik, edo hizkuntza bat(zuk) ez sustatu eta beste bat(zuk) bai egin ezin duenik. Diskriminaziorik ez egiteak dakarrena da estatuak ezin izango duela hizkuntzagatikako bereizkeriarik egin, bereizketa hori arrazoi gabe denean eta horretarako garrantzitsuak diren faktore guztiak aztertu gabe: batetik, estatuaren interes eta asmoei dagozkienak eta, bestetik, erasanda geratzen diren herritarren

interes eta eskubideak. Hori horrela, estatu batek eskolan nola zerbitzu publikoetan hizkuntza baten erabilera aukeratzeak ez luke, nazioarteko zuzenbidearen arabera, bazterkeriarik ekarriko. Argi dago, beraz, bazterkeriarik ez jasateari buruz hitz egiten dugunean hizkuntz eskubide indibidual batez ari garela, gizabanako bakoitzari dagokiona (Udalbiltza, 2002, 15-16 orr.).

Bereizkeriarik ez jasateko eskubidearekin batera bi eskubide gehiago daude hizkuntzari lotuak: adierazpen askatasuna eta defentsa eskubidea. Beraz, hizkuntzarekin harremana duten giza eskubideak izan badira.

Hizkuntz eskubideez ari garelarik, bi maila bereiz ditzakegu (Iriondo, 2003b, 3 orr.):

1. Oinarrizko hizkuntz eskubideak edo Hizkuntz Giza Eskubideak, edonon edonori babestu beharrekoak.
2. Hizkuntz eskubide arruntak, eremu geografiko jakin batean hizkuntza zehatz bateko hiztunei aitortu beharrekoak.

Lehen mailan dauden hizkuntz giza eskubideek zera dakarte norbanako aldean eta giza taldeko aldean:

1. Norbanako aldean edo alde indibidualean, hizkuntz giza eskubideek ondoko hau dute eurekin: edonork bere ama hizkuntzarekin positiboki identifikatu ahal izatea eta besteek identifikazio hori errespetatzea, ama hizkuntza gutxiengo baten hizkuntza izan ala gehiengoarena izan. Ama hizkuntza ikasteko eskubidea; oinarrizko hezkuntza, bederen, ama hizkuntzaren bidez egiteko eskubidea. Kontestu (ofizial) askotan erabiltzeko eskubidea. Estatuko hizkuntza ofizialetatik bat, bederen, ikasteko eskubidea.
2. Giza taldeko aldean edo alde kolektiboan, hizkuntz giza eskubideek ondoko eskubide hauek dituzte eurekin: giza talde gisa izateko eta izaten segitzeko eskubidea. Hizkuntzaz baliatu, hura erabili eta garatzeko eskubidea. Eskolak eta bestelako ikastetxeak sortu eta mantentzeko eskubidea, curriculumaren eta irakaskuntzaren gaineko kontrola dutela. Estatuan ordezkartza politikoa eta afera kulturaletan autonomia izateko eskubidea (Phillipson *et al.*, 1994, 2 orr.).

Horiek ditugu oinarrizko hizkuntz eskubideak, edonon edonori aitortu beharrekoak eta inongo ezein boterek inolaz murriztu ezin ditzakeenak. Izan ere, oinarrizko hizkuntz eskubide horiek errespetatzen ez badira haiei lotutako giza eskubideak izango baitira urratuak: babes judizial eraginkorra edo epaiketa hizkuntza ulergarrian izateko eskubidea, hezkuntza eskubidea, adierazpen askatasuna, e.a.

Azken finean, hizkuntz (komunitate) batek bizirauteko behar di-tuen gutxienezko eskubideak dira hizkuntz giza eskubideek babesten dituztenak. Oinarrizko eskubide horiek urratzearen ondorioak gizarte justizia eza eta gatazka ez ezik, giza taldeen biziraute kulturala bera arriskuan jartzea da. Munduko hizkuntz aniztasunaren galtze prozesua abiada bizian dela jakinik, garbiago jabetzen gara oinarrizko hizkuntz giza eskubideak bermatzearen premiaz:

«Linguistic and cultural rights are central for maintaining and re-producing a minority group as a *distinct group*» (Phillipson *et al.*, 1994, 4 orr. Letra etzana jatorrizko testukoa da)⁴.

Baina egun giza eskubideak hizkuntz gutxiengoan bizirautea bermatzeko tresna aski eraginkorra ez direla dioten teorikoak izan badira. Biziki interesgarria da Will Kymlickak «Justicia etnocultural» artikuluan azaldutakoa:

«...debemos aceptar que los derechos humanos tradicionales re-sultan insuficientes para asegurar la justicia etnocultural, y a conti-nuación reconocer la necesidad que existe en complementar los mis-mos *dentro de cada país* con derechos de minorías específicas...» (Kymlicka, 2000, 57 orr. Letra etzana jatorrizko testukoa da).

Bukatzeko, Xabier Iriondori jarraituz, hizkuntz eskubidea edo hizkun-tza bat izan eta mantentzeko eskubidea, nabarmenki giza eskubidea da. Pertsona orok du bere hizkuntza izateko eskubidea eta eskubide hori, ikuspuntu juridiko batetik, ez da neurri zehatzik behar duen eskubidea. Eskubide horrek, batez ere desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen ka-suetan, sustapen neurri ausartak eta erabiltzeko eremuak eskatzen ditu.

Hizkuntza jakin baten eskubideak ordea, ez dira giza eskubideak eta nekez har daitezke oinarrizko eskubide gisa. Gune edo arlo zeha-tzetako neurriak eskatzen ditu, batez ere arlo ofizialean, hau da: arlo horretan hizkuntza horren erabilera ekarriko duen edo bermatuko duen benetako arau sistema (Iriondo, 2003b).

2.3. Eleaniztasuna eta hizkuntz eskubideen aintzatespena

Nazioartean, xx. mendean hasi ziren hizkuntz gutxiengoan eta hiz-kuntz eskubideen babeserako dokumentuak onartzen eta, orain bitar-

⁴ Egilearen itzulpena: «Hizkuntz eta kultur eskubideak funtsezkoak dira gutxiengo batek, giza talde berezitu gisa, iraun eta birsortu ahal izateko».

tean, gai garrantzitsua bilakatu da, nazioarteko hitzarmenetan ez ezik, estatuetakoa konstituzioetan ere eskuarki aipatua baita (Iriondo, 2003a).

Baina estatu baten barnean eleaniztasuna oso egoera ohikoa bada ere, estatu guztiek ez dute euren barneko eleaniztasuna aintzatetsi eta arautu (gutxi gora-behera munduko estatuen %90 da eleanitza, baina estauen %75 batek soilik du bere konstituzioetan hizkuntz klausularen bat). Eta euren eleaniztasuna aintzatetsi eta arautu egin dutenen artean ere ezberdintasun handiak daude herritarrei aitortutako hizkuntz eskubideen inguruan.

Hizkuntz eskubideen egoera hizkuntz komunitatearen estatus politikoari loturik dago. Gehienetan, hizkuntz eskubideak bermaturik ez dituzten giza taldeak estatu bateko gutxiengoak dira eta gutxiengoek ezin dituzte eurek bere kasa euren hizkuntz eskubideak erdietsi edo eskuratu. Azken finean, hizkuntz eskubide horiek bermatu behar dituztenak gobernuak dira, normalean hizkuntz gehiengoaren hiztunak, eta gehiengoaren ordezkariak dira Konstituzioa nola haren garapenerako arauak ere egiten dituztenak. Ondorioz, horien sentiberatze mailaren arabera izango dituzte gutxiengoek errespetatuak euren hizkuntz eskubideak. Gutxiengoek ez ohi dute gobernuan ordezkari izaten eta euren hizkuntz eskubideak aintzatetsi diezazkieten, ezinbestean, estatuarekin negoziatu beharra izaten dute. Negoziazio horretan, gainera, alderik ahulena gutxiengoak izaten dira.

Estatu barnean bezala, nazioartean ere, beste maila batean baina berdintsu gertatzen da. European, adibidez, estatuak dira ordezkariak eta, ondorioz, euskaldunok, nola kurdoek, bretoiek, ijtoek,... haien estatuen borondatearen arabera izango dituzte babestuta European euren hizkuntz eskubideak.

Beraz, gutxiengo baten hizkuntz giza eskubideez ari garenean, boterea da garrantzizkoena: gutxiengo horrek boterea duen ala ez. Baina gutxiengoaren *gutxiagotasuna* ez dugu modu kuantitatiboan soilik ulertu behar. Historian adibide dezente ditugu gutxiengo boteredunek gehiengoaren giza taldearen hizkuntz aldaketa ekarri dutela erakusten dutenak; eta gure inguruko errealitatean ere, European berean, adibide bat baino gehiago ditugu garbi erakusten dutenak ez gutxiagotasunaren logika ez eta hizkuntz komunitate bati aitortzen zaizkion eskubideak ere, ez dautzala hiztun kopuruan. Adibidez, islandierak 200.000 hiztun ditu eta estatu bateko hizkuntza ofiziala da, kurduera berriz, 10.000.000 inguru hiztun izanda, gutxiengo hizkuntzatzat hartzen da. Europako Batasunaren barruan, ofizialtasun estatus osoa duten zenbait hizkuntzak (danierak, finlandiera edo suomierak, eslovenierak,...) baino askoz hiztun gehiago ditu katalanak, baina Europako gutxiengo hizkuntzatzat hartzen da eta Europako Batasunaren administrazioan ez du inolako estatusik.

Kasu bakoitzean, botere publikoen erabakiak —aukera politiko zehatzetan oinarriturik— dira hizkuntz errealitatearen antolaketa juridikoa ezartzen dutenak eta antolaketa juridiko horrek bere eragin zuzena izango du lurralde horretan bizi diren hizkuntz komunitate eta taldeen arteko harreman moduetan. Errealitate soziolinguistikoa, indar politikoen oreka eta tradizio juridikopolitikoa dira hizkuntz talde ezberdinei aitortzen zaizkion eskubideetan edo estatusen eragina duten faktoreak (Vernet, 2003, 30-31 orr.).

Estatu eleanitz batek bere baitako hizkuntz aniztasuna aitortzeak hizkuntzei estatus juridikoa ematea eskatzen du. Estatus horrek ekarriko du estatuak erabakitzea bere lurraldean erabiltzen diren hizkuntzen artean zein izanen d(ir)en *hizkuntza ofiziala(k)*; edo hizkuntza bat ez bada estatuaren lurralde osoan mintzatzen, hitz egiten den lurraldean ofiziala izanen ote den (*hizkuntz gutxiengoak*); edo *gutxiengoan hizkuntzak* aitortzea, haiek babestu eta sustatzeko neurriak hartuz (Oliverras, 2001, 4 orr.).

Hizkuntza bati estatus ofiziala emateak, gutxienik, ondoko hau ekarriko du:

- Hizkuntza hori botere zein administrazio publikoekiko eta herritarren arteko harreman eta komunikazio bide arrunta izatea.
- Ofizialtasun hori onartuta dagoen eremuan, hizkuntza ofizialean eginiko egintza orok, arlo publiko zein pribatuan, balio osoa izatea.
- Herritar orok hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea izatea.
- Hizkuntza ofiziala den eremuan, hizkuntza ofizial horren ezagutzaren presuntzioa indarrean egotea.
- Hizkuntza ofiziala hezkuntza sisteman irakastea bermatuta egotea.

Estatu eleanitzetan hizkuntza bati baino gehiagori izaera ofiziala onartzen bazaie, hizkuntza ofizialen erabilera modulatu beharra sortzen da. Horretarako, estatuak eskuarki bi eredu nagusiren artean hautatu dute euren eraentza jurilinguistikoa ezartzeko: lurraldetasunean oinarritutakoa eta norbanakotasunean oinarritutakoa.

- a) Lurraldetasun printzipioan oinarritzen den eredu. Kasu honetan hizkuntza ofizialen eraentza hizkuntza bakoitzari lurralde jakin batean ofizialtasuna emanaz egiten da. Hizkuntza lurraldeari lotzen zaio eta mugak ezartzen dira. Eredu honen azpian dagoen ustea da hizkuntza bat osoki garatu ahal izateko eta herritarrei haien hizkuntz eskubideak bermatu ahal izateko hizkuntzak, ezinbestean, lurralde bat behar duela. Eredu honek hizkuntzak eta

hizkuntz komunitateen eskubide kolektiboak babesten ditu. Suitza edo Belgika dira euren hizkuntzen eraentza jurilinguistikoa printzipio honen arabera antolatu duten bi estatu.

- b) Norbanakotasun printzipioan oinarritzen den eredu. Eredu honetan hizkuntz ofizialtasuna lurraldeari beharrean herritarri dago atxikita. Beraz, lurralde eremu berean hizkuntza bat baino gehiago dira ofizialak eta herritarrek nahi dutena hautatzeko eskubidea dute. Eredu honi jarraitzen dioten kasuetan hizkuntzak lurralde berean erabiltzen dira eta zailagoa da bi hizkuntzen parekotasuna ziurtatu eta hizkuntza nagusia ez den hizkuntzaren hiztunen eskubideak bermatzea.

Ikus dezagun Will Kymlickak, lurraldetasun eta norbanakotasun eredu inguruan egiten duen gogoeta:

«Es posible que la lengua minoritaria deba ser la única lengua *oficial* en su territorio. Si los inmigrantes y emigrantes de grupos mayoritarios pueden usar el idioma mayoritario en la vida pública, esto puede debilitar gradualmente el estatus de predominio y, por consiguiente, la viabilidad de la lengua minoritaria. En otras palabras, puede que la minoría no necesite un bilingüismo personal (en el que el individuo lleva consigo sus derechos de uso de idioma a lo largo de todo el país), sino más bien un bilingüismo territorial (en el que las personas que elijan trasladarse al territorio de la minoría acepten que la lengua de la minoría será el único idioma de ese territorio)» (Kymlicka, 2000, 54 orr. Letra etzana jatorrizko testukoa da).

Bi eredu horien tartekoak aurkitzea oso arrunta da. Adibide garbia Finlandia da. Finlandian suomiera eta suediera hizkuntza nazionalak dira (nahiz eta suedira finlandiarren %5,6k baino ez izan [ama] hizkuntza) eta ofizialtasun maila bera dute (beraz, norbanakotasun printzipioa), baina, aldi berean, toki administrazioan lurraldetasun irizpidea aplikatzen da: udalerrri batean hizkuntz gutxiengoa herritarren %8, edo zenbaki absolutuetan 3000 lagun, baino gehiago bada, udalerrri horretan elebitasuna ezartzen da administrazio eta hezkuntza esparruetan, hau da, herritarrek zerbitzu publikoa bi hizkuntza ofizialetako zeinetan jaso nahi duten erabakitze eskubidea dute. Hizkuntz gutxiengoa ez bada %8 edo 3000 hiztun izatera iristen, udalerrri horretan administrazioan eta hezkuntzan hizkuntza ofizial nagusian, suomiera ala suedira izan, jardun beharko da (Laponce, 1990).

Zenbait estaturen kasuetan ofizialtasun mailakatuaz hitz egin daiteke. Irlandan, adibidez, Konstituzioak dio irlandera hizkuntza nazionala eta lehen hizkuntza ofiziala dela, eta ingelesa bigarren hizkuntza ofizia-

la. Hau da, hizkuntza bat baino gehiagori ofizialtasuna aitortu baina hizkuntza horien artean ezberdintasunak aintzatesten dira: hizkuntza bati lurralde horretako hizkuntz komunitate historikoaren hizkuntza izatea, nolabait, herri horren hizkuntza eratzailea izatea aitortzen ahal zaio. Hizkuntza horren balio erantsia adierazteko kontzeptu ezberdinak erabili izan dira: *hizkuntza propioa*, *hizkuntza nazionala*, *lehentasunezko hizkuntza*, ... Guztiek, finean, hizkuntza horrek giza talde hori herri gisa definitzen duela adierazten dute. Hizkuntza bat bertako hizkuntza edo hizkuntza nazional gisa definitzeak, komunitate hori, herri hori besteengandik bereizi egiten duen ezaugarri horren aintzatestea dakar. Bertako hizkuntza edo hizkuntza nazionalaren aurrean beste hizkuntzak, beraz, kanpokoak edo ez bertakoak izango dira (Udalbiltza, 2002, 37 orr.).

Halako aitortenak, hizkuntza hori bertakoa eta historikoa izanik eta herri hori herri gisa definitzen duen hizkuntza izanik, hizkuntza hori kasu eta funtzio askotan erabilera bakarreko, nagusiko edo lehentasunezko hizkuntza izatea ekarriko du, ofizialtasunaren ondorioz herritarrei datozkien eskubideak urratu gabe. Herritarrei bertako hizkuntzan bizi ahal izateko eskubidea eremu oso zabalean (ohiko bizimoduko eremu guztietan) bermatuko zaie. Baina horretarako, eredu honek aitortzen gabe, hizkuntza horren babeserako, sustapenerako eta erabilera sozia- laren nagusitasunerako agindu bat ekarri beharko du ezinbestean.

Arestian aipatutako Irlandaren kasuan, adibidez, irlandera hizkuntza nazionala eta lehen hizkuntza ofiziala izendatu zuten, baina ordenamendu juridikoak eta praktika administratiboak irlandera menpekotasun egoeran utzi dute (Ó Riagáin, 2002).

Beste kasu anitzetan, hizkuntzei ofizialtasuna aitortu gabe, hizkuntza horietako hitzunei hizkuntz eskubide batzuk onartzen zaizkie. Hori da, hain zuzen ere, Europako estatu askoren eredia.

3.

Hizkuntz eskubideak nazioarteko zuzenbidean

3.1. **Hizkuntz gutxiengoaren eskubideak nazioarteko zuzenbidean**

Europar gutxiengoaren babeserako nazioarteko legeen tradizioa xvii. mendean hasi zen Westfaliako Itunekin, batez ere erlijio gutxiengoei loturik (Ruiz, 1998). Harrezkero, hizkuntz gutxiengoak eta hizkuntz eskubideak babesten dituzten dokumentuak, estatuetakoa konstituzioak nola nazioarteko itun eta deklarazioak, anitz izan dira⁵.

Nazioarteko zuzenbidean hizkuntz eskubideek izan duten lekua laburki azaltzeko Udalbiltzak *Euskal Herriaren Eskubideen Karta* dokumenturako prestatu zuen *Hizkuntz eskubideak* liburuxkari jarraituko diogu nagusiki (Udalbiltza, 2002).

II. Mundu Gerraren ondoren sortu zen ordena berriak oinarri izango zituen tresna juridikoetan ez zen gutxiengoaren aipamenik egin: ez 1945eko ekainaren 26ko Nazio Batuetako Kartak, ez 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak. Horretan zerikusia izan zuen gerra ondoko giroan gutxiengoaren eta haien aldeko diskurtsoen inguruan zegoen pertzepzioak. Herri, nazio eta kolektibitateen babesa baino, gizabanakoaren babesa ikusi zuten oinarritzko II. Mundu Gerraren ondorengo nazioarteko erakundeek.

⁵ UNESCOren MOST programak hizkuntz eskubideei buruzko edo hizkuntz gutxiengoei buruzko xedapen edo aipamenak dituzten munduko estatuen konstituzio guztiak bildu ditu eta, horren arabera, aztertutako estatuetatik 157k dute euren konstituzioetan hizkuntz eskubideei buruzko artikulurik. Hizkuntz eskubideei buruzko aipamenik egiten ez dutenak edo konstituziorik ez duten estatuak 26 besterik ez dira (Iriondo, 2003b).

Halere, eskubide kolektiboen auzia ez zen guztiz bazter utzi. Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordearen barnean Gutxiengoen Eskubideen Babeserako eta Diskriminazioaren Prebentziorako Azpibatzaordea eratu zen eta 1950eko azaroaren 4ko Giza Eskubideen Babeserako Konbentzio Europarrak, bere 14. artikuluan, gutxiengo nazional bateko partaide izateagatik baztertuta edo diskriminatuta ez izateko eskubidea jaso zuen.

Baina Eskubide Zibil eta Politikoen Ituna (1966ko abenduaren 16an onartuta eta 1976ko martxoaren 23an indarrean jarria) onartu arte ez zen nazioarteko komunitatean gutxiengoen babeserako izaera unibertsala zuen tresnarik izan. Hain zuzen ere, Itunaren 27. artikulua ireki zuen bide hori:

«Artículo 27. En los estados en que existan minorías étnicas, religiosas o lingüísticas no se negará a las personas que pertenezcan a dichas minorías el derecho que les corresponde, en común con los demás miembros de un grupo, a tener su propia vida cultural, a profesar y practicar su propia religión y emplear su propio idioma.»

27. artikulua horri erreparatuta, lehenik eta behin, gutxiengoen partaideen eskubideak babesten dituen aldetik, norbanako eskubideez arida, nahiz eta garbi egon gizabanako horiek giza talde bateko partaide diren aldetik dituztela eskubide horiek bermaturik. Hori horrela, aipatu izan da doktrinalki artikulua horrek gutxiengoen identitaterako eskubidea aintzatesten duela inplizituki («*el derecho que en común con los demás miembros les corresponda*»).

Bestalde, kontuan eduki behar dugu, nahiz eta 27. artikuluko eskubideak modu negatibo batean formulatuta egon («*no se negará [...] el derecho*»), ez dagoela zalantzarik artikulua horren betetzeak jarduera positiboak hartu beharra dakarkiela estatuei, gutxiengoen partaideak dagozkien eskubideez balia ahal izan daitezen. Giza Eskubideen Batzordeak aipatzen duen bezala:

«Aunque el art. 27 esté redactado en términos negativos, reconoce la existencia de un derecho y requiere que no se deniegue (...) Puede ser también necesario que los estados adopten medidas positivas para proteger la identidad de una minoría y los derechos de sus miembros a gozar y desarrollar su cultura y su lengua y practicar su religión en comunidad con los otros miembros de su grupo (...) dichas medidas pueden constituir una diferenciación legítima sobre la base del convenio, de tal modo que se basen en criterios razonables y objetivos».

Azkenik, 27. artikuluan gutxiengoen kideek euren hizkuntza publikoki nola pribatuki erabiltzeko duten eskubidea jasotzen denean, eskubide

hori ez da ofizialtasunerako eskubidearekin nahasi behar. 27. artikulua ezartzen duena da estatuek betebehar batzuk dituztela: ama hizkuntza ikasteko eskubidea eta hizkuntzaren erabilpen instituzionala bermatu beharra, bai eta har daitezkeen neurri positiboak hartu beharra ere.

Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Itunaren 27. artikulua garapen gisa, Nazio Batuetako Asanblada Orokorrak, 1992ko abenduaren 18ko 47/135 Ebazpenaren bidez, Gutxiengo Nazional, Etniko, Erlijioso edo Linguistikoetako partaide diren Pertsonen Eskubideen Deklarazioa onartu zuen. Bigarren deklarazio honen balio juridikoa, hain zuzen, askoz eskasagoa da, aholku emaile hutsa baita. Deklarazioak, hizkuntz eskubideei dagokienez, ondoko hau jaso zuen:

1. artikuluan, Estatuek euren barneko hizkuntz gutxiengoaren identitatea babesteko dutela eta horien sustapenerako neurriak hartuko dituztela.

2. artikuluan, gutxiengoaren partaideek euren hizkuntza pribatuki nola publikoki erabiltzeko eskubidea dutela.

4.2 artikuluan, estatuek neurriak hartuko dituztela gutxiengoaren partaideak euren hizkuntza eta kultura garatzeko gai izan daitezen beharrezkoak diren baldintza egokiak sortzeko.

4.4 artikuluan hezkuntza arloan hartu beharreko neurriak zehaztu eta adierazi egiten dira: egoki denean, estatuek neurriak hartu beharko dituztela, besteak beste, gutxiengo hizkuntzaren ezagutza ziurtatzeko.

Horretaz gain, Europako eremuan hainbat tresna onartu dira izaera heterogeneoa dutenak eta garrantzi ezberdinekoak. Hori horrela, ikusi dugu nazioarteko zuzenbidean hizkuntz eskubideen babes gutxiengo linguistiko, etniko edo nazionalen babesaren eskutik datorkigula; edota oinarrizko giza eskubideen eskutik: baztertua ez izateko eskubidetik, adierazpen askatasunaren eta babes judizial eraginkorraren eskubidetik, edota autodeterminazio eskubidetik.

Ondorioz, batetik eduki linguistikoa duten oinarrizko eskubide batzuk genituzke eta horietatik ondoriozta daitezkeen hizkuntz eskubide batzuk gizabanako orori leku orotan dagozkionak:

- Publikoki zein pribatuki bere hizkuntzan jarduteko eskubidea bai eta hizkuntza hori bere ondorengoei transmititzeko eskubidea (adierazpen askatasunaren eduki linguistikoa).
- Hizkuntza edo hizkuntz jatorria dela eta, baztertua ez izateko eskubidea (bazterkeriarik ez jasateko eta berdintasunerako eskubidearen eduki linguistikoa).
- Auzitegiaren aurrean hizkuntza ulertu ezean itzultzaile bidez jardun ahal izateko eskubidea (babes judizial eraginkorrerako eskubidearen eduki linguistikoa).

Horretaz gain, hizkuntz gutxiengo baten partaideek, gutxiengo battekoak izateagatik bestelako eskubide batzuk ere izango lituzkete:

—Norbanako gisa:

- Hizkuntza berariazkoa ikasteko eskubidea.
- Oinarrizko hezkuntza hizkuntza berariazkoan jasotzeko eskubidea.
- Arlo pribatuan zein publikoan hizkuntza erabiltzeko eskubidea.

—Giza talde gisa:

- Identitate propioari eusteko eskubidea eta horretarako estatuek jarrera aktiboa izan beharra.

Nazioartean, hizkuntz gutxiengoen zein hizkuntz eskubideen alorrean dauden Itun edo Deklarazio guztiei erreparatu beharrean⁶, soilik ondo-ko bi hauei egingo diegu aipamen berezia: *Erregioetako edo Gutxi-tuengoen Hizkuntzen Europako Itunari* (Strasbourg, 1992) eta *Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalari* (Bartzelona, 1996).

3.2. Erregioetako edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna

Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak 1992ko ekainaren 25ean *Erregioetako edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna* (EGHEI hemendik aurrera) onartu zuen eta urte bereko azaroaren 5ean Europako Kontseiluko kide ziren estatuek sina zezatela (edo edozein estatuk atxikimendua adieraz ziezaiola) zabaldu zuen. 1992ko azaroaren 5ean berean Europako lehen hamaika estatuk sinatu zuten EGHEI, horien artean Espainiak⁷.

Baina estatu sinatzaileek ez dute konpromisorik hartzen. Konpromisoak hartzeko estatuek EGHEI berretsi beharra dute. Espainiak 1992an sinatu bazuen ere, 9 urte pasatu ziren EGHEI berretsi arte. 2001eko

⁶ «Nazioarteko Itun edo Deklarazioetara jotzen badugu, datua ere nabarmena da. Hizkuntza eskubideei zein gutxiengo linguistikoei buruzko xedapenak barneratzen dituzten NAZIOARTEKO Itun edo Hitzarmen nabarmenenak 27 dira; 11 Nazio Batuetako Deklaraziokoak edo Hitzarmenak dira; OITko Konbenioak barne; 10 Europar Deklarazioak eta Konbenioak dira, bai Europar Batzordekoak, Europar Batasunekoak, edo OSCEkoak; eta azkenik 4 deklarazio inter-amerikarrak dira, OASen baitan onartutakoak, eta 2 afrikarrak, OUAren baitan onartutakoak» (Iriondo, 2003b).

⁷ Espainiaz gain, Alemania, Austria, Danimarka, Finlandia, Holanda, Hungaria, Liechtenstein, Luxemburg, Malta eta Norvegia izan ziren EGHEIren lehen estatu sinatzaileak.

apirilaren 9an berretsi zuen eta urte bereko abuztuaren lehenean jarri zuen indarrean⁸. EGHEI berrestean Estatuek euren lurraldean hitz egiten diren erregioetako edo gutxiengoaren hizkuntzekiko konpromisoak hartzen dituzte eta konpromiso horiek, behin hartuta, betebeharrekoak dira, ez nahierakoak.

Frantziak 1999ko maiatzaren 7an sinatu zuen EGHEI —Lionel Jospin Gobernuburuak bultzatuta— baina oraindik ez du berretsi. Izan ere, Jacques Chirac presidenteak 1999ko maiatzaren 20an Frantziako Auzitegi Konstituzionalera eraman zuen EGHEIren konstituzionaltasunaren auzia eta, 1999ko ekainaren 15ean, *Conseil Constitutionnelek* EGHEIk Frantziako Konstituzioaren kontrako klausulak dituela ezarri zuen, Errepublikaren banaezintasun, Legearen berdintasun eta herri frantsesaren batasun printzipio konstituzionalak urratzen dituelakoan. Hori horrela, Frantziak EGHEI sinatuta ere, ez du bete beharreko konpromiso zehatzik hartu.

Beraz, euskarari gagozkiola, EGHEI Espainiako Estatuan soilik dago indarrean. Nazioarteko arau hau onartzeak Estatuaren eraentza juridikoari dakarkion eraginaz jabetzeko, jo dezagun Iñaki Agirreazkuenaga Euskal Herriko Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko katedradunaren hitzetara:

«Su valor y fuerza de Ley resulta indiscutible, pero desde la perspectiva constitucional habría que añadir algo más (...) y es que, a mi juicio, se incorpora con sus prescripciones generales en el bloque de constitucionalidad, de tal suerte que debe ser respetada por toda la legislación estatal y autonómica, junto con lo dispuesto en el artículo 3 de la Consitución y los correspondientes artículos de los Estatutos de Autonomía relativos a la materia lingüística» (Agirreazkuenaga, 2003, 105-106 orr.).

EGHEIren xedea ez da herritarrei hizkuntz eskubideak aitortzea, Europako hizkuntzak diren ondare kulturala babestea baizik. Hala ere, defendatzea bada estatuek EGHEI berrestean bete beharreko konpromisoak hartzearekin batera, herritarrei erregioetako edo gutxiengoaren hizkuntzekiko eskubide batzuk aintzatetsi ere egiten dizkietela.

Itunak, estatuek hartu beharreko konpromisoei dagokienez, bi zati nagusi ditu: II. zatia, EGHEIk bete nahi dituen xede eta oinarriak biltzen

⁸ «INSTRUMENTO de ratificación de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias, hecha en Estrasburgo el 5 de noviembre de 1992». 2001eko irailaren 15eko *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (BOE), 222 zenbakiduna. Jatorrizko bertsioetan, ingelesez eta frantsesez, eskuratzeko:

<http://www.coe.int/T/E/Legal_Affairs/Local_and_regional_Democracy/Regional_or_Minority_languages/Charter/2_The_Text_of_the_Charter/default.asp#TopOfPage>

dituena eta Estatuko lurraldeko erregioetako edo gutxiengoaren hizkuntza guztiei aplikatu beharrekoa; eta III. zatia, erregioetako edo gutxiengoaren hizkuntzen erabilera bizitza publikoan sustatzeko neurriak, estatuek hautatzen dituzten hizkuntzei aplikatu beharrekoak, estatuek gutxienez 35 konpromiso hartu behar dituztela.

III. zatiak zazpi esparru bereizten ditu: hezkuntza (8. artikulua), justizia (9. art.), aginte administratiboak eta zerbitzu publikoak (10. art.), he-dabideak (11. art.), kultur jarduera eta zerbitzuak (12. art.), esparru ekonomiko eta soziala (13. art.) eta mugaz gaindiko harremanak (14. art.).

Beraz, estatuek EGHEI sinatzean euren lurraldeko zein hizkuntzari zein konpromiso aplikatuko zaion zehazten dute. Espainiak honako formula hau hautatu zuen Ituna berrestean:

«España declara que, a los efectos previstos en los citados artículos, se entienden por lenguas regionales o minoritarias, las lenguas reconocidas como oficiales en los Estatutos de las Comunidades Autónomas del País Vasco, Cataluña, Illes Balears, Galicia, Valenciana y Navarra.

Asimismo, España declara, a los mismos efectos, que también se entienden por lenguas regionales o minoritarias las que los Estatutos de Autonomía protegen y amparan en los territorios donde tradicionalmente se hablan.

A las lenguas citadas en el párrafo primero se aplicarán las disposiciones que a continuación se indican de la Parte III de la Carta (...).

A las lenguas citadas en el párrafo segundo se aplicarán todas aquellas disposiciones de la parte III de la Carta que puedan razonablemente aplicarse en consonancia con los objetivos y principios establecidos en el artículo 7.»⁹

Itunaren 15. artikuluko 1. paragrafoak ezartzen duenez, Ituna indarrean sartu eta ondoko urtean estatuek txosten bat helarazi behar diote Europako Kontseiluari. Txosten horretan estatuek Itunaren III. zatiko konpromisoak betetzeko aurrera eraman den politika, II. zatian azaltzen diren xede eta oinarriekin bat datorrena, adierazi beharko dute.

Espainiak 2002ko irailean aurkeztu zuen EGHEI aplikazioaren inguruko txostena¹⁰ eta defendatzen duen tesia da berak ez duela neurri berezirik hartu behar EGHEIren konpromisoak betetzeko.

⁹ Ikus 8. oin oharra.

¹⁰ Estatu espainiarraren txostena: *Informe sobre la aplicación en España de la Carta europea de Lenguas Regionales y Minoritarias* honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.coe.int/T/E/Legal_Affairs/Local_and_regional_Democracy/Regional_or_Minority_languages/Documentation/1_Periodical_reports/2002_7esp_MIN-LANG_PR_Spain.asp#TopOfPage>

Estatuaren txosten horren informazioaren osagarri gisa gizarte erakundeek ere aukera dute Europako Kontseiluari euren txostenak igortzeko. Izan ere, Itunaren 16. artikuluko 2. paragrafoak Estatuan legeztatuta dauden gizarte erakundeek eta elkarteek Estatuaren txostena aztertuko duen adituen lan taldeari oharrak egiteko eskubidea dutela dio. Ohar horiek Estatuak bere gain hartu dituen III. zatiko konpromisoen ingurukoak izan behar dute. Bestalde, II. zatiaren arabera aurrera eramandako politikaren gaineko adierazpenak ere aurkez ditzakete.

EGHEI Hego Euskal Herri osoan aplikatzearen gaineko txostena Hizkuntz Eskubideen Behatokiak egin zuen: *An application of the Spanish state's evaluation of the European Charter for Regional or Minority Languages to Euskara, the Basque language* (Behatokia, 2003e. Euskaraz ere eskura daiteke). Horren inguruan 4.2.2.1. puntuan luzatuko gara, adibideak eta guzti.

3.3. Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala

Lehenago esan dugun bezala, hizkuntz eskubideen argitze kontzeptuala egitea premiazkoa da. Izan ere hizkuntz eskubideak babes-
tuak izan daitezten, lehenik definituta egon behar dute. Ahulezia hori gainditzeko sortu zen Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala egiteko ideia.

Puntu honetan Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalaz arituko gara, oraindik nazioarteko lege mailarik ez badu ere, gure gairako dokumentu interesgarria eta guttiz erreferentziala baita.

Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala 1994ko irailean hasi zen gogoeta-prozesu luze baten fruitua da. Urte hartan *PEN Club International*aren Itzulpen eta Hizkuntz Eskubideen Batzordeak eta *Centre International Escarré per a les Minorities Ètniques i les Nacions* (CIEMEN) erakundeak, Hizkuntz Eskubideen Deklarazio baten beharraz jabeturik, nazioarteko jakintza-arlo eta jarduera-eremu ezberdinetako aditu talde bati Deklarazioa izango zenaren lehen zirriborroa egiteko eskatu zioten. Aditu horiek mundu zabaleko eta diziplina zientifiko ezberdinetan aritutako 50 gizon-emakume ziren: soziolinguistak, juristak, pedagogoak, hizkuntzalariak, soziologoak, filologoak,...

Bi urtez proiektua mamitu eta zirriborroak landu eta ondoan, 1996ko ekainean, bi erakunde eragileek, UNESCOren babespean, Hizkuntz Eskubideen Munduko Konferentzia antolatu zuten Bartzelonan. Konferentzia horretan *Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala* (HEDU, hemendik aitzin) onartu zuten bertan bildu ziren ia 90 estatutako 220 gizon-emakume, 100 bat GKeren eta *PEN Internationale*ko zentzoren ordezkariak.

HEDU prestatu eta onartu zutenek kontuan hartu zuten hizkuntz eskubide zuzenen definizioa ezin dela hizkuntzen estatus politiko edo administratiboaren menpe egon, ez eta kodifikazio gradua edo hiztun kopurua bezalako irizpideen menpe ere. Horregatik HEDUK honako hau adierazten du: hizkuntza guztiak direla eskubide berberen jabe eta ez dela bereizkeriarik egin behar hizkuntza ofizialak/ez ofizialak, nazionalak/lurraldekoak/eskualdekoak, gehiengo hizkuntzak/gutxiengo hizkuntzak edo hizkuntza modernoak /antzinakoak ezaugarriengatik (Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren Jarraipen Batzordea, 1997, 2 orr.). Izan ere, honela dio HEDUren 5. artikulua:

«5. artikulua. Deklarazio honen funtsean dago printzipio bat zeinaren arabera hizkuntz komunitate guztien eskubideak berdinak diren, kontuan izan gabe bere kontsiderazio juridiko edo politikoa den hizkuntza ofizialarena, erregionalarena edo minoritarioarena (...).»

Beste deklarazio, itun eta hitzarmenen aldean, berdintasun printzipio hori dugu, hain zuzen ere, HEDUren ekarpen aipagarrienetakoa: munduko hizkuntza guztien berdintasunaren aldarrikapena.

Deklarazioak dioenez, hizkuntz eskubideen dimentsio indibiduala eta kolektiboa ezin dira bereizi. Gainera, elkarren osagarri dira hizkuntz komunitate baten barnean garatzen baitira, taldean, eta aldi berean, komunitate horren barnean norbanakoak erabiltzen du hizkuntza eta hartaz baliatzen da. Horrela, bada, norbanakoaren hizkuntz eskubideak ezin dira gauzatu komunitate eta hizkuntz talde guztien eskubideak errespetatzen ez badira (*Ibid.*).

HEDUK bere hitzaurrean azaldu bezala:

«Deklarazio honek ez estatuak baizik eta hizkuntz komunitateak hartzen ditu abiapuntutzat, eta gizateria osoarentzako garapen sustengarri eta ekitatiboa bermatzeko gauza diren nazioarteko erakundeak indartzeko ahaleginean sartzen da, eta helburutzat dauka hizkuntz desberdintasunaren marko politikoa, bizikidetzan eta elkarren errespetu eta onuran oinarritua bilatzea.» (*Ibid.*, 6 orr.).

Eta hori da, hain zuzen ere, HEDUK duen ekarpen handienetako bat: babestu nahi duen subjektuaren definizioa bera, beste hitzarmen edo itun batzuetan (Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Itunean, Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoan edo Gutxiengo Nazional, Etniko, Erlijioso edo Linguistikoen partaide diren Pertsonen Eskubideen Deklarazioan) hain ongi definituta ez dagoena.

HEDUK *hizkuntz komunitatea* hartzen du eskubideen eta babesaren subjektu gisa eta lehen artikuluan definitu ondoren, printzipio orokorre

buruzko atalean, eskubide zehatzak uztartzen dizkio, bai komunitateari bai komunitateko kide diren gizabanakoei ere. Hori da, Xabier Iriondo-ren iritziz, printzipio orokorren artean aipagarrienetako bat (Iriondo, 2003b).

Hizkuntz komunitatea lehen artikuluan definitzerakoan, bi kontzeptu definitzen ditu, batetik *hizkuntz komunitatea* eta, bestetik, berea den hizkuntza edo *berezko hizkuntza*. Deklarazio honetan nagusi diren bi termino horiek azalpena merezi dute:

«1.1. Deklarazio honetan hizkuntz komunitatea aipatzean esan nahi da edozein gizarte, historian zehar lur-eremu zehatz batean —eremua errekonozitua izan ala ez— finkatua, bere burua herrizat duena, eta hizkuntza komun bat garatu duena kideen arteko komunikazio naturalaren eta kultur kohesioaren bidetzat.»

Eta ondoko esaldian dioenez:

«Lurralde bateko berezko hizkuntza edo hizkuntza propioa deizioekin, lurralde horretan historian zehar ezarritako komunitatearen minzairari egiten zaio erreferentzia.»

Horra bi definizio garbi, urteetan eztabaidagai izan diren kontzeptuak alde batera utziz, hizkuntz eskubideen subjektuak zein diren finkatzeko. HEDUK *hizkuntz komunitateari* eta *berezko hizkuntzari* eskubide eta babes mailarik goren eman die.

HEDUK aldarrikatzen duen berdintasun printzipioan oinarriturik, eskubide zehatz batzuk esleitzen dizkio hizkuntza orori, gutxienezko eskubide batzuk hizkuntzen elkarbizitza eta berdintasuna bermatuko dituztenak. Berdintasun printzipio horretan ordea, eta beste modu batera ezin izan zitekeen moduan, hizkuntzen elkar errespetua eta elkarbizitza bermatuko dituen oinarri batzuk ezartzen dira eta, horretarako, mailaketa bat egiten da eskubideak esleitzerakoan. 1.2 artikuluan dioen moduan:

«1.2. ...hizkuntz eskubideen oso-betetasunaren erreferentzetzat hartzen du hizkuntz komunitate historiko bat bere lurralde-eremuan, eremu hau ulerturik ez soilik komunitate hori bizi deneko geografia zati gisa, baizik eta hizkuntzaren garapen osorako ezinbestekoa den espazio sozial eta funtzional gisa ere...»

Beraz, eskubide *maximum* edo gehiena finkatzen da: hizkuntz komunitateak bere lurralde historikoan dituen eskubideak. Eta hortik abiatuz eskubideak mailakatzen ditu *continuum* gisa: hizkuntz eskubideak osoro aitortzetik gutxika-gutxika behera egiten duena.

Bigarren mailan hizkuntz taldeak daude, hau da, beste hizkuntz komunitate batean kokaturik dauden taldeak, historikotasun txikiagoa dutenak eta, hizkuntz komunitate batekin bizi badira ere, euren hizkuntza gorde dutenak. Hizkuntz taldeak ere hizkuntz eskubideen jabeak dira, baina haien historikotasuna urriagoa baita, hizkuntz komunitate baten lurraldean kokaturik egoteagatik, haien hizkuntza ez da lurraldeko hizkuntza propioa edo berezkoa eta, ondorioz, hizkuntz talde horiek eta haien hiztunek lituzketen hizkuntz eskubideak murriztagoak izan daitezke, nahiz eta bien arteko elkarbizitza errespetu osoz eta printzipio demokratikoak errespetatuz egin beharko den.

Ikusi dugunez, hizkuntza orok izan behar dituen gutxienezko berme eta eskubideak errespetatuz, HEDUK tratu ezberdina emateko aukera aurreikusten du hizkuntz komunitate eta taldeak lur eremu berean egonez gero. Eta hori da, hain zuzen ere, berdintasun printzipioaren edukia, inolako diskriminaziorik gabe: egoera ezberdinetarako trataera ezberdinak aurreikustea.

HEDUK *berezko hizkuntza* kontzeptuari eduki juridikoa erantsi dio. Orduan bitartean ofizialtasuna edo koofizialtasuna soilik genituen hizkuntzen estatusaren adierazle eta ezaugarri horiek soilik zekarzkien ondorio juridikoak hizkuntzei. HEDUK kalifikazio horrekin hautsi eta horien gaitetik dagoen ezaugarri bat erabili zuen: berezko hizkuntza izatea. Berezko hizkuntza edo hizkuntza propioa izateak hizkuntza baten berezkotasuna adierazten zuen, lurralde zehatz batean hizkuntza horrek duen antzinakotasun edo historikotasuna, baina ofizial gisa aintzatetsitako beste hizkuntzen aldean berezko hizkuntza izateak ez zion deus eransten. HEDUK *berezko hizkuntza* hizkuntz eskubideen osotasunaren erreferente gisa jartzen du, beste hizkuntzen gaitetik¹¹.

Hizkuntza arlo publiko zein pribatuan erabiltzeko askatasunaren gainean, nork bere hizkuntza erabiltzeko duen askatasuna osoa da arlo pribatu eta familiarterkoan, baina arlo publikoan berriz, 12.1 artikulua zahazten duenez:

«12.1. Gizaki orok eskubidea dauka alor publikoko jarduera guztiak bere hizkuntzan egiteko, baldin eta bera bizi den lurraldeko hizkuntza propioa bada.»

Horra hor arestian aipatu dugun berezko hizkuntzaren ondorio juridikoetako bat, erabilera arlo ofizialean edo publikoan. Artikulu horren

¹¹ Kataluinako Legebiltzarrak HEDUK irekitako bidea probestu zuen 1998an bere Normalizazio Lege berria egiteko. Lege berriak katalanari lehenago emandako berezko hizkuntza ezaugarri hori kontzeptu juridikoa bihurtu eta, horretan oinarriturik, katalanaren erabilera lehenetsi edo, zenbait eremutan, erabilera bakarreko hizkuntza izango dela ezarri zuen.

arabera, arlo publikoan aktibitate oro bere hizkuntzan aurrera eramateko eskubide osoa berezko hizkuntzan soilik bermatzen da, baina ez beste hizkuntzetan, horietan askatasun oso hori mugatu edo matizatu egiten da.

Bestalde, HEDUk aipatzen duen arau onuragarriagoaren aplikazioaren printzipioa edo xedapen minimoen printzipioa dugu (Iriondo, 2003b). Printzipio hori aitaturako beste hitzarmen eta itunetan ere jasotzen da¹². HEDUk bere 14 artikuluan dioenez:

«14. Deklarazio honetako xedapenak ezin dira interpretatu edo erabili, estatu barruko nahiz nazioarteko erregimeneko edozein arau edo praktikak hizkuntza bat bere lurraldean erabiltzeko ezarritako tratu faboragarriagoren aurka.»

Artikulu horrek eta nazioarteko beste arauetan jasotzen diren antzekoek adierazten digutena da itun, hitzarmen eta deklarazio horiek ez dutela bide emango hizkuntza baten egungo estatusa txikitzeko.

Laburbilduz, eta ondorio gisa, HEDUk daukan garrantzia bereziki aipatzekoa da bi arlotan: (1) batetik, hizkuntz eskubideak zer diren zehaztu eta definitu duelako, hau da, gutxienezko hizkuntz eskubideak hizkuntza guztiek izan behar dituztenak dira; eta, (2) bestetik, babestu beharreko subjektua eta objektua zein diren behingoan finkatu duelako, *gutxiengo*, *gutxitu* eta antzeko beste sofisma batzuk alde batera utziz, hizkuntz komunitateak eta hizkuntzak babestuz (Iriondo, 2003b). Egun, oraindik HEDUk ez du nazioarteko lege mailarik. Horretarako, Nazio Batuen Erakundeak bere egin eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren eranskin gisa onartu beharko luke baina, dirudenez, zail ikusten da epe laburrean halakorik gertatzea.

Hizkuntz eskubideak nazioarteko zuzenbidean izeneko atal honi bukaera emateko, babes jurisdikzionalaren gainean aipamen hau: egun ez dago hizkuntz eskubideei babesik ematen dien nazioarteko auzitegirik. Agian, Frantziak eta oraindik berretsi ez duten Europako gainerako estatuak EGHEI berretsiko balute edo HEDU Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren parte izatea erdietsiko balitz, orduan, bestelako egoera izango genuke, baina errealitatea da egungo egunean, hizkuntz eskubideen urraketekin nora jo ez dagoela (Iriondo, 2003b).

¹² Erregioetako edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunaren 4 artikuluan, Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoaren 22 artikuluan eta Gutxiengo Nazional, Etniko, Erljioso edo Linguistikoaren parte diren Pertsonen Eskubideen Deklarazioaren 8.2 artikuluan.

4.

Hizkuntz eskubideak Euskal Herrian

4.1. **Hizkuntz eskubideen egoera aztertzeko oinarriak**

Euskal hiztunek Euskal Herrian euskararekiko dituzten eskubideak izan dira urteetan eta, gaur egun ere badira, euskararen eta euskal kulturaren alde lan egiten duten Euskal Herriko hainbat herritar eta gizarte erakunderen kezka.

Atal honetan ikusiko dugun bezala, Euskal Herriko zenbait lurralde administratibotan, herritarrei euskara erabiltzeko eskubideak legez aitortu egin zaizkie, batzuetan euskarari hizkuntza ofizialaren estatusa lurralde osoan emanda edo, Nafarroan gertatu zen bezala, lurraldearen zati bakar huts batean. Beste lurralde batzuetan, berriz, euskarak inolako aintzatespen ofizialik ez du eta, ondorioz, euskal hizkuntz komunitateak eta haren hiztunek ez dute euren hizkuntza erabiltzeko administrazio publikoen babesa.

Euskal Herrian euskal hiztunen eskubideak zertan diren azaltzeko, legez aitortuta dauden hizkuntz eskubideei ez ezik, lege horien aplikazioari nola halako lege babesik ez dagoen lurraldeetako egoerari ere erreparatu beharko diegu. Hau da, horretan babesten dituen legea izan ala ez izan, euskal hiztunek euren hizkuntzaz aritu, zerbitzu publikoez baliatu eta euskara gizarte alor ezberdinetan garatzeko duten aukera errealei erreparatzeak emango digu hizkuntz eskubideen egoera ezaizteko bidea.

Lan honetan islatu nahi izan dugun egoera datu eta gertaera zehaztuz oinarritzeko bereziki baliagarria izan zaizkigu Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren zuzendari gisa esku artean izandako milaka herritarren kasuak, denak haien bizipen errealak izan zirenak. Behatokia Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren ekimenez sortu zen 2001eko ekainean eta haren egiteko bat zen, hain zuzen ere, Euskal Herriko hiz-

kuntz eskubideen egoera aztertzea. Egoera hori modu objektiboan neurtu ahal izateko Behatokiak *Euskararen telefonoa* zerbitzu publikoa jarri zuen abian. Zerbitzu horrek herritarren bizipenak diren esperientzia askoren berri eman du eta horietan oinarriturik Euskal Herriko herritarren hizkuntz eskubideen egoeraren diagnosia izan nahi duten azterketa txostenak plazaratu izan ditu Behatokiak.

Behatokiak hizkuntz eskubideak Euskal Herrian zertan diren aztertzeko tresna ez ezik (*Euskararen telefonoa*), metodologia osoa, bere protokolo zehatza eta guzti, garatu ditu: nola jaso herritarren kezak, zeri begiratu kasuen larritasuna baloratzeko, kasu bakoitzari zer bideraketa eman, herritarren kezak nola jakinarazi erakunde publiko edo pribatuei, zer bideri jarraitu kasuaren konpontzea bilatzeko,... Metodologia horrek kasuei eman beharreko tratamendu sistematikoa zuzentzen du. Luze joko luke horren guztiaren berri lantxo honetan emateak, baina oso lagungarria da Behatokiak esku artean dituen datuak, horien gainean egiten duen azterketa eta hortik ateratzen dituen ondorioak ulertzeko. Behatokiaren webgunean, www.behatokia.org, fundazio horrek egindako txostenak daude, urtekoak zein monografikoak, Behatokiaren jardunbidea garbi erakusten dutenak. Alde metodologikoa ikusteko jo 2002 urteko txostenera (Behatokia, 2003a).

Lan honen bigarren atalean agerian utzi dugun bezala, *hizkuntz eskubide* kontzeptuaren oinarritzko erreferentzia definizio baten beharra dago, areago ere estatuetan indarrean dauden hizkuntz legeak edo hizkuntz aniztasunaren aitzinean administrazioek dituzten jarrerak zein ezberdinak diren ikusita. Izan ere, euskararen lurraldeetan, Euskal Herrian, inon gutxitan bezain larria da aipatutako bateratasun falta. Euskaldunek euren hizkuntzaren estatusa bost erregimen juridiko ezberdinen pean dute: ofizialtasuna gaztelaniarekin batera Euskal Autonomia Erkidegoan, hiru hizkuntz eremu Nafarroako Foru Komunitatean eta inolako lege aitorenpenik eza Frantziako Estatuaren barneko euskal hiru herrialdeetan (Euskal Autonomia Erkidegoaren lur eremuaren barnean baina beste jurisdikziopean dauden Trebiñon eta Turtziotz-Villaverden bezala).

4.2. Euskararen estatusa Euskal Herrian eta hizkuntz eskubideak

Lehenago aipatu dugun bezala, hizkuntz eskubideen bi maila ditugu: Hizkuntz Giza Eskubideak eta hizkuntz eskubide arruntak. Xabier Iriondok dioen bezala, biak elkar loturik badaude ere bereizi beharra ditugu. Lehendabizikoek, hizkuntz giza eskubideek, beste giza eskubideen antzera, ez lukete estatu baten ordenamendu juridikoaren gora-beheren menpe egon beharrik, horiek bizitza eskubidea, tratu txarrak ez ja-

sotzeko eskubidea edo berdintasun eskubidea bezalaxe, pertsona orori onartu behar baitzaizkio. Edonork dituen eskubideak dira, murriztu ezinak, gutxitu ezinak, gutxienenezkoak, alegia (Iriondo, 2003b).

Atal honetan hizkuntz eskubideen beste mailaren gainean arituko gara, gutxienezko horietaz gain lurralde jakin batean hizkuntza zehatz bati aitortzen zaion estatusaren arabera bermatzen diren eskubideak. Beraz, Euskal Herriaren estatusa eta bertan euskarari aitortzen zaion estatusa aipatzearekin hasiko gara.

Euskal Herria, euskararen lur eta giza esparru historikoa, Frantzia eta Espainia estatuetan dago. Estatu horien hizkuntza ofizialak, frantsesa eta gaztelania, mundu mailako hizkuntza nagusietakoak dira: frantsesek 122 milioi hiztun ditu munduan barrena eta 53 estatutan da hizkuntza ofiziala; gaztelaniak 352 milioi hiztun ditu, gehienak Ameriketan, eta munduko 21 estatutan da hizkuntza ofiziala. Euskarak, berriz, Euskal Herriko bertako hizkuntza bada ere, ez du bere lur eremu historiko osoan ere tokiko administrazioen babesia. Egun, Euskal Herriko herrialde batzuetan euskara hizkuntza ofiziala da, baina beste batzuetan, ordea, ez du inolako estatus juridikorik, eta euskara erabiltzeko aukera botere publikoen tolerantzia hutsean geratzen da. Bi aldeen arteko egoera juridikoak ere badira.

Ondoko puntuetan, Euskal Herriko lurralde administratiboetan euskarak duen estatusa, herritarrei euskara erabiltzeko aitortzen zaizkien eskubideak eta erabilpen hori egiteko egun dauden aukera errealak aztertuko ditugu.

4.2.1. *Ipar Euskal Herrian*

Ipar Euskal Herrian, Frantziako Estatuko hegomendebaldeko hiru euskal probintzietan (Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan), biztanleriaren %24,7 da euskalduna, 55.000 bat lagun (Eusko Jaurlaritza, 2003), baina euskarak ez du inolako estatus juridikorik ez eta babesik ere Frantziako Errepublikaren Administrazioaren aldetik.

Erramun Bachoc Euskal Kultur Erakundeburuak hala azaltzen du III. Inkesta Soziolinguistikoak 2001ean Iparraldean neurtutako egoera:

«Inkesta soziolinguistikoaren emaitzak ilunak dira Ipar Euskal Herrian, baina baino beltzen artekin agertzen da ere itxaropenaren ortzadarra. Alabainan hiru inkestek, 1991, 1996 eta 2001ekoak, argibideak ematen dizkigute ehun urteko epean, zaharren gurasoetaraino iganez. Norabide astunak euskararen kaltetan agertzen dira: hizkuntza-gaitasuna gutituz doaz, familiako jarraipena ez baitabil ongi, kasu hobere-netan ere, bi gurasoak euskaldun direlarik. Zorionez, euskararen gain-

behera gelditzen ari da gazteenen artean, eskolako irakaskuntzari esker. Egoera hau euskal pizkundearen seinale bezela har dezakegu.

Erabilera publikoa ahula da, onarpen juridikoaren faltaz. Eta zerbitzu publikoek jarraibide txarra emaiten die zerbitzu pribatuei. Hala ere sortzez euskaldun direnen proportzioa handia da, eta gero eta euskaldun berri gehiago bada. Gure hizkuntza ahuldu bada ere, oraino oinarri zabala badago hizkuntza-politika indartsu batentzat, euskararen ikaskuntza eta erabilera sustengatzeko. Gainera iritzi publikoa neurri horien alde agertzen da» (Eusko Jaurilaritza, 2003).

Baina ikus dezagun nola hizkuntzaren estatusaren aldetik dauden oztopo, traba eta zailtasunak ez diren erraz gainditzekoak.

4.2.1.1. LEGEZKO EGOERA

1992an Frantziak bere Konstituzioaren 2. artikulua aldatu zuen ondoko esaldi hau sartuz: «*La langue de la République est le français*»¹³, hots, Errepublikako hizkuntza frantsesa da. Konstituzioak 2.1 artikuluan berdintasun printzipioa aldarrikatzen du baina frantsesak ez beste hizkuntzek ez dute lege babesik, tolerantzia hutsa baizik ez dute oinarri.

Beste bi lege hauek ere babesten dute frantsesaren estatusa:

—*Loi n.º 75-1349 du 31 Décembre 1975, relative a l'emploi de la langue française*, hau da: 1975eko abenduaren 31ko 75-1349 Legea, frantsesaren erabilerari buruzkoa. Lege horrek frantsesaren derrigorrezko erabilera ezarri zuen harreman ekonomikoetan, irriti eta telebistako emankizunetan, lan-kontratuetan, leku eta zerbitzu publikoetan eta erakunde publikoekiko hitzarmenetan.

Hala ere, frantsesa erabili beharra sendotzeko —ingelesaren eraginaren aitzinean, batez ere—, Asanblada Nazionalak eta Senatuak 1994an ondoko lege hau jarri zuten indarrean:

—*Loi n.º 94-665 du 4 Août 1994, relative a l'emploi de la langue française*, hau da: 1994ko abuztuaren 4ko 94-665 Legea, frantsesaren erabilerari buruzkoa, *Toubon Legea* izenez ezagutzen dena.

Lege horiek frantsesaren nagusitasuna babesten dute. Toubon Legeak eremu guztietan, publikoan zein pribatuan, frantsesa erabiltzearen derrigortasuna ezartzen du. Hona hemen zenbait adibide:

«Article 3. Toute inscription ou annonce apposée ou faite sur la voie publique, dans un lieu ouvert au public ou dans un moyen de

¹³ La Constitution de la Cinquième République française-1958 (1948), 2. artikulua.

transport en commun et destinée à l'information du public doit être formulée en langue française.»

«Article 5. Quels qu'en soient l'objet et les formes, les contrats auxquels une personne morale de droit public ou une personne privée exécutant une mission de service public sont parties sont rédigés en langue française.»

Aipagarria da Toubon Legearen 21. artikulua dioena: lege horren xedapenak Frantziako hizkuntza erregionalei dagozkien legeria eta arautegiari kalte egin gabe aplikatuko direla ez baitoaz hizkuntza erregionalen erabileraren kontra.

«Article 21. Les dispositions de la présente loi s'appliquent sans préjudice de la législation et de la réglementation relatives aux langues régionales de France et ne s'opposent pas à leur usage.»

Baina, artikulua horrek ez du eraginkortasunik hizkuntza erregionalei buruzko araudirik ez baitago.

Frantziak hautatu duen integrazio errepublikarra «*oroz gainetik linguistikoa da*». Egun, Frantziar ez dago frantsesa ez beste hizkuntzazko jatorrizko hiztun elebakarrik eta hori xvi. mendean hasi zen xede politiko baten ondorioa da (Baxok, 2000, 18 orr.). Euskarak ez du inolako lege aintzatespenik ez eta haren hiztunek ezein hizkuntz eskubide bermaturik ere. Lurrean horietan euskal hiztunen eskubideen kontrako erasoak ez dira legez kontrakoak, ez baitoaz Frantziako legeek aitortutako inolako eskubideren kontra; baina gero ikusiko dugun bezala, gutxiengoaren oinarriko eskubideen nazioarteko estandar guztien aurka jotzen dute.

4.2.1.2. LEGEZKO BABESIK EZAREN ONDORIOAK

Hizkuntz eskubideen onarpenik ezak luzera dakarren ondorioa norbanakoen hizkuntz eskubideen urraketan kasu puntualak baino latzagoa da. Iparraldean euskarak mendetan estatus juridikorik ez izanak bizitza publikotik erabat baztertuta utzi du, hezkuntzan, administrazioan, hedabideetan eta abarretan euskararen presentzia ia hutsa izan dela. Bertako hizkuntza gero eta funtzio murriztagoetara mugatu zen, eremu pribatuetara, supazter ondoko senitarteko elkarriketetara, eta erabilgarritasun publikoa eta tresnatasun balioa galtzen zuen heinean familia bidezko transmisio naturala ere ez zegoen segurtaturik.

«Euskara ez da hizkuntza ofiziala eta mendetan zehar egoera diglosikoa izan den arren, egun duen balioa inoiz baino txikiagoa da, batetik, euskara hiztunak galtzen ari delako eta, bestetik, hizkuntzari

gizartean ospea eta indarra ematen dioten erabilera-eremuetatik at izateaz gain, orain, lehen ez bezala, ohikoak izan zaizkion erabilera-eremuetan ere, hots, familian, lagunartean eta gertuko komunitatean, alboratua gertatzen ari delako, oso azkar gainera» (Eusko Jaurlaritzza, 2003, 23 orr.).

Urte luzez jasandako egoera horren ondorioz, egun, Iparraldean euskararen egoera larria da: egun, duela hamar urte baino 15.000 euskal hiztun gutxiago dira eta, gauzak horrela, hizkuntz komunitatea gehiago urrituko da, hizkuntz komunitatearen zati handi bat adinduek osatua baita eta belaunaldi gazteek ez baitiote hizkuntzari eusten. Iparraldean 65 urte baino zaharragoen artean %35,5 dira euskaldun, baina 16 eta 24 urte bitarteko artean %12,2 baino ez (*Ibid.*, 25 orr.).

Egoera hain da latza ezen 2003ko irailaren 26an *Le journal du Pays Basque-Euskal Herriko kazeta* egunkariak honako leterburu honekin agertu baitzuen III. Inkesta Soziolinguistikoak neurtutako egoera: «*L'euskara agonise*», euskara hiltzorian. Ez da lehenbiziko aldia, ikerketa batek Iparraldeko euskararen egoera latzaren argi gorriak pizten dituen: 1996an Europako Batasunak sustaturiko *Eurosomaic* proiektuak, bai eta Stephen Wurmek UNESCOrentzat egindako *Desagertzeko arriskuan dauden munduko hizkuntzen Atlas*a lanaren bi argitalpenek ere, 1996koak eta 2001ekoak (Wurm, 2001), Frantziako Estatuan euskara bizirik irauteko ia aukerarik gabeko hizkuntza gisa jaso dute.

Errepublikako administrazioek euskarari inolako babesik eman ez izanaren egungo ondorioa, Iparraldean hizkuntza bera eta euskal hizkuntz komunitatearen biziraupen soziokulturala arriskuan egotea da. Euskal Herriko egoerari dagokiola berretsi ahal izan dugu, beraz, hizkuntz esku-bideen alorreko adituek azpimarratzen duten bezala, hizkuntz eta kultur eskubideak funtsezkoak direla gutxiengo batek giza talde berezitu gisa iraun eta birsortu ahal izateko (Phillipson *et al.*, 1994, 4 orr.). Hone-l a jaso du III. Inkesta Soziolinguistikoak:

«...lurralde horretan (*Iparraldean*) euskararen jarraipena belaunaldi gazteenen artean atzeraka doa: euskarazko hezkuntza-sistema ezarri ez izanaren eragin zuzena. Iparraldean 1991 eta 1996an egindako inkesten emaitzek argi asko frogatzen dute esaldi horrek dioena: "Une langue qu'on n'enseigne pas est une langue qu'on tue". Lurralde horretan gero eta guraso euskaldun gutxiago dago euskara familian bertan gerora dezakeena. Hori horrela, gurasoek finantzatutako euskal eskolak ez dira aski eskola-umeen masa kritiko bati euskararen jarraipena ziurtatzeko. Diruz lagundutako euskarazko eskolarik gabe, belaunaldi batetik bestera euskaldunen kopuruaren beherakada esponentziala besterik ez du ekarriko etorkizunak. Iparraldea itzulerarik gabeko egoerara doa horrela: ez da bermatuko ezta euskararen bizi-

raupena ere. Diru publikoz finantzaturako euskarazko irakaskuntza ezinbestekoa da euskararen jarraipenerako Iparraldean. Eskolatik eta Unibertsitatetik baztertzen den hizkuntzak ez du iraupenik.

Halaber, behar-beharrezkoa da herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko euskara ofizial egitea. Horixe da gainera herritar gehienek eskatzen dutena. Hizkuntzaren gainbehera ez da ekidin ezinezko fatalitatea. Argi eta garbi erakusten digute hori euskararen beste lurraldeetako jokabideak eta bilakaerak» (Eusko Jaurlaritz, 2003, 33-34 orr. Parentesia gurea da).

Gauzak horrela, euskarak behar-beharrezkoak ditu legezko babesa eta sustapen politikak, baina erabat bestelakoa da hizkuntz politikaren norabidea, euskararen desagertzea bultzatzera zuzendua.

Ondoren, egoera honek eguneroko bizitzan euskaldunei sortzen dizkien oztopoen zenbait adibide emango dugu:

- 1989an: elkarte baten onartze administratiboa ukatu zuten euskaraz idatzita zegoelako.
- 1990ean: Baionako Auzitegian bi akusaturi haien burua euskaraz defendatzea ukatu zieten.
- 1991n: hezkuntzako 3. mailako ikasleei ukatu egin zieten azterketak euskaraz egiteko eskaera.
- 1992an: Pariseko Stoller prokuradoreak Iparraldeko nahiz Hegoaldeko akusatuei euskararen erabilpena ukatu zien. Geroztik epaiketa gehienetan horrela gertatzen da.
- 1995ean: hezkuntzan euskaraz egitea onartua den azterketa barra geografia eta historiakoa da.
- 1998an: *Alfabetatze eta Euskalduntzeko Koordinakundea*-AEK erakundeak *Postimpact* izeneko bidalketa sistema urtetan erabili izan du eta horri esker gutun bakoitzeko 0,05 euro aurreztu izan du. Sistema hori informazio orokorra zabaltzeko edota propaganda egiteko erabil daiteke. 1998an *La Poste* enpresak euskarazko toponimoak idatzita zituzten eskutitzei ohiko ordainsaria aplikatzea deliberatu zuen, multzoen bidalketa sistemak zuen prezio abantaila ukatuz. Horretarako bi argudio nagusi erabili zituen: (1) Arrazoi teknikoak: Makinak frantsesez idatzitako toponimoak besterik ez dituzte identifikatzen, eta (2) Arrazoi politikoak: Frantziako Konstituzioaren arabera frantsesa da zerbitzu publikoetako hizkuntza. Lehena, *La Poste* enpresako sindikatu nagusiek ezetsi zuten 1999ko otsailaren 8an, izan ere, arazo tekniko hori gainditzea aski erraza da, baina inolako ahaleginik ez da egin diskriminazio hori gainditzeko. Bigarren arrazoiaren inguruko epairik ez da egon orain arte. Izan ere, erabaki hori, euskaldunekiko bereiz-

keria zela eta, auzitegietara eraman zuen AEK-k, baina 1999ko maiatzean Baionako auzitegiak baztertu egin zuen *La Postek* kasu horretan diskriminazio deliturik egin izana. Frantziako bide juridiko guziak agorturik, AEK-k Nazio Batuek Genevan duten Giza Eskubideen Aldeko Erakundera eraman du auzia eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren esku utzi du aferaren jarraipena.

Behatokiak Iparraldeko kasu oso adierazgarriak jaso eta aztertu ditu 2002an (2003a) eta 2003an (2004). Horiek sakonago azaltzea merezi du:

2002an: Justizia administrazioan euskara erabili ezina. Frantziako Estatu administrazioan ez dago euskara erabiltzerik prozedura juridiko zein penaletan eta euskaraz deklaratu nahi dutenei ez diete itzultzaile-rik onartzen. Aipagarria da Iparraldeko biztanleei euskaraz deklaratzeko eskubidea ukatzen dieten bitartean, Hegoaldeko biztanleei, zenbait prozeduratan, hizkuntza hori erabiltzea ahalbidetzen dietela eta Frantziako Administrazioa bera dela itzultzailea eramaten duena.

Euskaldunekiko erabat diskriminatzailea da ez baitiete aukerarik ematen euren burua euren hizkuntzaz defendatzeko. Euskara erabiltzeak eragindako ondorioei dagokienez bi adibide arras ezberdin ditugu: batetik, 2002ko azaroaren 7an Baionako auzitegi batean euskaraz deklaratzeko eskubidea aldarrikatzeagatik ondorio latzak pairatu zituzten bertaratu ziren herritarrek: poliziaren tratu txarrak, kolpeak edota gas negarreragileak. Bestetik, epaile batek hamasei aldiz biderkatu zuen auzi bateko parte zibilak eskatutako kalte ordainaren diru kopurua akusatuek euskaraz deklaratzeko eskubidea aldarrikatzeagatik. 2004ko apirilaren 4an epaile batek ez zien herritarrei euskaraz egiteko aukerarik eman eta epaiketa epaituek hitzik esan gabe burutu zuen.

2002an: *Conseil d'Étaten* erabakia euskarazko irakaskuntzaz. 2002ko abenduan Frantziako Estatu Kontseiluak bi erabaki hartu zituen eskola publikoetan murgiltze bidezko irakaskuntza elebiduna eskaintzea debekatu zutenak: (1) 2001eko irailaren 5eko 2001168 zirkularra, erregioetako hizkuntzak dauden tokietako eskola publikoetan murgiltze bidezko irakaskuntza martxan jartzea ahalbidetu zuena, baliogabetu egin zuen; eta (2) 2001eko uztailaren 31ko erabakia, irakaskuntza elebiduna martxan jartzeari bide eman ziona, bertan behera utzi zuen.

Bi erabaki horiek hartzeko Estatu Kontseiluak *Code de l'éducation*, Hezkuntza Kodea delakoaren irakurketa zurrunari eutsi zion eta murgiltze bidezko irakaskuntza aipatu kodeari kontrajartzen zitzaiola eta legez kanpokoa zela argudiatu zuen. Eskualdeko edo erregioetako hizkuntzen irakaskuntza baimentzen duen arren, irakasteko hizkuntza fran-

tsesa izan behar duela azpimarratu egiten du, justifikatutako salbuespenak izan ezik.

Baina, eskola atzerritarrak (eskola ingelesak edo alemaniarrek,...), hau da, atzerriko ikasleei haien hizkuntzaz hezkuntza emateko zabaldu diren eskolak aipatu artikulutik salbuetsita daude eta haur ingeles edo alemaniar horiek ama hizkuntza erabili ahal izango dute hezkuntza sisteman zehar.

Eskualdeko edo erregioetako hizkuntzak erabiltzeko azken aukera frantsesa bera ikasteko baliagarritasunari lotzen zaio. Hau da, beste hizkuntza bat erabili ahal izango da baldin eta frantsesa irakasteko egokia baldin bada:

«Les maîtres sont autorisés à recourir aux langues régionales dans les écoles primaires et maternelles chaque fois qu'ils peuvent en tirer profit pour leur enseignement, notamment pour l'étude de la langue française.»

Ikusi bezala, Estatu Kontseiluak indarrean dagoen legean oinarrituz, legeak euskara hezkuntza publikoan murgiltze bidez irakasteko eskaintzen zituen zirrikituak itxi egin ditu. Honetan ere, hartutako erabakiak Frantziako Errepublikan indarrean dagoen legeari eusteagatik hartu dituela agertu arren, garbi dago erabaki horiek nazioartean indarrean dagoen gomendio eta arauen kontra jotzen dutela bete-betean: 1987ko azaroaren 30ean Europako Parlamentuak emandako Ebazpen batek, estatu kideei erregioetako hizkuntzak dauden eremuetan irakaskuntza ofiziala hizkuntza horietan maila guztietan antolatzeko gomendioa luzatu zien, erregioetako hizkuntzazko irakaskuntza estatuko hizkuntzaz egiten denarekin parekatzeko asmoz. Hau da, eskualdeko hizkuntza irakaskuntzako hizkuntza izan dadila neurriak har zitzatela.

2002an: *Société Nationale des Chemins de Fer-SNCF* erakundearen jarrera euskara erabiltzeko eskakizunen aitzinean. Ipar Euskal Herriko tren geltoki guztietan zerbitzu guztiak frantsesez baizik ez dira ematen (ahozko informazioa, publizitatea, agiriak,...). 2000. urtetik, Ipar Euskal Herriko euskalgintzako zenbait gizarte erakundeek SNCFen Hizkuntz Antolaketa Eskema bere osotasunean gauza dadin hasi ziren aldarrikatzen. SNCF erakundeko arduradunekin bilerak egin bazituzten ere, erakunde horrek ez dio horietako bakar bati ere erreparatu. Sindikatuekin bilerak eginda, euskalgintzako gizarte erakundeek jakin zuten estatu mailako bidaietarako oharra ele bietan egotea zaila izanen zela, baina eskualde mailako trenen inguruko informazioa ele bietan egotea berriz, lorgarria. Gainera, 2002 urtetik aurrera eskualdeko trenen kudeaketa Eskualde Kontseiluaren esku, hots, Akitaniako Kontseiluaren esku, izanen zela jakin zuten.

2003ko martxoaren 16an 630 herritarrek, 20 bat elkarte, sindikatu eta erakunde politikorekin batera, gutun bat igorri zuten Baionako su-prefekturara euskararen erabilera bermatzeko gutxieneko neurriak har zitzatela eskatzeko. Beste hainbat ekimen aurrera eraman dituzte, baina SNCFeko zerbitzuetan zein geltokietan ez da inolako aldaketarik gertatu.

2003ko ekainaren 5ean, Eskualdeko Kontseiluko lehendakariorde eta eskualdeko garraioen arduradunak iragarri egin zuen urte horretako irailerako zer egiteko prest egongo ziren esango zutela. Horretaz gain, SNCF erakundearen arduradunei euren jarrera berriz azter zezaten eskatzeko konpromisoa hartu zuen. Hori ez ezik, Donibane Garazi eta Baiona arteko geltokietan toponimoak euskaraz idatziko zituztela ere ziurtatu zuen. Baina 2003ko irailaren 30ean, Louis Gallois SNCF erakundearen lehendakariak, Ipar Euskal Herriko geltoki handietan euskara erabiltzeko asmorik ez zutela adierazi zuen: aipatu geltokiak nazioarteko bezero anitzek erabiltzen baitituzte eta seinaleak, frantsesean ez beste hizkuntza batean ere jartzekotan, gaztelaniaz jarri beharko lirakeela.

2003an: Baionako Herriko Etxea. Baiona dugu Ipar Euskal Herriko biztanle gehien dituen hiria. Bertan biltzen dira Ipar Euskal Herriko administrazio publikorik garrantzitsuenak, bai eta zerbitzu publiko nagusiak ere (ospitaleak, unibertsitatea,...). Baionako udal administrazioak frantsesez baizik ez ditu ematen bere zerbitzuak, euskara ez herritarrekiko ahozko harremanetan, ez idatzietan, ez iragarki publikoetan, ez duela erabiltzen.

2003an, Baionako euskalgintzako zenbait gizarte erakundek hiriko bestetako afixetan, ahozko aurkezpenetan eta abarretan euskara erabiltzeko eskaera egin zioten auzapezari (alkateari), baina Baionako udalak ez zion eskabideari erreparatu eta hiriko bestetan ez zen euskara ezein modutan erabili ez eta hiriko euskaldun jendearen eskubideak ezein modutan kontuan hartu ere. Aipatzekoak dira Jean Grenet Baionako auzapezak hiriko kontseiluko eztabaida batean egindako adierazpenak euskara Herriko Etxean sustatzeko gaiari buruz:

«...pas scandaleux bilinguisme... dans manifestations typées comme sagardo eguna organisé au édifice d'ikastola...», «...esprit large... panneaux de signalisation en français et en basque... ceci s'arrête là... pas intention de faire de Bayonne une ville trilingue... dérive...», «...ne correspond pas à la nature de cette ville; ne pas oublier origine et histoire...» (Behatokia, 2004, 92 orr.).

Lapurdikio hiriburuko auzapezak udal administrazioan euskara erabiltzea herriaren izaeraren aurka doala uste omen badu ere, Ipar Euskal

Herriko beste zenbait herriko etxek engaiamenduen bideari ekin diote, eta euskara herriko etxeetako zerbitzuetan gehiago erabiltzea xede duten programak jarri dituzte abian.

Kasuak aztertuta, garbi ikus dezakegu hizkuntz eskubideen urraketa sistematikoen zantzuak ageri direla, hain zuzen ere, ezinezkoa baitzaio Ipar Euskal Herriko ezein herritarri epaiketa edo auzi batean bere burua euskaraz defendatzea, edo eskola publikoetan euskaraz ikastea, edo eremu publikoko enpresa batek edo tokiko administrazio batek bertako hizkuntza erabiltzen ez dutelako, herritarren eskaerei erreparatu gabe.

Kasuen larritasunari dagokionez, herritarrek Justiziaren aurrean tokiko hizkuntza erabili ezin izatea larria da, are gehiago, hizkuntza hori erabiltzea aldarrikatzeagatik bestelako ondorioak pairatu behar badiuzte: kalte ekonomikoak edota bortizkeria. Bestalde, aurrera begira oso larritzat jotzeko modukoa da Frantziako Estatuak eskola publikoetan erregioetako hizkuntzen irakaskuntza murgiltze bidez egiteari debekua jarri izana.

4.2.1.3. FRANTZIAREN JOKABIDEA EUROPAKO TESTUINGURUAN

Frantziak ez dio segitu egun Europan nagusi den bideari. Egun, Europan eskualdeko edo gutxiengoen hizkuntzak babesteko itunak eta protokoloak sinatzen diren bitartean, Frantziak oinarrizko hizkuntz eskubideak bermatzeko neurririk ere ez du hartu. Nazioartean gutxiengoen eskubideak babesteko garatu den legeriari dagokionez, Frantziako Errepublikak ez du guztiz bere egin. Izan ere, Nazio Batuen Erakundeko Eskubide Sozial Ekonomiko eta Kulturalen Batzordeak gutxiengoen eskubideei buruzko nazioarteko gutxienezko estandarrak betetzeko gomendioa egin zion 2001eko abenduan. Beraz, azaldutako hizkuntz eskubideen urraketa kasuek, oso garbiak eta larriak izanda ere, ez dute Frantziako Errepublikako legerik urratzen, baina nazioarteko estandar guztien kontra jotzen dute bete-betean:

- *Eskubide Zibil eta Politikoei Buruzko Nazioarteko Hitzarmena* (1966), Frantziak sinatu du baina 27. artikuluari, kultur gutxiengoen aipua egiten zuen horri, oharra egin dio esanez artikulua hori ez dela aplikagarria Frantziako Errepublikan ez baitago gutxiengo nazionalik.
- *Haurren Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa* (1989), Frantziak sinatu du baina 30. artikuluari, kultur gutxiengoen partaide diren haurren eskubideak aitatzten dituen horri, oharra egin zion Frantzian aplikagarria ez dela defendatuz, Errepublikan gutxiengo nazionalik ez dagoelako.

- *Erregioetako edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Ituna* (1992). Frantziak 1999ko maiatzaren 7an sinatu zuen Ituna baina ez du oraindik berretsi. Estatu sinatzaileek ez dute konpromisorik hartzen. Konpromisoak hartzeko estatuek Ituna berretsi beharra dute. Beraz, berretsi bitartean, Frantziak ez du konpromiso zehatzik hartuko.
- *Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoa* (1995), Frantziak ez du sinatu.

Frantziak bere baitako gutxiengoan eskubide kulturalen inguruan duen jokabideak nazioarteko gaitzespen asko bildu ditu, erakunde ofizialetatik ez ezik gizarte erakundeetatik ere. Horiatarik aipagarrienak:

- 1999an Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubide, Diskriminazio eta Gutxiengoan Babeserako Azpibatzerdeak egindako lan saioetan, *International League for the Rights and Liberation of Peoples* gobernuz kanpoko erakundeak, Estatu frantsesaren jarrera salatu zuen oinarritzko hizkuntz eta kultur eskubideak urratzeagatik.
 - 2001eko urtarrilean, Europako Kontseiluaren Asanblada Parlamentarioak 1492 Gomendioa eman zuen.
 - 2001eko abenduan, Nazio Batuen Erakundearen Eskubide Sozial Ekonomiko eta Kulturalen Batzordeak, Eskubide Sozial, Ekonomiko eta Kulturalen Nazioarteko Ituna Frantzian inplementazioari buruz egindako txostenean honako gomendio hau egin zion Frantziako Errepublikari: gutxiengoan eskubideei dagokienez nazioarteko gutxienezko estandarrak betetzeko, eta hortaz, Erregioetako edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Ituna eta Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoa berretsi eta sinatzeko, hurrenez hurren, eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenaren 27. artikuluari bere garaian eginiko oharra kentzea, gutxiengoan partaide diren herritar frantziarrei eskubide kulturalak onartuz. Halaberean, erregioetako edo gutxiengoan hizkuntzak eta kulturak bizirauteko eginahalak berretu ditzala gomendatu zion, eta neurriak har ditzala hizkuntza horiek irakatsi eta hizkuntzak horiek irakaskuntzako hizkuntza izan daitezela.
- Eskubide Sozial, Ekonomiko eta Kultureko Hitzarmenaren aditu batzordeak Frantziari giza eskubideen alorrean nazioarteko gutxienezko estandarrak bete ditzala egindako gomendioak bere garrantzia du. Kontuan izan behar da Itun horrek, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunarekin eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalarekin batera, giza eskubideen alorrean nazioartean dauden deklarazio nagusien hirukotea osatzen duela, Giza Eskubideen Nazioarteko Karta deitua, azken batean, giza eskubi-

deen mundu mailako arauak jaso eta gutxienezko estandarrak zein diren zehazten dituen. Finean, Batzordeak honako hau adierazi zuen: Frantziak hizkuntz gutxiengo inguruko nazioarteko gutxienezkoak ez dituela betetzen. Batzordearen arabera, Frantziako Errepublikak hiritarren berdintasuna ustez legez bermatzeak eta herritar oro berdinak direla adierazteak ez duela esan nahi «*gutxiengoek izateko eskubiderik ez dutenik*».

Batzorde horretatik ez ezik, Europako Kontseilutik, EGHEIren Jarrailpen Batzordeko adituengandik eta nazioarteko hainbat gobernuz kanpoko erakundeetatik ere halako gaitzespen eta adierazpenak iritsi zaizkio Frantziari.

EGHEIri dagokionez, Ituna Europako nazioarteko hitzarmena da, Europako erregioetako eta gutxiengo hizkuntzak babestu eta sustatzea xede duena, Europako ondasun kulturalaren zati mehatxatua diren aldetik. Europako Batzordeak 1992an onartu zuen Ituna eta orduan izan ziren Europako estatuen lehen atxikimenduak.

1992an berean Frantziak bere konstituzioaren 2. artikulua aldatu zuen ondoko esaldi hau sartuz: «*La langue de la République est le français*». Dirudenez, Konstituzio aldaketa hori egin zuten Ituna konstituzioaren kontrakoa deklaratu ahal izateko. Frantziak 1999ko maiatzaren 7an sinatu zuen Ituna baina ez du oraindik berretsi. Oroitu beharreako da sinatze hutsarekin Frantziak ez zuela konpromisorik hartu.

1999ko ekainaren 15ean, Frantziako Konstituzio Batzordeak Ituna ez zela Errepublikako Konstituzioarekin adosgarria ebatsi zuen. Frantziak EGHEI berretsi nahi izanez gero, Konstituzioa aldatu beharra zegoela ezarri zuen.

2002ko apirilean, Europako Kontseiluak eta Robert Schuman Unibertsitateak Strasbourg-en antolatutako *La Charte européenne des langues régionales ou minoritaires et la France* mintzaldi sortan, Ituna eta Frantziaren oinarri konstituzionalak izan ziren aztergai eta hortik atera ziren ondorio nagusiak hona ekartzea merezi du Frantziaren eztabaida intelektuala eta juridikoa zertan diren ikusteko:

— Jean-Marie Woehrlingek, Alsace-Moselle-eko Zuzenbide Institutuko presidentek, honako hau defendatu zuen: Egoera dagoen bezala, oraindik Frantziak Ituna berretsi ez duela eta Konstituzioa aldatzearen inguruan iritzia eta jarrera kontrajarrita daudela, bada, dena den, oraingo markoa aldatu gabe Estatu frantziarraren barneko erregioetako hizkuntzen alde egin daitekeenik:

- Tokiko botereek bertako hizkuntzen aldeko ekimenak aurrera eramanez ditzakete. Hizkuntza politika eratu eta gara dezakete

(hezkuntzan, hedabideetan, ...). Eta hizkuntzen aldeko programak orain, gauden egoeran egonda ere, maila nazionalan egin daitezke.

- Erregioetako hizkuntzen aintzatespena, presentzia publikoa, legitimazioa, prestigioa lantzea beharrezkoa da.
- Erregioetako hizkuntzen eskaintza publikoa berretzea edo ugaltzea beharrezkoa da: hezkuntzan, ekitaldi kulturaletan,...
- Marko juridiko edo instituzionalan aldaketa batzuk ere beharrezkoak dira. Ziurtasun eza handia da maila juridikoan EGHEI ez berrestea gomendatzeko Konstituzio Batzordeak argudiatu-takoetan ikusi bezala. *Droit colective, égalité, liberté* kontzeptuak erabili izan dira eta agerian gelditu da zein beharrezkoa den horien inguruan argitze juridikoa egitea. Jakin beharra baitago noraino joan daitekeen, Konstituzio Batzordeak zer ez duen onartuko eta non jarriko duen muga erregioetako hizkuntzen aldeko lanean.

—Florence Benoît-Rohmer-ek, Strasbourgeko Robert Schuman Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakasleak, defendatu zuenez: oinarriko kontzeptuen inguruko argitze juridikoa beharrezkoa izateaz gainera, konstituzioaren aldaketa ere beharrezkoa da, erregioetako hizkuntzen ondasunaren babesaren alorrean konstituzioaren edukiari norabide berria emateko. Errepublikako kontzeptuen interpretazioa ezberdina egitea da beharrezkoa. Agerian gelditu da egoera juridikoa ez dela egokia, Errepublikako hizkuntz ondarea ez baitu bermatzen. Errepublikako kontzeptuak demokrazia modernoari egokitu behar zaizkio, herritarrek beraien hizkuntza berezkoekiko dituzten nahiei (*aspirations*) erantzun hal izateko. Hiritartasunari eskubide kulturalen dimentsio garrantzitsua eta berria lotu behar zaiola proposatu zuen.

2002ko azaroan, Frantziako Asanblada Nazionalak Konstituzioko 2. artikuluari emendakin hau eranstea proposatu zuen (letra etzanaz): «...la langue de la République est le Français... *dans le respect et la défense des langues régionales, qui font partie de son patrimoine*»¹⁴, baina ez zuen onartu.

Bukatzeko, azaldutakoa kontuan hartuta, Frantziako Errepublikak bere baitan diren hizkuntz gutxiengoaren eskubideak aitortu eta haien

¹⁴ «...frantsesa da Errepublikako hizkuntza... *erregioetako hizkuntzak errespetatuz eta haien alde eginez, bere ondarekoak baititu...*» (Richard Y. Bourhis. Eusko Jaurilaritza, 2003, 4 orr.).

legezko babeserako nazioarteko estandarrak onartzea guztiz beharrezkoa da eta, herritarren hizkuntz eskubideak eta hizkuntz komunitateen beraien biziraupen kulturala jokoan direla kontuan hartuta, onarpen horrek berebiziko premia du.

4.2.2. *Hego Euskal Herrian*

Hego Euskal Herria, Espainiako Estatuko iparraldean dauden lau euskal lurraldeak (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa), bi egitura administratibo nagusitan antolatuta daude, bi autonomia erkidegotan: Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea.

Egun, Espainiako Estatuan indarrean dagoen hizkuntz ereduaren printzipio nagusiak 1978ko Espainiako Konstituzioan ezarrita daude. Konstituzioaren 3.1 artikulua gaztelania Estatuko hizkuntza ofiziala dela ezarri zuen, eta horrek gaztelania, estatuan diren beste hizkuntza ofizialen aldean, bereizten du, bera baita autonomia erkidego guztietan eta, beraz, Estatuaren lurralde osoan, ofiziala den hizkuntza bakarra.

Bestalde, 3.1 artikulua, gaztelania Estatuko hizkuntza ofiziala dela esanda, hiritar guztiek hura ezagutu beharra eta erabiltzeko eskubidea dutela dio. Estatuko beste hizkuntzak, horien artean euskara, zein bere autonomia erkidegoan ofizialak izango direla badio ere (3.2 artikuluan) eta, teoriarik, biek maila bera badute ere, hizkuntza horien jakin beharra ez da inongo testutan ezartzen. Hori horrela, esatea legoke gaztelania eta Estatuko beste hizkuntzen artean, oinarritzko legezko asimetria dagoela.

Iñaki Agirreazkuenagak berriz, gaztelania ezagutu behararen aipamenak gaztelaniaren ofizialtasunari ezer ez diola gaineratzen defendatu du. Gaztelania jakiteko agindu konstituzionala derrigorrezko hezkuntzaren bidez betetzen da, baina beste hizkuntzei aitortutako ofizialtasunetik ere betebeharrak bera ondorioztatzen da, Auzitegi Konstituzionalak argitu bezala:

«...recuérdese que idéntica previsión se deriva de la declaración de oficialidad, dado que el Estado, en palabras del Tribunal Constitucional, tiene “el deber constitucional” de garantizar la enseñanza eficaz de las lenguas oficiales en la enseñanza obligatoria (...).

En resumen, la cláusula constitucional que impone el deber de conocimiento del castellano, nada específico incorpora a los efectos jurídicos de la oficialidad de las lenguas...» (Agirreazkuenaga, 2003, 87-88 or.).

Euskal Herriko Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko katedradunaren iritziz, Konstituzioak dituen hizkuntz oinarri nagusiak ofizialta-

sun eta hizkuntzagatik berezia ez izatearena dira. Gaztelania ezagutu beharra eta komunitate baten hizkuntza berekia izatea oinarri osagarri gisa baizik ez ditu hartzen (*Ibid.*, 85 orr.).

1978ko Konstituzioak indarra hartuta, Estatuko autonomia erkidegoak hasi ziren euren estatutuak onesten. Euskal Autonomia Erkidegoak (1979, 6. art.) eta Nafarroakoak (1982, 9. art.) gainera, lau autonomia estatutu gehiagok arautu zuten euren hizkuntzen estatus ofiziala: Kataluniakoak (1979, 3. art.), Galiziakoak (1981, 5. art.), Valentziakoak (1982, 7. art.) eta Balear Uharteetakoak (1983, 3. art.).

Aipatu direnen artean, Nafarroa da bertako hizkuntzari ofizialtasuna bere lurralde osoan aitortu ez dion erkidego bakarra.

Asturiasko Estatutuak (1981, 4. art.) berriz, asturiera babestua eta errespetatua izanen dela eta eskoletan irakatsiko dela ezarri arren, ez dio bertako hizkuntzari ofizialtasuna aintzatetsi.

Dena den, oroitu beharrekoa da Estatu espainiarrean egon badaudela beste zenbait autonomia erkidego euren lurraldeetan historikoki mintzatu diren hizkuntzen estatusa arautu ez dutenak, adibidez: Gaztela-Leon, Aragoi, Ceuta eta Melilla.

4.2.2.1. ESPAINIAKO ESTATU ADMINISTRAZIOA

Auzitegi Konstituzionalaren arabera, «*es oficial una lengua, independiente de su realidad y peso como fenómeno social, cuando es reconocida por los poderes públicos como medio normal de comunicación en y entre ellos y en su relación con los sujetos privados con plena validez y efectos jurídicos*»¹⁵. Horren ondorioz, 1978ko Konstituzioak ezarritako sistema juridikoaren arabera eta arau konstituzionalak ematen duen ahalmenaren arabera, Autonomi Erkidegoetako botere publikoek hizkuntza bat ofizial izendatzen badute, hizkuntza horrek subjektu pribatu eta botere publikoen arteko komunikazio bide arrunta izan behar du.

Gainera, Auzitegi Konstituzionalaren arabera, hizkuntzaren koofizialtasun araubidearen jarduteko eremua lurralde zehatza da eta, beraz, Autonomia Erkidego horretan kokatutako erakunde guztiak, hau da, Estatuko zein Erkidegoko botere publikoak araudi horren eraginpean daude. Horregatik, botere publiko guztiak koofizialtasun bikoitz horri egokitu beharra dute eta beharrezkoak diren neurri guztiak hartu behar dituzte ezarritakoa betetzeko.

¹⁵ Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 Epaia, ekainaren 26koa. 1986ko uztailaren 4ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (BOE).

«La instauración por el art. 3.2. de la Constitución de la cooficialidad de las respectivas lenguas en determinadas Comunidades Autónomas tiene consecuencia para todos los poderes públicos de dichas comunidades, y en primer término el derecho de los ciudadanos a usar cualquiera de las dos lenguas ante cualquier Administración en la comunidad respectiva con plena eficacia jurídica. Puede ésta, pues enunciar este derecho, y junto a él el siguiente deber de todos los poderes públicos (estatales, autonómicos y locales) radicados en la Comunidad de adaptarse a la situación de bilingüismo constitucionalmente prevista y estatutariamente establecida» (Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 Epaia, ekainaren 26koa).

Beraz, autonomia erkidegoei dagokie hizkuntzen ofizialtasunari buruzko eskumena edo Auzitegi Konstituzionalaren hizkeran esaten den legez, hizkuntzen *ofizialtasunaren berezko edukia*. Hau da, erkidegoei dagokie euskararen ofizialtasunaren ondorio juridikoen legeria bai eta hizkuntzaren normalizazio helburuak lortzeko behar diren plangintza neurriak ere erabakitzea. Baina, ofizialtasunaren berezko eragina finkatuta, gai horren eskumena duten erakundeei dagokie gaztelania ez den beste hizkuntza ofizialaren eragingarritasun eta balio osoa antolatzea eta gauzatzea.

Horri dagokionez, Estatuak 4/199 Legea, urtarrilaren 13koa, onartu zuen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, aldatzen duena. Lege horretan herritarrek erkidegoko hizkuntza koofiziala erabiltzeko eskubidea dutela adierazi eta kasu horietarako prozedura erkidea finkatzen da.

Arau hori eta erakundeen seinalizazio eta irudiari buruzko besteren batez gain (esate baterako, 1465/1999 Errege Dekretua, irailaren 17koa, Estatuko administrazio orokorreko erakunde irudiaren irizpideak ezarri eta agirien ekoizpena eta inprimatzen den materiala arautzen dituen), Estatuak ez omen du ofizialtasunaren berezko edukitik sortutako ondorioak bermatzeko beste araurik onetsi.

Aurrera jarraitu baino lehen, ikus dezagun zer dioten aipatu 1465/1999 Errege Dekretuak, gero Estatuko administrazioaren eguneroko jardunbide administratiboan aldean jarri ahal izateko. Honela dio III. Kapituluan, hizkuntza ofizialak erabiltzeari buruz:

«Art. 5. Utilización de lenguas co-oficiales en material impreso y modelos normalizados.

1. Los impresos normalizados que se pongan a disposición de los ciudadanos en las dependencias situadas en el ámbito territorial de una Comunidad Autónoma con lengua co-oficial serán bilingües en

castellano y en la lengua co-oficial, de acuerdo con los siguientes criterios:

a) Los impresos deberán expresar todos sus contenidos y epígrafes en las dos lenguas por líneas o por bloques de texto diferenciados, dejando espacios únicos para su cumplimentación por el ciudadano en la lengua por la que haya optado.

b) En aquellos impresos para los que, por razón de su extensión o complejidad, así se determine, se pondrán a disposición de los ciudadanos dos modelos alternativos redactados uno de ellos en castellano y el otro en la lengua co-oficial. En tal caso, en ambos modelos, figurará destacada la advertencia de que existen impresos redactados en la otra lengua a disposición del ciudadano.

2. Cuando el material impreso de los órganos y unidades que tengan su sede en el ámbito territorial de una Comunidad Autónoma con lengua co-oficial vaya a ser utilizado para comunicaciones dentro del ámbito territorial autonómico, los datos y denominaciones correspondientes al membrete y a la identificación del órgano u Organismo autónomo figurarán, con carácter general, en castellano y en la correspondiente lengua co-oficial.

Cuando el material esté destinado a su utilización en comunicaciones dirigidas fuera del ámbito territorial autonómico los mencionados datos y denominaciones podrán figurar únicamente en castellano.

Art. 6. Utilización de lenguas co-oficiales en señalizaciones y carteles.

Serán bilingües, redactándose en castellano y en la lengua co-oficial correspondiente, las señalizaciones exteriores de identificación de las dependencias administrativas, así como los contenidos más relevantes de los carteles de carácter informativo o publicitario que se elaboren para su ubicación en el ámbito territorial de una Comunidad Autónoma con lengua co-oficial. El Manual de Imagen Institucional que se apruebe en aplicación de este Real Decreto determinará los supuestos y los formatos de las señalizaciones de identificación y carteles a que se refiere el presente artículo».

Aski zehatza da beraz, material idatzirako elebitasun irizpidea. Arestian genioen bezala, aipatutakoez gain, ez da beste legerik ezagutzen ofizialtasunaren berezko edukitik sortutako ondorioak bermatzera zuzendurik. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan nola Nafarroan ezarrita dauden Estatuko administrazioek ez dute oraindik ezein planik abian jarri herritarren hizkuntz eskubideak bermatzearen. Areago ere, Espainiak EGHEren aplikazioari buruz egindako txostena, 2002ko irailean Europako Kontseiluari igorria¹⁶, aski adierazgarria da ikusteko Estatu espainiarrak

¹⁶ Ikus 10. oin oharra.

bere betekizun horrekiko duen ideia. Txosten horretan Estatuak defendatzen dituen tesiak dira berak ez duela neurri berezirik hartu behar EGHEI berrestean hartutako konpromisoak betetzeko eta, azken finean, gutxiengoaren hizkuntzekiko konpromiso horiek betetzea autonomia erkidegoen esku dagoela.

2003an Hego Euskal Herriko gizarte erakunde ezberdinek euren txosten, informazio eta lekukotasunak helarazi zizkieten Europako Kontseiluari, Espainiak EGHEI aplikatzearen inguruan zabaldua zegoen balorazio prozesurako informazio gisa. Hizkuntz Eskubideen Behatokiak Europako Kontseiluari Hego Euskal Herri osoko egoeraren gaineko txostena aurkeztu zion: *An application of the Spanish state's evaluation of the European Charter for Regional or Minority Languages to Euskara, the Basque language* (2003e. Euskaraz ere eskura daiteke). Txosten horretan EGHEIk bereizten dituen arlo guztietako (hezkuntza, justizia, administrazio agintaritza eta zerbitzu publikoak, hedabideak, kultura jarduera eta zerbitzuak, bizitza ekonomikoa eta soziala eta mugaz gaindiko harremanak arloetako) anitz egoera azaldu eta datuak agertzen dira Estatuak hartutako konpromisoak betetzen ez dituen frogagarri. Esparru zehatzen gainean ere txostenak aurkeztu izan dira, adibidez, Bizkaiko Abokatuen Elkargoak Justizia Administrazioaren gainean idatzitakoa¹⁷.

Estatuko administrazioek Euskal Autonomia Erkidegoko nola Nafarroako herritar euskaldunen hizkuntz eskubideak nabarmenki urratzen zituela ikusita, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak Espainiako Estatuaren inguruko txosten berezitua prestatu zuen: *Espainiako Estatuko Administrazio Orokorra eta euskaldunon hizkuntz eskubideak* (Behatokia, 2003c). Txosten horretan herritarren kexak biltzen dira eta horien gainean egindako azterketak garbi uzten du ezin dela ahozko edo idatzizko harremanik izan Estatuak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan dituen botere zentralekin, eta ez direla koofizialtasunaren ondorioak betetzen.

Behatokiaren datuen arabera, Hegoaldeko herrialde guzietatik egin dira kexak eta Estatuaren eskuduntza diren ia arlo eta erakunde guztietara zuzendu dira. Kexarik gehien-gehienek indarrean dagoen legea urratzen dute. Kexen arrazoi gisa euskararen erabilera idatzia agertzen da nagusiki, herritarrei ez zaielako informazioa euskaraz bidali edo herritarrek euskaraz idatzitako dokumentuak aurkeztu eta Estatuko administrazioak ez dizkielako onartu. Alor honetan hizkuntz eskubideen urraketak sistematikoen zantzuak dagertza.

¹⁷ 2004ko apirilaren 3an erabili.com webgunetik hartuta: «Justizia Administrazioa salaketapean», <http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1080946323>

Larritasunari dagokionez, herritarrek tokiko hizkuntza ofizial batean aurkeztutako dokumentuak administrazio batek ez onartzea, edo euskaraz hitz eginda zerbitzurik jaso ezin izatea eta gainera, funtzionarioaren aldetik erantzun ez ona hartzea, edo atxilotua izan eta euskaraz deklaratzeko aukerarik ez izatea itzultzailerik ez dagoelako. Horiek dira larritasun berezia duten kasuak, herritarrei ez baitzaie zerbitzua ematen, tramite gehiago egitera edo berriz joatera behartzen baitituzte,... Kasu guztiak herritarrek Behatokiari helarazitakoak dira eta behar bezala frogatu eta dokumentatuta daude.

Behatokiak kexa ugari jaso du, Administrazio Orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan dituen organoek sortutako inprimakiei buruz eta herrialde horietan bizi diren herritarrei zuzendutako agiriei buruz xedatutakoa ez duelako bete. Behin kexak hartuta, Behatokiak herritarren kexen jakinarazpenak helarazi zizkien administrazioei eta, hori eginda, Estatuko administrazio horien erantzun batzuk ere jaso zituen Behatokiak. Jasotako erantzunek honelako argudioak eman zituzten gaztelania hutsa erabiltzea nolabait justifikatzeko: agiri horiek Madriletik bidali zituztela, edo Estatu osoko herritarrei zuzenduta zeudela, edo gaztelania dela Estatuko hizkuntza ofiziala, Estatu-ko herritar guztiak jakin behar dutena, edo Estatu osoko herritarrei bidaltzen zaizkien komunikazioetan ez dagoela hizkuntza koofizialak erabili beharrik.

Esate baterako, Barne Ministerioako Trafiko sailaren zuzendari nagusiak honela erantzun zuen 2003ko otsailaren 13an, administrazio horrek gaztelania hutsez bidalitako agiri bati buruz Behatokian jasotako kexa bat jakinarazi zitzaionean: «*El referido envío se hace desde estos Servicios Centrales, sitios en Madrid, a los domicilios que constan en los permisos de conducción, razón por la cual se hace exclusivamente en castellano, que es la lengua oficial del Estado que todos los españoles tienen el deber de conocer*» (Behatokia, 2003c).

Eta Gipuzkoako Probintziako Trafikoko Buruak honela erantzun zuen 2003ko urtarrilaren 16ko gutunean, Behatokitik antzerako jakinarazpena jasota: «*...como parece se trataba de una carta, lógicamente no puedo escribirla más que en el idioma que domino, que por otra parte, de acuerdo con el artículo 3.1 de la Constitución Española, es la lengua oficial del Estado y que todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla*» (hizki beltza jatorrizkoari dagokio) (*Ibid.*).

Osasun eta Kontsumo Ministerioak ere honela erantzun zuen Behatokian jasotako kexa baten gainean: «*...la obligatoriedad de la lengua cooficial en vallas publicitarias de una campaña sería preceptiva, en base al Real Decreto 1465/1999 (Capítulo III, artículo 6), puesto en rela-*

ción con el Estatuto de Autonomía del País Vasco, Ley de Amejoramiento y principio de cooficialidad de las lenguas en determinadas Comunidades Autónomas, solamente si la campaña tuviera como ámbito de desarrollo, únicamente la Comunidad Autónoma o un territorio con lengua cooficial» (Ibid.).

Estatistika Institutu Nazionalak (INEk) gaztelania hutsez bidaltzen ditu sistematikoki derrigorrez bete beharreko inkestak eta dokumentazio guztia. Behatokia jasotako kexak dagozkion organoari jakinarazi dizkionean, erakunde horrek irailaren 17ko 1465/1999 Errege Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoa aipatu du eta INEk honela erantzun du Errege Dekretu horren inguruan: «*No afecta, por tanto, a las encuestas cuya recogida es realizada directamente por la Subdirección de Recogida de Datos, ya que en ningún caso, dichas encuestas se circunscriben al País Vasco, sino que su ámbito abarca la totalidad de España. Por ese motivo, entendemos que los impresos de los cuestionarios correspondientes pueden remitirse inicialmente exclusivamente en castellano*» (Ibid.).

Arrazoi ekonomikoak ere eman izan dira araua bete ez izana eta herritarrek informazio publikoa euskaraz jasotzeko duten eskubidea errespetatu ez izana justifikatzeko. Adibidez, Gizarte Segurantzako Altxortegi Nagusiko Bizkaiko Probintzia Zuzendaritzak honela erantzun zion herritar batek administrazio horrek Euskal Autonomia Erkidegoko egunkari batean iragarki publikoak gaztelania hutsean jartzeagatik egin zuen kexari: «*(...) emprenderemos una reflexión sobre el anuncio en dos lenguas, a pesar de que esa decisión repercutirá en las cuotas de los contribuyentes a la Seguridad Social, ya que, de acuerdo a la legislación vigente, el coste del anuncio irá a cargo de "los costes" del expediente*» (Ibid.).

Aipatu adibide guztiek aski garbi utzi duten bezala, herritar euskaldunek Estatuko administrazioarekin euskaraz egiteko duten aukerak urriak dira oso. III. Inkesta Soziolinguistikoak euskararen erabilera eremu publikoetan nolakoa den erreparaturik honela dio: «*(euskararen erabilerak) behera egiten du izugarri Estatuko administrazio-zerbitzuetan, hizkuntza-normalizatorako politikaren zulo beltzetakoa den horretan*» (Eusko Jaurlaritza, 2003, 18 orr. Parentesia gurea da).

EGHEI berrestean Estatuak hartutako konpromisoerik erreparatzen badiegu, zera ikusiko dugu, konpromisoak zehatzak direla: esate baterako, administrazioko agintaritza eta zerbitzu publikoei buruzko 10. artikulua eta, batez ere, Estatuko administrazioko agintaritza aipatzen denean, 1. paragrafoan:

«a i) velar por que dichas autoridades administrativas empleen las lenguas regionales o minoritarias.

b) poner a disposición de la población formularios y textos administrativos de uso frecuente en las lenguas regionales o minoritarias, o en versiones bilingües.»

Eta ekonomia eta gizarte arloko jardueri dagokienez, 13. artikuluan Estatuak honako konpromisoa hartu du:

«1.c) oponerse a las prácticas encaminadas a desalentar el empleo de lenguas regionales o minoritarias dentro de las actividades económicas y sociales.»

Erregistroko inskripzioei dagokienez, Merkataritzako Erregistroaren Araudiaren uztailaren 19ko 1784/1996 Errege Dekretuaren arabera, idazpenak gaztelaniaz idatziko dira. Hipoteka Erregelamendua, 1947ko otsailaren 14ko Dekretuaren 37. artikuluekin bat etorriz, agiri hauek «*extendidos en latín y dialectos de España o en letra antigua, o que sean ininteligibles para el Registrador, se presentarán acompañados de su traducción o copia suficiente*». Ez dago inskripzioak hizkuntza koofizialetan egiteko aukerarik eta hori berraztertu behar litzateke EGHEI berrestean Estatuak hartutako konpromisoek egokitu ahal izateko, batez ere administrazio agintaritzeta eta zerbitzu publikoei buruzko 10. artikuluari dagokionez.

Informazio orokorraren ondoren, hurrengo ataletan ikus ditzagun xehekiago Estatuko Administrazioako langileen hizkuntza gaitasuna eta Justizia Administrazioaren egoera.

Funtzionario eta langile publikoen hizkuntza prestakuntza eta gaitasuna

Estatuko funtzio publikoan sartzeko arauak eta Erkidegoko hizkuntza berezkoa jakiteari buruzkoak Administrazio Publikoaren Ministerioaren 1990eko uztailaren 20ko Aginduan¹⁸ bildu dira. Agindu horrek zera dio herritarrek zerbitzu publikoa hautatu hizkuntza ofizialean jasotzeko duten eskubidearen inguruan: «*la Administración del estado precisa adoptar medidas para hacer efectivo este derecho en sus servicios periféricos situados en territorios de las ciudades Comunitades Autónomas*», eta bi jardunbide ezartzen ditu lanpostuak betetzeko deialdietarako:

1. Erkidegoko hizkuntza berezkoa jakitea betekizuna izatea dago-kion deialdian parte hartzeko. Betekizun hori, besteen artean,

¹⁸ Orden de 20 de julio de 1990, que regula las normas para la provisión de determinados puestos de trabajo en la Administración Periférica del Estado, en relación con el conocimiento de las lenguas oficiales propias de las Comunidades Autónomas (BOE, 176 zkia., 1990).

dagokien lanpostuen zerrendari erantsiko zaio. Hori baino lehen, Gobernu Ordezkaritzek aginduta, ministerioetako sailek txostenak egingo dituzte.

2. Erkidegoko hizkuntza berezkoa jakitea meritutzat baloratzea lanpostu batzuk betetzeko. Lanpostuak honako hauek izango dira: jendearen aurrekoak, agiriak jaso eta erregistratzekoak, jendearekin nolabaiteko harremana izatea eskatzen duten kudeaketa jarduerak eginkizun dituztenak eta, azkenik, hizkuntza jakitea garrantzitsua zaienak.

Laburbilduz, aipatutako arauak zera agintzen du: lanpostuek ezauzgarri horiek badituzte eta ez bada Erkidegoko berezko hizkuntza koofiziala jakin beharra derrigortzen, meritutzat bederen, baloratu beharra dago.

Araudi hori argia da oso bere aginduetan eta haren aplikazioak ez luke arazorik sortu behar. Baina ez da horrela. Arauak dio Gobernu Ordezkaritzek urteko txostena egin behar dutela eta txosten horretan zehaztu behar dutela zein lanpostutan jakin behar den euskara edo, behintzat, zeinetan meritutzat baloratu behar den. Baina kontua da Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Gobernu Ordezkaritzek ez dutela txostenik egiten.

Arau hori sistematikoki urratzen da. Nafarroan egindako deialdietan ez da euskara jakitea baloratzen Nafarroako lanpostuak betetzeko, ez Administrazioan sartzeko deialdi irekietan, ez honez gero funtzionarioak direnentzat egiten diren lehiaketetan.

Behatokian jasotako kexa bat da horren frogagarria. Langile Abertzaleen Batzordea-LAB sindikatuak helegitea tarteratu zuen Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren deialdi publiko baten kontra. Deialdia Donezteben (Nafarroa) dagoen Prestazioen Bulegoko zuzendari-atalburu lanpostua betetzeko zen eta euskara jakitea ez zen meritutzat ere baloratu (Barcos, 2003). Auzitegi Nazionalako Administrazioarekiko Auzietako Salak, 2002ko urriaren 2an, aldeko epaia eman zion LABek tarteratutako apelazio helegiteari eta deialdia baliogabe utzi zuen, honela aginduta: «...*que se modifique* (deialdia), *incluyendo como mérito específico, el conocimiento de la lengua cooficial de la Comunidad Autónoma*»¹⁹. Beraz, Estatuko administrazio horrek ez zuen Erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala jakitea meritutzat ere kontuan hartu. Epaia horren atzetik antzeko beste bat etorri zen, 3. Epaitegi Zentralak emana eta Donezteben Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren deialdi bat baliogabe utzi zuena (Behatokia, 2003c).

¹⁹ Auzitegi Nazionala. Administrazioarekiko Auzietako Sala. Laugarren sekzioa. Apelazio zkia.: 04/126/2002. Parentesia gurea da.

Administrazio orokor eta periferikoko funtzionario eta langileen euskararen hizkuntz gaitasunari dagokionez, Behatokiak hainbat keza jaso ditu ondoko zio hau dutenak: Estatuko administrazioko langileek ez dietela arreta egokia egiten administrazio horrekin euskaraz jardun nahi duten herritarrei.

2002ko abenduaren 16an, Espainiako Gobernuak informazio hau eman zuen *Senadores Nacionalistas Vascos* Talde Parlamentarioko Ricardo Gatzagaetxebarria Bastida senatariak egindako galderei erantzutean (BOCG, 2002): Estatuko Administrazioak 1.405 lanpostu ditu Nafarroan. Horietatik, batean baino ez da izan betekizuna euskara jakitea (Trafikoko Probintziako Zuzendaritzarako itzultzaile lanpostua, hain zuzen ere). Euskara meritutzat baloratzen da jendearen aurreko lanpostuak betetzeko.

Atentzioa ematen du euskara jendearen aurreko lanpostuak betetzeko meritutzat hartzen dela dioen baieztapenak, jakinda dakigun bezala hala ez dela, LABen helegiteei emandako epaiek frogatuta.

Espainiako Gobernuak Nafarroari buruz emandako informazioari jarraituz, 1999-2000 ikasturtean Nafarroan lanean ziharduten Estatuko 40 funtzionarioek (%2,85ek) egin zituzten euskara ikastaroak. 2000-2001 ikasturtean 24k baino ez (%1,71k). Beraz, euskara ikastaroetan parte hartu zuten langileen kopuruak behera egin zuen. Horrekin zerkusia izan dezake Estatuko Administrazioak ikastaroen denboraren erdia langileen kontura joango zela hartutako erabakia.

Hauek dira Espainiako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoari buruz emandako datuak (BOCG, 2002): 4.568 lanpostu eta horietatik 101 lanpostutan (%2,21ean) euskara jakin beharra ezarrita dago. 2000-2001 ikasturtean, 117 langilek (%2,56k) egin zituzten euskara ikastaroak, prestakuntzan eman zuten denboraren zati bat langileen pentzura joan zela.

Hori dena kontuan izanik, garbi dago Estatuak ez duela herritarrek hizkuntza ofizial bat edo beste aukeratzeko duten eskubidea bermatzeko aski neurri hartu. Beraz, hartutako neurriak ez dira nahiko eta, gainera, araua urratzen da, lehen frogatu dugun bezala.

Euskaldunen hizkuntz eskubideak Justizian

Justiziar buruz jasotako kexei dagokienez, zera izan behar da kontuan: nahiz eta Eusko Jaurlaritzak Justizia Administrazioako langileen gaineko eskumen batzuk izan, administrazio horretako funtzionarioak estatuko administrazioaren menpe daude. Epaileak eta fiskalak ez dira eskualdatu eta horiek dira, hain zuzen ere, epaitegietako eguneroko jarduna erabakitzen dutenak. Funtzionarioak epaileen esanetara daude

eta hizkuntz gaitasun egokia izanda ere, Justiziak hala eskatzen duen herritarrari euskarazko zerbitzua eman diezaion garrantzitsuagoa da, azken batean, epaileen hizkuntz gaitasuna.

Behatokira helarazitako datuei erreperatuta: hainbat kexa euskara idatzari dagozkio (esate baterako, zitazio-zedulak eta jabetza-erregistro edo erregistro zibiletako inprimaki eta agiriak gaztelania hutsez egoteagatik). Bestalde, Justizia Administrazioan hizkuntz eskubideak urratzean beste oinarrizko eskubide batzuk ere urratzen dira, esate baterako: babes judizial eraginkorra jasotzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluan jasota dagoen oinarrizko eskubidea, edo legearen aurrean denak berdinak izateko eskubidea, 14. artikuluan jaso. Datuek agerian uzten dute Justizian hizkuntz eskubideak sistematikoki urratzen direla.

Azken urteotan, herri mobilizazio ugari egin da Justizian hizkuntz eskubideak berma daitezen. Behatokiak herritarrek zuzenean bidalitako kexak jasotzen ditu, baina horretaz gain gizarte erakundeek bidalitakoak ere bildu ditu. Bergara aldeko Alfabetatze eta Euskalduntzeko Koordinakundeak-AEK eta Euskal Herrian Euskaraz-EHE taldeak 575 kexa jaso zituzten, denak Debagoieneko (Gipuzkoa) Epaitegiari zuzenduak, barruti judizial horretako herritarren hizkuntz eskubideak ez dituelako bermatzen. Gernika-Lumon (Bizkaia), Justizia Administrazioan euskarazko zerbitzu publikoa jasotzeko aldarrikapen zabala egin da eta egoera horren aurrean protesta egiteko herritar askok bere burua intsumiso adierazi du auzitegien aurrean.

Espainiako Konstituzioaren 149.1. artikuluekin bat etorritik, Estatuak eskumen osoa du Justiziaren arloko gai hauetan:

«149.1.5. Administración de Justicia.

149.1.6. ...legislación procesal...

149.1.18. las bases del régimen jurídico de las administraciones públicas y del régimen estatutario de sus funcionarios...»

Horren arabera, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak zera dio 231. artikuluan, hizkuntza ofizialak onartu eta erabilteari dagokionez:

1. «En todas las actuaciones judiciales, los Jueces, Magistrados, Fiscales, Secretarios y demás funcionarios de Juzgados y Tribunales usarán el castellano, lengua oficial del Estado.
2. Los jueces, magistrados, fiscales, secretarios y demás funcionarios de juzgados y tribunales podrán también usar la lengua oficial propia de la comunidad autónoma si ninguna de las partes se opusiere alegando desconocimiento de ella que pudiere producir indefensión.

3. Las partes, sus representantes y quienes los dirijan, así como los testigos y peritos, podrán usar también la lengua oficial propia de la comunidad autónoma en cuyo territorio tengan lugar las actuaciones judiciales, tanto en manifestaciones orales como escritas.
4. Las actuaciones judiciales realizadas y los documentos presentados en el idioma oficial de una comunidad autónoma tendrán, sin necesidad de traducción al castellano, plena validez y eficacia. De oficio se procederá a su traducción cuando deban surtir efectos fuera de la jurisdicción de los órganos judiciales sitos en la comunidad autónoma, salvo si se tratara de la Comunidad Autónoma con lengua oficial propia coincidente. También se procederá a su traducción cuando así dispongan las leyes a instancia de parte que alegue indefensión.
5. En las actuaciones orales, el Juez o Tribunal podrá habilitar como intérprete a cualquier persona conocedora de la lengua empleada, previo juramento o promesa de aquella.»

Halaber, prozedura kriminalari dagokionez, Prozedura Kriminaleko apirilaren 30eko Legeak zera dio 440 artikuluan, lekukoei buruzko aipamena egitean: «*Si el testigo no entendiere o no hablare el idioma español se nombrará un intérprete, que prestará a su presencia juramento de conducirse bien y fielmente en el desempeño de su cargo*».

Beraz, gaur egungo legeriaren arabera, esan dezakegu Estatuak ez duela bermatzen EGHElko 9. artikulua, 1. paragrafoa, a(i), b(i), c(i) idatzatietan adierazitakoa: jardunbide penal eta zibiletan eta administrazio gaitan eskumena duten jurisdikzioetan, jurisdikzio organoek jardunbidea erregioetako edo gutxiengo hizkuntzan egin dezatela, alderdietako batek hala eskatuz gero.

Eta ezin da bete, izan ere, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231.1 artikulua zera baitio: jardunbide judizialen hizkuntza gaztelania izango da eta epaileek dagokion erkidegoko hizkuntza ofiziala ere erabili *ahal izango dute*, alderdiak horren kontra ez badaude, hizkuntza hori ez dakitelako eta, ondorioz, babes gabe gera daitezkeelako. Hau da, autonomia erkidegoko hizkuntza ofiziala erabiltzeko ahalmena epaileen eta magistratuen esku dago eta ez jardunbidea hizkuntza koofizialean egin dadila eskatzen duten alderdien esku. Gainera, aukeratzeko ahalmen hori gauzatzeko epaileek eta magistratuek bi hizkuntzak jakin behar dituzte.

Kontua da Estatuko legeriak, bi hizkuntza koofizial duten erkidegoetan lan egin behar dutenean, ez diela epaile eta magistratuei gaztelania ez den beste hizkuntza ofizialik jakin beharra eskatzen. Ondorioz, legeriak epaitegiekiko harremanetan euren hizkuntza erabili nahi duten herriarrei ez die aukerarik ematen. Areago ere, gauza bitxia gerta daiteke:

baliteke epaile edo magistratu batek hizkuntza koofizial bat jakitea baina bere auzitegian ez egotea bere lurraldeko hizkuntza ofiziala erabili nahi duen herritarrik; baina, alderantziz, gerta daiteke epaileak hizkuntza ez jakitea eta epaitegira jo duen herritarrak eskubide hori erabili nahi baina ezin izatea, epaileak edo magistratuak ez dakielako.

Bizkaiko Abokatuen Elkargoak Justizia Administrazioan EGHEIren aplikazioa aztertu zuen Europako Kontseiluari igorri zion txosten batean²⁰. Honela aipatzen du txosten horrek bere ondorioetan:

«(...) euskara modu egokian, ahoz zein idatziz, ezagutzen ez duten Abokatu, Fiskal, Epaille, Magistratu, Idazkari Judizial, Epaitegieta-ko Ofizial eta Aditu nahikoa ez dagoen bitartean, Europako Itunak jasotako eskubideak bermatzeko nahikotzat jotzen den legeria hori aplikaezina izango da.

(...) Indarreen dagoen Araudiak ez du jarraipen neurririk aurreikusten, bere betearazpena ere ez da kontrolatzen eta, horrela, gaur egungo egoerak beharrezko egiten du itzulpen zerbitzura jotzea, herritarren eta Administrazioaren arteko komunikazioa erraz dadin.

Tamalez, itzulpen sistema hau ez da egokiena, administratzen den Justiziaren narriadura ekartzen baitu batzutan, bai eta oinarriko eskubide eta printzipioen urrapena ere. Ondorioz, Justizia Administrazioaren esparruan euskara erabiltzeko izan dezakeen nahia zapuzten zaio herritarrari.

(...) Gaur egungo legeria ez da nahikoa Itunaren edukia bermatzeko, euskara eta gaztelaniaren arteko koofizialtasunaren urrapen sistematikoa ikusita. Estatuko Administrazioaren jarrera aldaketa saskon bat nahitaezkoa da, gutxiengo hizkuntzen erabilerarekiko sentikortasun handiagoa ikus dadin, koofizialtasunaren hausturak saihestea eta, horrekin batera, Itunaren edukia betetzeko ahaleginak gauzatu eta sendotuz».

Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean ezagun da epaileek eta magistratuek ez dutela jakiten gaztelania ez den beste hizkuntza ofizialik²¹.

²⁰ Ikus 17. oin oharra.

²¹ «(...) como dato positivo cabe destacar que el Pleno del Consejo General del Poder Judicial en el informe elaborado en relación con el proyecto de Orden de determinación de la plantilla orgánica de los cuerpos de oficiales, auxiliares y agentes de la Administración de Justicia del País Vasco, ha valorado positivamente la propuesta de plantilla remitida por el Gobierno Vasco y declara que "en cuanto determina perfiles y condiciones técnicas para el desempeño de algunos puestos de trabajo, ha de considerarse racional y acorde con los principios que se contienen en el Libro Blanco de la Justicia". Asimismo, el Pleno del Consejo en este mismo informe, de 27 de julio de 1998, expresa que reiteradamente se ha defendido desde el órgano de gobierno del Poder Judicial "el

Adibidez, Gernikan, %90etik gorako euskaldun portzentaia duen barruti judizialean, ez dago euskara, hizkuntza ofiziala, dakien epaile edo magistraturik. Beraz, ezin da bermatu, alderdietako batek hala eskatuz gero, jardunbidea erregioetako edo gutxiengo hizkuntzan egingo denik. Hori dela eta, etengabe salatua izan da euskaldunek jasaten duten hizkuntz bereizkeria, euren hizkuntzak gaztelaniaren ofizialtasun maila bera izanik ere.

Gauzak horrela, jardunbide judizialean ohikoa izaten da itzultzailea jartzea eta, batez ere, ahozko bistan, euskaraz jardun nahi duten alderdiek (akusatuak, salatzaileak, demandatzaileak, defentsa edo akusazioaren abokatuak zein lekukoak) adierazitakoa itzultzeko epaia eman behar duten epaile eta magistratuek ez dakitelako hizkuntza hori. Alderantzizkoa ez da gertatzen, hau da, ez dago gaztelaniatik euskarara itzuli beharreko jardunbiderik, herritarrek gaztelania jakin beharra baitute.

Horren ondorioz, hizkuntz eskubideen aldeko elkarteek eta abokatu elkargoek egoera hori salatu dute bai eta Auzitegi Konstituzionalan helegitea tarteratu ere babes judizial eraginkorra izateko eskubidea eta diskriminatua ez izatekoa urratzeagatik²². Zera alegatu zuten: eskubide horiek urratzen direla alderdietako batek hizkuntza ofizialeko batean (euskaraz) jardun nahi duenean, eta epai emaeleak ez daukanez alderdi horren hizkuntza jakiteko derrigortasunik, itzultzaileak erabiltzen direla. Baina alderdietako batek gaztelaniaz hitz egiten badu, zuzenean jarduteko aukera du, bere hizkuntzak ofizialtasun maila bera (ez goragoko mailarik) izanik. Eta hori ez da noizbehinkako kasua, justiziaren jardunean sistematikoki gertatzen da.

Helegite horren aurrean, Auzitegi Konstituzionalak ondokoa erabaki zuen 1997ko urriaren leheneko Probidentzian hartutako itzulpen neurriei buruz: «*no son sino la respuesta jurídicamente fundada y lógi-*

derecho a utilizar la lengua de la Comunidad Autónoma ante los órganos jurisdiccionales, propugnando la normalización lingüística en el ámbito de la Administración de Justicia, cuyo contenido debe dirigirse, ante todo, a la efectividad del derecho a comunicarse y ser respondido en la lengua oficial elegida por el ciudadano, así como a que el proceso se desenvuelva en la lengua que resulte más adecuada al buen fin de la justicia en función de la pluralidad de sujetos intervinientes en él y de sus respectivas actitudes lingüísticas". Por consiguiente, tales objetivos parece que serían difícilmente alcanzables si no se articula una vía jurídica que permita —al menos— exigir en la fase de provisión el conocimiento del euskara en algunas plazas de los Cuerpos nacionales de la Administración de Justicia. En caso contrario, ¿resulta razonable, por ejemplo, que en una comarca donde el índice de vasco parlantes alcanza un 90%, la Administración de Justicia no garantice sus derechos lingüísticos? ¿No sería más razonable exigir el conocimiento del euskara en la provisión de tales plazas?» (Agirreazkuenaga, 2003, 169-170 orr.).

²² J.M.B eta J.M.E.k jarritako 2310/97 Babes helegitea, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren 1997ko apirilaren 23ko Autoari buruzkoa.

camente proporcionada a la solicitud de los recurrentes y sus letrados defensores de expresarse en euskara durante el juicio oral». Izan ere, lehen aipatu dugun bezala, egungo legeriarekin, Botere Judizialaren Lege Organikoak lanpostuak lehiaketa bidez betetzeko, hizkuntza koofizialak jakitea meritutzat baloratzea baino ez du onartzen.

Ministerio Fiskalari dagokionez, bere araudian ez dakar ezer hizkuntza koofizialak jakiteari buruz eta gainera, agerikoa da fiskalek ere ez dutela gaztelania ez den beste hizkuntza ofizialik jakiten.

2002an, Abokatu Euskaldunen Sindikatuak eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak txosten bat plazaratu zuten adin txikikoen jurisdikzio penalean euskarak duen egoerari buruz (Behatokia, 2002b). Txostenean azaltzen den bezala, EGHEI berrestean hartutako konpromisoak ez dira betetzen.

Justizia administrazioko langileei dagokienez, gogoratu behar dugu Estatuko administrazioaren menpe daudela. Gaur egun, funtzionario horiek ez dute hizkuntza koofizialik jakiteko derrigorrik eta hizkuntza horiek jakitea meritutzat baino ez da hartzen.

Euskal Autonomia Erkidegoan akordio bat lortu zen Eusko Jaurlaritzaren eta Gobernu Zentralaren artean, justizia arloan Gobernu Zentralaren eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruz (60/1996 Errege Dekretua). Eskumenen eskualdatze horren babesean, Eusko Jaurlaritzak 117/2001 Dekretua, ekainaren 26koa, eman zuen Justizia administrazioko funtzionarioei buruzkoa (dekretu horretan epaile, magistratu, fiskal eta idazkari judizialak ez dira sartzen) eta bertan euskararen normalizaziorako neurri batzuk bildu zituen. Gobernu Zentralak Auzitegi Konstituzionalean helegin zituen bai Dekretu hori, bai horretan eta abenduaren 26ko 309/2000 Dekretuan oinarritutako Normalizazio Plana.

Nafarroaren kasuan, Nafarroako Foru Komunitatean ez da eskumenik eskualdatu, ezta hizkuntz normalizaziorako neurririk hartu ere.

2003ko urtarrilean, Iruñeko Probintzia Auzitegiko idazkariak akusatuena alderdiari gastuen behin-behineko tasazioa, 14.260,13 eurokoa, bidali zion. Kostu horretan interpretazio eta itzulpen zerbitzuak eta batbateko itzulpenenerako beharrezko azpiegitura sartu zituen, epailetan horren beharra izan baitzen. Izan ere, akusatuak, Baztango gizasemeak ez zituen epailearen eta fiskalen galderak (gaztelaniaz) ulertzen²³, eta azken horiek ez zuten akusatua (euskaraz) ulertzen. Akusatuaren aboka-

²³ 2001eko maiatzaren 16ko *Euskaldunon Egunkariak* egun horietan Nafarroako Probintzia Auzitegian egiten ari zen epailetaren berri eman zuen. Akusatuak, Baztango Gartzain herriko gizasemeak, honako esaldi honekin ihardetsi zion fiskalak erdaraz egin zion galderari: «*Ez dut konprenitzen jauna*».

tuak tasazioa ordaindu behar izate horri helegin zion. 2004ko ekainaren 9an, Nafarroako Probintzia Auzitegiak bere epaia eman zuen itzulpen zerbitzuaren kostua kobratu izanaren kontra. Argudioetan, ordea, ez da Nafarroako Euskararen Foru Legea aitatzen, ez ofizialtasunetik Baztango herritarrari eratortzen zaizkion eskubideak, ez eta EGHEI eta horren berrestean Estatuak hartutako konpromisoak ere.

«En consecuencia, indemostrada la concurrencia de la causa o la circunstancia obstativa, que los acusados conociesen o comprendiesen suficientemente el idioma español, deben aplicarse las normas aludidas (*Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmena, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmena*) en cuanto establecen la gratuidad del intérprete, lo que determina que deban excluirse también las partidas impugnadas como indebidas o ilegítimas correspondientes a los conceptos aludidos de interpretación» (Nafarroako Probintzia Auzitegiko 77/2004 Autoa, 2004ko ekainaren 9koa. Parentesia gurea da).

Herritarrari gaztelania ulertzen ez zuelako soilik ez zitzaion itzulpen kostua bere gain hartu beharra ezarri. Epaiak ezein momentutan ez du aitatzen herritarrak hizkuntza ofiziala hautatzeko duen eskubidea, nahiz eta biak ongi jakin. Estatuak EGHEI berretsi zuenean, hainbat konpromiso hartu zuen Justiziaren gainean (9. art.), eta puntu horretan argi eta garbi adierazten da hiritarrari bermatu behar zaiola erregioetako edo gutxiengo hizkuntza erabili ahal izatea, itzultzeko behar izateagatik inolako gastu gehigarririk izan gabe.

Justiziaren alorretik at, Estatuko Administrazioak Nafarroako herritar eskaldunen hizkuntz eskubideekin duen jarrera agerian uzteko adibideak ugari dira. Bat aski adierazgarria ematearren:

2003ko hasieran, Estatuko Zerga Agentziak Arantzako Udalera (Nafarroa, legeak zedarritutako *eremu eskaldunekora*) erdara hutsean bidali zituen agiriak. Arantzako Udalak agiri guztiak euskaraz ere jasotzeko eskatzea erabaki zuen. Aldiz, Estatuko Zerga Agentziak Administrazioarekiko Auzi-helegitea jarri zuen Arantzako Udalaren erabaki horren aurka (Behatokia, 2003c).

Ekintza horiek, argi eta garbi, indarren dagoen legedia hausten dute, dela Nafarroako, dela Estatukoa, bai eta Espainiak EGHEI berrestean hartutako konpromisoak ere.

Bukatzeko, berriki euskal hizkuntz komunitatea astindu duen kasua ezin aipatu gabe utzi: 2003ko otsailaren 23an, Auzitegi Nazionaleko Juan del Olmo epailearen aginduz, Guardia Zibilak *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuen, bai eta egunkari horrek Andoainen duen egoitza nagusia, Iruñeko, Gasteizko eta Bilboko ordezkariak eta edizio digitala ere.

Euskaldunon Egunkaria euskara hutsezko bakarra zen, eta eguneroko albisteak Estatu espainiarreko eta frantziarreko euskaldunei ematen zizkien bakarra. Auzitegi Nazionaleko epaile batek egunkari bat ixteko erabakia zuzendaritzaren ustezko delituzko jarduera oinarritzat hartu izana, inolako frogarik aurkeztu gabe, zalantzan jarri izan da askotan; izan ere, Espainiako Konstituzioari berari jaramon eginda, ez dirudi instrukzioko (ikerketako) epaile batek ahalmena duenik hedabide bat prebentzio edo segurtasunezko arrazoiengatik ixteko, epaiketa egin baino lehen. Gainera, ematen du ekintza hori ez datorrela bat Estatuak hartutako honako konpromisoarekin: «*fomentar y/o mantener la creación y/o el mantenimiento de, al menos, un órgano de prensa en las lenguas regionales o minoritarias*» (EGHEko 11. artikuluko 1. paragrafoa, e) i idatz-zatia).

Estatuaren jardunbideari buruz azalduzko guztia kontuan hartuta, 2002ko urtarrilaren 10ean Hizkuntz Eskubideen Behatokiak Espainiako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan zuen ordezkariari, Enrique Villar Montero jaunari, gutuna bidali zion. Gutun horretan harekin biltzeko eskaria egin zion Behatokiko zuzendariak, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen hizkuntz eskubideak sistematikoki urratzearen inguruko kezka helarazteko. Gobernuaren Ordezkari jaunak honela erantzun zuen:

«(...) resulta insultante la afirmación vertida por vd. (Behatokiaren orduko zuzendaria zen Paula Kasaresi zuzendu zion) de que se realizan vulneraciones sistemáticas de derechos lingüísticos salvo que se esté refiriendo a la otra lengua oficial de esta C.A., el español, que, en ocasiones, merecería una mayor protección y un mejor trato que el que recibe por parte de determinados colectivos e instituciones» (Behatokia, 2003c. Parentesia gurea da).

Beraz, Estatu espainiarraren eskumenei dagokienez, aski garbi dago Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako herritar euskaldunen eskubideak ez dituela babesten, ez eta indarreango legeria, Estaturkoa nola nazioartekoa betetzen eta, areago ere, nabaria dela herritar euskaldunen hizkuntz eskubideen urraketa sistematikoaren kasuen aitzinean erakusten duen sentiberatasun falta eta axolagabekeria.

4.2.2.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Euskal Autonomia Erkidego-EAEko 1979ko Estatutuak euskarari berezko hizkuntza izatea aitortu zion, bai eta hizkuntza ofiziala ere, gaztelaniarekin batera noski, bere lurralde osoan. Handik 3 urtetara Estatu-tuan ezarritako ofizialtasuna lege batez garatu zuen: 10/1982 Oinarrizko

Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera arauzkotzekoa. Aurreko puntuan ikusi dugun bezala, teorikoki, bi lege horiek diotena EAEn dau den administrazio mota guztiek (Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Udalek eta Estatuko Administrazio periferikoak) bete behar dute, baina ikusiko dugun bezala, ofizialtasun teorikotik hizkuntz eskubideen berme errealera jauzi handia dago.

Ofizialtasun teorikotik hizkuntz eskubideen berme errealera

Euskararen ofizialtasuna 1979an onartu zen, baina gauza bat da hizkuntza bat ofiziala izatea, Konstituzio Auzitegiak dioen bezala «*independientemente de su realidad y peso como fenómeno social*»²⁴, eta beste gauza bat da hizkuntzaren ezagutza eraginkorraren errealitatetik abstrakzioa egitea. Iñaki Agirreazkuenagak azaldu bezala, euskara bezalako gutxiengo hizkuntza baterako eskubidea

«se halla imposibilitado en muchos lugares, a pesar de su oficialidad, debido a que su normalización, lógicamente, exige una adecuación de las estructuras administrativas y de los poderes públicos a la pluralidad de la oficialidad lingüística, cuestión que ni se improvisa, ni se puede edificar en la irrealidad del voluntarismo» (Agirreazkuenaga, 2003, 156 orr.).

Izan ere, 1979an EAEn euskarari ofizialtasuna aitortu ziotenean, euskarak oso egoera soziolinguistikoko ezberdinak zituen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeetan. Eskualde euskaldun-euskaldunak zeuden, bai eta euskara inork ez zekien herri osoak ere. Hiriburuen artean, Donostia —erdararen nagusitasunaren pean bada ere—, euskararen erabilerririk altuena zuen hiriburua zen, eta Bilbo eta Gasteiz ia guztiz erdaldunak ziren. Batez beste, doi-doi herritarren lautik batek baizik ez zekien hizkuntza, zekitenen artean alfatetatze maila oso apala zen eta euskara hainbat arlo administratibo, tekniko nola akademikotan hizkuntza landu eta garatu gabea zen.

Azkeneko urteotan, eta ez ofizialtasunari esker soilik —euskararen aitzinamendu sozialean gizarteak berak izan duen garrantzia guztiz aipatzekoa da—,

«50 urte baino gutxiago dituztenen artean elebitasunak izandako aurrerapena ukaezina da: 35 eta 49 urte bitarteko lau pertsonatik bat elebiduna da (%25,1); baita 25 eta 34 urte bitarteko hiru pertsonatik

²⁴ Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 Epaia, ekainaren 26koa. 1986ko uztailaren 4ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (BOE).

bat (%31,3) eta 16 eta 24 urte bitarteko bi pertsonatik bat ere (%48,5)» (Eusko Jaurlaritza, 2003, 13 orr.).

Euskarari ofizialtasuna aitortuta eta EAEko egoera soziolinguistikoa zena zela, ikus dezagun nola egokitu ziren administrazio egiturak eta potere publikoak ofizialtasun bikoitzari.

Hasteko, kontuan hartu behar da, 1980. hamarkadan Estatu espainiarrean, erkidego autonomikoen administrazio guztiak eraiki egin behar izan zirela deialdi publikoetan erkidegoko berezko hizkuntzaren ezagutza eskatu edo meritu gisa baloratu ahal izan gabe. Urteetan Auzitegi Nagusiak ezarri zuen hizkuntza berezkoaren balorazio hutsak funtzio publikora sartzeko berdintasun printzipioaren kontra jotzen zuela. Doktrina hori Konstituzio Auzitegiak zuzendu zuen honako hau ezarriz: *«para garantizar el uso de las lenguas por los ciudadanos, nada se opone a que los poderes públicos prescriban el conocimiento de ambas lenguas para acceder a determinadas plazas de funcionario o que, en general, se considere un mérito entre otros»*²⁵.

Eta hori horrela EAEn Administrazioaren hizkuntz plangintzaren oinarria izan den 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa, onartu zen. Legeak honela dio bere idazpuruan, 97. atalean, 1. puntuan:

«Euskera eta gaztelera dira euskal Administrazio Publikoetako hizkuntza ofizialak, eta bi hizkuntzok erabiltzea bermatu beharko dute Administrazio horiek bere barneko zein kanpoko harremanetan.»

Horretarako, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak lanpostuei hizkuntz eskakizun bana atxikitzeke sistema ezarri zuen. Sistema hori orokorra da administrazio osoarentzat, ezin da langilegoaren sistema arautu hizkuntz eskakizunetan oinarritu gabe²⁶. Dena den, euren izaera berezia eta ezaugarriengatik, Hezkuntza (18.000 langile), Osakidetza (22.000

²⁵ Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 Epaia, ekainaren 26koa. 1986ko uztailaren 4ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (BOE).

²⁶ «En Cataluña el artículo 11 de la Ley 1/1998 dispone que el personal al servicio de la Administración, las corporaciones y las instituciones públicas de Cataluña deben conocer las dos lenguas oficiales de la Comunidad; y en el proceso de selección para acceder a plazas de personal de la Administración de la Generalitat, la Administración local y la administración y servicios de las universidades, debe acreditarse el conocimiento de la lengua catalana. A veces se tiene la idea equivocada de que lo mismo sucede en Euskadi y que, en general, para trabajar en las Administraciones Públicas Vascas se exige de forma imprescindible el conocimiento del euskara. Nada más lejos de la realidad, precisamente porque la realidad sociolingüística es distinta» (Agirreazkuenaga, 2003, 162 orr.).

baino gehiegi) eta Ertzaintza (7.300) plangintza horietatik kanpo gelditu dira.

Orain bitartean, EAEko Administrazioan euskara normalizatzeko hiru plangintza onartu dira: I. Plangintzaldia (1989-1995), II. Plangintzaldia (1997-2002)²⁷ eta III. Plangintzaldia (2003-2007).

2004ko ekainean Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak «EAEko Administrazio orokorraren euskalduntze prozesua. 1989-2004. Emaitzak eta III. Plangintzaldirako asmoei buruzko Kontseiluaren irakurketa» txostena aurkeztu zuen. Txostenak II. Plangintzaldiari buruz dioten araberak:

«Aldi honetan lehentasunez (2002. urtea amaitu aurretik) elebiduntzea aurreikusi ziren 84 ataletatik bakar bat ere ez da helburu horretara iritsi (orotara 456 sail dira Administrazio Orokorrean, eta 84 ziren Plangintzaldia amaitu aurretik elebidun egiteko lehentasunekoak).

Plangintzaldia amaitu zenetik urte eta erdi joan da. Hala ere, oraindik ez dugu ezagutzen ebaluazioek zer dioten (eta hala ere Eusko Jaurlaritzak dagoeneko mahai gainean jarri du hurrengo Plangintzaldiaren egitasmoa)» (Kontseilua, 2004).

Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuaren hitzetan, «II. Plangintzaldiaren helburu nagusia ez da bete: atal elebidunak lortzea»²⁸. Izan ere II. Plangintzaldiaren helburuetako bat Eusko Jaurlaritzaren 84 atal elebiduntzea zen. Hori horrela, sailburuak azaldu bezala, Eusko Jaurlaritzak 2004ko uztailaren 27an onartu zuen III. Plangintzaldirako helburu apalagoak ezarri behar izan zituen.

Gauzak ongi, III. Plangintzaldiko helburuak betetzen badira, 2007an 549 ataletatik 50etan bakarrik egingo da lan euskaraz. Gizarte erakunde, sindikatu eta euskalgintzako eragile esberdinek porrotaz²⁹ hitz egin dute, orain bitartean Eusko Jaurlaritzak bere administrazioa euskalduntzeko abian jarritako plangintzek ez baitute behar bezalako emaitza

²⁷ Gobernu Kontseiluak, Kultura sailburuak hala proposatuta, 2002ko abenduaren 30eko bilkuran erabaki zuen II. Plangintzaldia bukatzeko epea 2003ko abendu arte luzatzea.

²⁸ *Berria*, 2004ko uztailaren 29a, osteguna, 4 orr.

²⁹ «Lehen hutsa, beraz, porrota izan diren planen kalkoa egitea da, beste behin ere» Euskal Herrian Euskaraz taldeak. *Berria*, 2004ko uztailaren 29a, osteguna, 4 orr.

«Planak porrot egin du; langileak ez dira euskaldundu eta irizpideak ez dira bete» LAB sindikatuak. *Berria*, 2004ko uztailaren 31a, larunbata, 14 orr.

«Beldur gara, eta horrela adierazi diogu Administrazioari, III. Planak —orain onartuagatik urte eta erdi indarrean dagoena—, aurrekoaren bideari ez ote dion jarraituko, eta ez ote zaigun azkenean ezinezkoa egingo lortu beharreko helburuetara iristea» ELA sindikatuak. *Berria*, 2004ko uztailaren 31a, larunbata, 14 orr.

eman, eta gure gaiari dagokiola, euskarari ofizialtasuna aitortu ziotenetik, 1979tik, 25 urte igarota, herritar euskaldunen hizkuntz eskubideak ez daude inondik inora bermaturik:

«Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko politika honek ez dio gizartearen premiei erantzuten; ez da gauza izan Administrazio Orokorrean herritarren hizkuntza eskubideak behar ziren mailan eta neurrian bermatzeko; eta indarrean jarri nahi den plangintzak orain artekoak bezain etsigarriak izango diren emaitzak erdiestea iragar daiteke dagoeneko. Beraz, errotik aldatu beharra dago normalizazioaren aurrean administrazioak daraman bidea.» (Kontseilua, 2004).

Ikusi dugu 10/1982 Oinarrizko Legea, euskararen erabilera arauzotzekoa, indarrean sartu zenetik hasi zela administrazio publikoak ofizialtasun bikoitzari egokitzeko prozesua. Izan ere, hizkuntza ofiziala izendatzearekin ez da lortzen *per se* herritarren hizkuntz eskubideak bermatzea.

Izan ere, hizkuntza bat baino gehiago ofizialak badira —gure kasu den bezala—, hizkuntza baten ofizialtasuna haren erabilera ofizialak moldatua da (Oliveras, 2001, 5 orr.). Ikus dezagun zer dioen Jaime Vernetek, Rovira i Virgili Unibertsitateko Zuzenbide Konstituzionaleko katedradunak hizkuntza ofizialen erabilera ofizialen inguruan:

«... una lengua declarada oficial puede no desarrollar todas las funciones comunicativas de los poderes públicos, pero no por ello deja de tener ese carácter. Es una lengua oficial pero no desarrolla con plenitud todos sus usos oficiales, bien porque los efectúa otra lengua, bien porque se utilizan ambas a la vez o sucesivamente.

(...) el carácter de oficialidad no confiere siempre un haz de funciones idénticas. La oficialidad, como ocurre con otros conceptos jurídicos tendrá un contenido distinto en cada Estado o ente competente, porque depende de las decisiones que válidamente tomen sus instituciones.» (Vernet, 2002, 29 orr.).

Beraz, hizkuntza bat ofiziala izan daiteke baina ofizialtasunari dagoz-kion erabilera guztiak garatu gabe izan ditzake. Hori da EAEko euskararen ofizialtasunaren kasua: administrazio publikoaren eremuan euskararen ofizialtasuna ez dago erabat garatuta, edo ez gaztelaniarena bezainbeste. Izan ere, euskararen ofizialtasun estatus hori praktikara eramateko oztopo asko daude eta ondorioz, euskaldunen hizkuntz eskubideek berme formala edo teorikoa dute soilik. Behatokiak (2002a, 2003a, 2004) jasotako datuak horren froga dira: Eusko Jaurlaritzari, haren erakunde autonomiadunei eta EAEko foru aldundiei herriarrek zuzenduta-
do kexa gehien-gehienek lege urraketa izaera dute. Herritarrekiko zer-

bitzurik garrantzizkoenak bermatzen dituzten sailak dira, hain zuzen ere, herritarren kezarik gehien jaso dituztenak: Justizia³⁰, Osasuna, Lana eta Gizarte Segurantza, Hezkuntza eta Herrizaingoa.

Kexen errepikakortasuna eta erabilera idatziari dagozkiola kontuan hartuta, sistematikotasun aski zantzu dagerkigu. Bestalde, aipatzekoa da kasu horiek EAE osoan gertatu direla, euskaldun kopurua altua den udalerrietan nola hain altua ez denetan ere. Eusko Jaurlaritzaren eta erakunde autonomiadunen jardunbideak antzekoak dira oso hiru herrialdeetan, Araban, Gipuzkoan nola Bizkaian, eta detektatu den egoera aski orokortuta dago.

Osasun Sailari dagokionez, jasotako kekek, bereziki, xehetasun larri-garriak dituzte. Izan ere, Tolosako osasun etxeko larrialdi zerbitzuan euskarazko zerbitzurik jaso ezin izatea edo osasun etxe batean zerbitzu bat bera ere euskaraz jasotzeko aukerarik ez izatea larria da. Garbi da herritarrek hautatu hizkuntza ofiziala osasun zerbitzu publikoetan erabili ezin izateak ondorioak izan ditzakeela osasun zerbitzuaren beraren kalitatean eta herritarrek euskara erabiltzeagatik edo ezin erabiltzeagatik kalteak har ditzaketela.

Hori jakinda are ulergaitzagoa da 2002 urteko maiatza eta ekainean Osakidetzak 1800 bat lanpostu hornitzeko deialdi publikoa egin eta lanpostu bakar baterako ez euskara jakitea betekizun gisa eskatu ez izana. Behatokiak, lehenik gorako helegiteak eta, ondoren, administrazioarekiko auzi helgiteak jarri zizkion Osakidetzari aipatu lanpostu publikoen deialdien aurka. Udal Euskaldunen Mankomunitateak ere helegiteak tarteratu zituen. Esan bezala, lanpostu bakar bat betetzeko ere ez zen beharrezkoa EAeko bi hizkuntza ofizialak jakitea. Gaztelania ezinbestekoa zen eta euskara jakiteari, ordea, oposaketaren %5,6 puntu baizik ez zizkion eman meritu gisa (Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak %5 eta %20 bitarteko merezimendua ematea aurreikusten badu ere). Epaileek ez zituzten helegiteak onartu.

Osasun arloarekin segituz, beste adibide bat ematearren, 2002ko irailaren 4an, Tolosaldeko andre gazte batek kexa egin zion Osakidetzari bere herriko Osasun Zentroan erditze-ikastaroa euskaraz egiteko aukerarik ez zuelako, gaztelaniaz baizik ez baitzuten eskaintzen. Osakidetzako Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdeko gerenteak, 2002ko irailaren 17an emandako erantzunean, honela ihardetsi zion andrearen erreklamazioari (Behatokia, 2003d):

«Zure bigarren erreklamazioa jaso dugu eta irtenbide alternatibo bezala honako hau proposatzen dizugu: gure eskualdeko beste osa-

³⁰ Espainiako Estatu Administrazioari buruzko 4.2.2.1. puntuan ikusi dugun bezala.

sun zentro batera joatea erditze-ikastaroa egitera. Bertan emaginarekin euskaraz hitzegin ahal izango duzu.

Hala ere, jakinarazten dizugu ikastaro hauetan, euskaraz ez dakien pertsonaren bat badago, ikastaroa gaztelaniaz egiten dela.»

Ezin garbiagorik esan. Osakidetzak herritar gazteleradunen hizkuntz eskubideak bermatzera jotzen du, ez ordea, herritar euskaldunenak. Bestalde, aipatzekoak dira euskararen normalizazioaren aldeko gizarte erakunde ezberdinek egindako kanpaina eta mobilizazioetan osasun arlo publikoak kezka handiak bildu dituela eta lanketa bereziak jarri dituztela abian. Adibidez, Hernani aldeko Euskal Herrian Euskaraz gizarte erakundeak Behatokia helarazitako 437 herritarren kexak, denak Osakidetzari zuzenduak eta osasun mundua euskalduntzearen aldeko kanpaina batean bilduak herritar euskaldunen hizkuntz eskubideak ez bermatzeagatik. Edo Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak egindako lanak. Osasun arloak merezi duen arretagatik, 2002 urteko txostenean Behatokiak lanketa berezia egin zuen horren gainean (2003a).

Herrizaingoiari buruzko kexak ere oso kontuan hartzeak dira agerian uzten baitute hizkuntz eskubideak urratzen diren beste eremu bat. Gehienak ahozko harremanen ingurukoak dira, adibidez, herritarrak ertzain etxera joan salaketa bat jartzera eta euskara dakien inor ez zegoelako, edo ertzainek herritarrari gazteleraz egin, herritarrak euskaraz erantzun, ertzainetako inork ez jakin eta, gainera, modu txarrean erantzun dutelako. Kasu horiek larriak izaten dira, autoritateek herritar bat gelditu, dokumentazioa eskatu eta antzeko egoeretan herritarrek euren hizkuntzari atxekitzea, legez duten eskubide gisa hartu beharrean, tentsioa sortu eta egoera gaiztotu egiten duen jokabide gisa hartu ohi baitute ertzainek eta herritarrari kaltea dakarkiokeen ondorioetara eraman (Ertzainen forma txarreko erantzunak, ezinbestekoak ez diren atxiloketak edo erretentzio luzeegiak). Behatokiak arreta bereziaz aztertu beharreko jo zituen Herrizaingo Saileko funtzionari publiko batzuen aldetik eman ohi diren jokamolde batzuk. 2002 urteko txostenean lanketa berezia egin zuen horren gainean (Behatokia, 2003a).

Laburki azaldu dugun egoera kontuan hartuta, Euskalgintzan zabal da Eusko Jaurlaritzaren hizkuntz politikaren inguruan dagoen ikuspegi kritikoa. Kritikarik gogorrenak biltzen dituen arloa Hezkuntza da³¹,

³¹ «Ezaguna da, nola 80ko hamarkadan zehar bi hezkuntza autonomikoak eratu ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, bata; eta Nafarroan, bestea. Eta hezkuntza-politika diseinatzerakoan A, B, D ereduaren sistema ezarri zen orduko egoera eta mugak kontuan harturik, ikasleriaren euskalduntzea erabat bermatzen ez zuen ereduaren politika batekin, esaterako, Katalunian ez bezala.». Xabier Mendiguren Kontselluko idazkari nagusiak, «Eskola euskalduntzailea». *Berria*, 2004ko uztailaren 4a, igandea, 5 orr.

euskararen eta euskarazko irakaskuntzarako ezarri ziren ikastereduek EAEko haur-gazteak gutxiengo hizkuntza gutxituaren hiztun osoak bihurtzeko bi hamarkadaotan eman duten emaitza eskaxa. Eusko Jaur-laritzaren *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak* berak hala dio A eta B ikastereduen emaitzez:

«A ereduak ikasten duten haur erdaldunek, bestalde, oso maila apala dute ulermen-mailan, apalagoa idazteko eta hitz egiteko. Ez dute legeak finkatzen duen "nahikotasun" mailarik lortzen. B eredu "bigunean" ere hutsune nabarmenak agertzen dira: nahasketak fonologian, lexikoan eta joskeran, hiztegi mugatua, esaldiak osatzeko zailtasuna eta abar» (Eusko Jaurlaritza, 1999, 58-59 orr.).

Izan ere, ikus dezagun autonomia erkidegoetako bertako hizkuntzen derrigorrezko irakaskuntzaz Auzitegi Konstituzionalak ezarritako doktrina goiztiarra:

«Todos los habitantes de Euskadi tienen el derecho a conocer y a usar ambas lenguas (art. 6.1 del Estatuto). Ello supone, naturalmente, que ambas lenguas han de ser enseñadas en los centros escolares de la Comunidad con la intensidad que permita alcanzar ese objetivo. Y es de observar en este sentido que tal deber no deriva sólo del Estatuto, sino de la misma Constitución.

(...) De estos preceptos resulta que el Estado en su conjunto (incluidas las Comunidades Autónomas) tiene el deber constitucional de asegurar el conocimiento tanto del castellano como de la lengua propia de la Comunidad, que tiene carácter de lengua oficial (art. 6.1 del Estatuto). Una regulación de los horarios mínimos que no permita una enseñanza eficaz de ambas lenguas incumpliría este deber constitucional.» (Konstituzio Auzitegiaren 88/83 Epaia, urriaren 27koa).

Izan ere, hizkuntza bat ofiziala egiten den momentutik, derrigorrezko hezkuntza da hizkuntza ofizialaren ezagutza orokortzeko bidea. Hezkuntza da Agirreazkuenagak aipatzen zuen administrazio egitura eta potere publikoak ofizialtasun bikoitzari egokitzeko beharrezko oinarria, hizkuntza hori gizarte osoak ezagutuko duela bermatuko duena.

Puntu honen hasieran esan dugun bezala, EAEn euskara ofiziala egin zenean hiru lurraldeetako egoera soziolinguistikoak bestelakoak ziren oso eta hasiera batean ofizialtasun hori erreala egitea ezinezkoa bazen

«Hizkuntza politika hau, belaunaldi berri guztiak euskalduntzea lortzeko helburutik, hots, normalkuntzaren inflexio puntutik oso urruti dago.». Inaxio Agirre Donostiako Euskararen Patronatuko zuzendari ohiak eta AuBko Gipuzkoako ordezkaria denak. *Larrun*, 70, *Hizkuntz politika*, 3 orr.

ere, ofizialtasunetik eratortzen den normalizazio prozesuak —derrigorrezko hezkuntzaren bidez— euskararen ezagutzaren orokortzea bermatu beharko zukeen.

«(...) parece indefectible que en zonas no vascófonas la realidad sociolingüística degrade de facto el *status* de oficialidad de las lenguas minoritarias a un *status* de semif oficialidad; aunque no debe olvidarse que el proceso de normalización derivado de la oficialidad sienta las bases para que —a través de la educación general obligatoria— se asegure el conocimiento efectivo del euskara en el conjunto del territorio del País Vasco.» (Agirreazkuenaga, 2003, 157 orr. Letra etzana jatorrizko testukoa da).

Baina, errealitatea da EAEn haur-gazte guztiek ez dutela euskara ikasten eta etorkinei ez zaiela ikasteko behar beste bide ematen³². Eta, nolatan gaudituko da Agirreazkuenagak deitu duen *sasiofizialtasun estatatus* hori? Beste modu batez esanda, Hezkuntza sistema publikoak belaunaldi berrien euskalduntzea bermatu ezean, dugun ofizialtasun estatusa erreala izan daiteke? Ahots kritiko dezente daude euskalgintzan ikastereduen sistema aldatzea eskatzen dutenak.

«(...) Berehala mende laurdena beteko duen eredu sistema gaintzeko ausardia eskatzen zaio Lakuako Gobernuari. Belaunaldi berriak erabat euskalduntzearen helburua lortzeko orain arteko eredu sistema gaintitu behar da.»³³

Egun dugun egoerak, Konstituzio agindua ez betetzeaz gain, gure ustez, euskararen erabilera soziala berreskuratzea ezinezko egiten du, bere biziraupena ez du bermatzen eta herritar euskaldunen hizkuntz eskubideak berme errealik gabe uzten ditu. EAEko belaunaldi berri guztiek euskara ez ikastea bihurtu da, azken batean, hizkuntz politika ausartago baterako galga eta herritar euskaldunen hizkuntz eskubideak bermatzera ez daraman gurpil zoroaren abiaburu okerra: herritar guztiek ez baitakite euskara, Administrazioa sartzeko deialdietan ez da sistematikoki eskatzen (ez eta hezkuntzan ere) eta herritar euskaldunen hizkuntz eskubideei behar bezala ez zaie erantzunen.

³² «EAEko ikasleria osoaren %38 D ereduan, benetan euskalduntzen duen horretan, ikasten ari den une honetan, etorkin gehienak eredu ahulenetan matrikulatzera bultzatuak direnean eta Behatokiak berriki gogorarazi digunez, hizkuntza eskubideak administrazio eta maila guztietan urratzen direnean (...)» Xabier Mendiguren, Kontseiluko idazkari nagusia, «Eskola euskalduntzailea». *Berría*, 2004ko uztailaren 4a, igandea, 5 orr.

³³ Xabier Mendiguren, Kontseiluko idazkari nagusia, «Eskola euskalduntzailea». *Berría*, 2004ko uztailaren 4a, igandea, 5 orr.

Bestalde, azken bospasei urteotan euskalduntze-alfabetatzearen jarraiera beherantz joan da (Euskararen Aholku Batzordea, 2003, 39 orr.). Horiek horrela, kontuan hartzen badugu eskola eta euskalduntze-alfabetatzea direla euskararen geroratzea edo ondorengoenganatzea ziurtatzeko tresnak (*ibid.*), badirudi oinarri izan badutela hizkuntz politika ausartago baten aldarrikapena egiten duten euskalgintzako gizarte eragile ezberdinek.

4.2.2.3. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

Nafarroako Foru Komunitatean euskararen erabilpenean eragiten duten bi lege nagusi daude: Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeztzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa (LORAFNA hemendik aurrera) eta 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa.

1978ko Espainiako Konstituzioak indarra hartuta, 1980ko azaroaren 3an, Nafarroako Parlamentuak euskararen ofizialtasunaren Ebazpen bat onartu zuen: «*Euskara eta gaztelania Nafarroako hizkuntza ofizialak izanen dira*». Baina ondoren, Estatuarekin LORAFNA negoziatzera Madrilera joan ziren Nafarroako Parlamentuaren batzordeko ordezkariak ez zioten aitorten horri eutsi eta Estatuarekin adostu zuten 13/1982 Legeak ez zuen euskararen ofizialtasuna Nafarroa osorako aitortu. LORAFNAk, bere 9. artikuluan gaztelaniaren ofizialtasuna Nafarroa osoan ezarri zuen baina euskararena Nafarroaren zati huts bakar batean baino ez: «9.2. *Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan*». Halere, lege horrek ez zuen *zonalde euskaldun* horiek zein ziren zehaztu, eta eginkizun hori, bai eta euskararen erabilera ofiziala eta horren irakaskuntza arautzea ondoko Foru Lege batek egiteko utzi zuen.

LORAFNA aztertuta, pentsa liteke ondoko Foru Lege horrek Nafarroan bi zonalde mota bereiziko lituzkeela: *zonalde euskaldunak* eta besteak. Baina 18/1986 Foru Legeak Nafarroa hiru hizkuntz eremutan zakikatu zuen: *eremu euskalduna* (1986ko Nafarroako Erroldaren arabera herritarren %67,27 euskalduna zuena), *eremu mistoa* (%13 euskalduna zuena) eta *eremu ez euskalduna* (%2 euskalduna zuena). Lehenbizikoan euskarari ofizialtasuna aitortu zion; bigarrenean, herritarrei zenbait hizkuntz eskubide aitortu zion; hirugarrenean herritarrei ia ez zion euskararikiko eskubiderik onartu.

Lehenik eta behin, atentzioa ematen du milioi bat hektarea eta milioi erdi lagun dituen lurralde batean hiru hizkuntz eremu bereiztea erabaki izanak. Ikuspegi praktiko hutsetik, zentzuzkoa ote den galdegitea dugu. Gainera, Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua arabera, Nafarroako hizkuntz zonifikazioa zalantzazkoa da, Konstituzioak esaten baitu «*las demás lenguas españolas serán también oficiales en las res-*

pectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos». Kontituzioak hizkuntza horiek euren *Autonomia Erkidegoetan* ofizialak izango direla dio, ez du esaten eta, beraz, ez aurreikusten ere, *Autonomia Erkidegoen zenbait eskualdetan* soilik izan daitezkeenik ofizialak. Dena den, Iñaki Agirreazkuenagak Nafarroako zonifikazioak Konstituzioaren agianduan lekua baduela defendatzen du, defendatzen duen bezala Nafarroako Parlamentuak hala erabakiko balu, Nafarroa osoa *eremu euskalduna* bihur zezakeela (Agirreazkuenaga, 2003, 173 orr.).

Bigarrenik, Nafarroak nolako errealitate soziolinguistikoa duen ikusita, pentsa liteke hizkuntz zonifikazioa irtenbide logiko eta bakarra dela, baina erreparatzen badugu soziolinguistikoki Nafarroa bezain heterogeneoak diren Estatuko beste erkidego batzuek euren hizkuntz aniztasuna arautzeko momentuan egindakoaz, ikusiko dugu Nafarroan hiru hizkuntz eremu bereiztea ez zela aukera bakarra izan: Valentziako Komunitatean bertako hizkuntzari, valentziera edo katalanari, lurralde osoan aitortu zioten ofizialtasuna, nahiz eta Valentziako hego eta barne aldeko hainbat eskualdetan katalanera historikoki inoiz hitz egin ez bada ere. Ofizialtasun hori lurralde osoan valentziar guztientzat, nahiz eta zonalde soziolinguistikoen arabera ofizialtasunaren garapen mailakatu eta egokitua egingo zela aurreikusi. EAEn ere, Nafarroan bezala, historikoki aspaldian euskara galdua zuten eta 1980. hamarkadan oso erdaldunduta zeuden eskualdeak daude, baina EAEn ere orduko legegileek ez zuten zalantzarik izan euskarari ofizialtasuna lurralde osoan aitortzeko. Nafarroan berriz, orduko legegileek euskarari ofizialtasuna Nafarroako zati batean baizik ez aitortzea deliberatu zuten eta hori, ikusi dugun bezala, ez zen har zezaketen irtenbide bakarra, ez eta onena ere, herriarren hizkuntz eskubideen babesaren ikuspuntutik baloratuta.

Hirugarrenik, legeak eremu horiek zedarritu egiten ditu baina ez du adierazten zein irizpideri jarraitu zion horretarako. Zergatik euskarari ofizialtasuna aitortu Nafarroako iparraldeko udalerrri batzuetan soilik? Zer irizpide hartu zuten udalerrri bat *eremu euskaldunean* edo *mistoan* sartzeko? Ez dakigu, baina ikus dezagun, Finlandian adibidez, zer irizpide hartu zuten. Finlandian suomiera eta suediera dira hizkuntza ofizialak, nahiz eta suedieradunak finlandiarren %5,6 baino ez izan. Finlandian udalerrri batean administrazio eta hezkuntza esparruetan elebitasuna ezarri eta herritarren hizkuntz eskubideak babesteko honako irizpide hau hartu zuten: hizkuntz gutxiengoa herritarren %8 izatea, edo zenbaki absolutuetan 3.000 lagun baino gehiago izatea. Ez dakigu zer irizpideri segitu zioten Nafarroako legegileek baina, garbi da, Nafarroan euskaldunen hizkuntz eskubideekin Finlandiako legegileek bezain arretatsu jokatu izan balute, zedarritu zutena baino askoz ere zabalagoa izango genukeela Nafarroako *eremu euskalduna*. Iruñea bera ere *eremu euskal-*

duntzat hartuko zatekeen, eta horrek, ikusiko dugun bezala, Nafarroako ofizialtasunari bestelako garapena eman ziezaiokeen.

Laugarrenik, legeak zedarritutako *eremu euskaldun*ean 1986ko Nafarroako populazioaren %11 baizik ez zen bizi, egun portzentaia apalagoa da (%9,81. Nafarroako Gobernua, 2004³⁴). *Eremu euskaldun* hori mendialdeko 61 udalerrri txikiz osatuta dago, horietarik bat bera ere ez da 10.000 biztanle izatera iristen, areago, lautik hiruk 1000 biztanle baino gutxiago ditu. Nagusiki nekazalgo herriak dira, abeltzaintzakoak batez ere, industriak orokorrean indar handirik ez duela. Mendialdeko eremu horrek Nafarroako hiriburuarekiko (edo Gipuzkoako mugako hiriekiko) zerbitzu morrontza handia du. Izan ere, administrazio zerbitzu nagusiak, ospitaleak, unibertsitateak, epaitegiak, hedabide nagusiak, zerbitzu pribatu asko, e.a. ez daude *eremu euskaldun* horretan, Iruñean baizik, gehien-gehienak. Beraz, errealitatea da bazterreko *eremu euskaldun* horretarako mugatutako ofizialtasuna ezin dela gauzatu, ofizialtasuna gauzatzeko nahitaezko zerbitzu publikoak eremu horretatik kanpo baitaude, hiriburuan, eta orduko legegileek, jakinki nafar guztientzat zerbitzuak eman behar dituela, ez zioten hiriburuari estatus elebidun berezirik eman. Belgika hartzen badugu, adibidez, ikus dezakegu bestelako tratamendua eman ziotela hiriburuari, belgikar guztientzako zerbitzuak ematen zituela kontuan hartuta, estatus elebiduna eman baitzioten (Álvarez, 1990; Buyle, 2000).

Bestalde, Nafarroako Parlamentuak legea onartu baino lehen zenbait aldaketa egin zuen legearen ziriborroan: *impulsar* agertzen zen tokian *proteger* idatzi zuten, *euskera* beharrean *vascuence* (Cobrerros, 1989; Zabaleta, 1990). Azkenean, Parlamentuak onartutako testuari izaera murriztailea atzeman diote egile ezberdinek:

«Gogorra da, besteak beste, euskararen zabalkundeari buruz ziren aipamenak, fomentoari buruz alegia, kenduak izatea Parlamentuan, horrek adierazten duen borondate politikoa euskarak ez dezala aurrera egin bait da, eta gehiago oraindik, euskarak ez ditzala, askotan injustiziaz eta zapalkuntzaz, galdu dituenak eskura berriro» (Zabaleta, 1990, 123 orr.).

Legearen edukinean sartuta, ikus dezagun zein ezinbesteko helburu ezarri zuen Legeak (1.2 artikuluan):

- a) «Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea.

³⁴ Nafarroako Gobernuaren azken datuen arabera (2004), Nafarroako populazioa honela banatzen da 18/86 Foru Legeak zedarritutako hizkuntz eremuetan: %9,81 *euskaldun*ean, %53,94 *mistoan* eta %36,25 *ez euskaldun*ean.

- b) Euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz.
- c) Euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarraiki, hau guztia Nafarroako errealtate soziolinguistikoaren arabera.»

Bere 2.1 artikulua honako hau dio: «*Gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza berekiak dira eta, horren ondorioz, herritar guztiak dute jakin eta erabiltzeko eskubidea*»

Eta 3.1 artikulua: «*Botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntzagatik hiritarrak gutxietsiak izan ez daitezela*».

Beraz, argi dago zein diren Euskararen Foru Legeak, euskarari dagokionez, ezartzen dituen helburu nagusiak, nahiz eta gero legeak berak egiten duen zonifikazioa (5. art.) guztiz kritikagarria izan Nafarren arteko bereizkeria eta herritarren eskubideen urraketa ekarri baititu. Izan ere, euskararen ofizialtasuna, lurralde edo eremu zehatzetara bakarrik mugatzen du. Ondorioz, Nafarroako herritarrek ez dituzte hizkuntz eskubide berbeak lurralde osoan. Horren ondorioz, hainbat egoeratan, hezkuntzan esate baterako, euskaraz eskolatua izateko aukerak oso desberdinak dira eremuen arabera. Euskararen Legeak ezarritako eremu ez euskaldunean, irakaskuntza publikoan ez dago ikasketak euskaraz egiteko aukerarik eta Legeak eremu mistotzat hartzen duen horretan ikasleei euskaraz ikasteko eskubidea onartzen badie ere, hura aplikatzean ezarritako ratioak, gutxienez 20 ikasle talde bat osatzeko, zailtzen du eskubide hortaz baliatzea. Beraz, euskarak sustapen gehien eskatzen duen lekuetan jartzen zaizkio oztoporik handienak.

Ez gara gehiago luzatuko Nafarroako Euskararen Legearen zer-nolak aipatzen. Egile ezberdinek lege horren izaera murriztailea azpimarratu dute (adibidez: Cobreros 1989, Zabaleta 1990, Monreal 2001, Rodríguez 2001 eta 2002), eta guk, geure aldetik, agerian utzi nahiko genuke lege horrek, dudarik gabe, bere ondorioak izan dituela, Nafarroako euskal hizkuntz komunitatearen hazkunde ezan. 18 urtetan arunt gutxi mugitu da Nafarroan euskaraz ongi egiten dutenen portzentaia: 1986an %10,15, 1996an %10,9 (Nafarroako Gobernua, 1999) eta 2003an %11,8 (Nafarroako Gobernua, 2004).

Nafarroako euskaldunak oso banaketa ezberdina dute hizkuntz eremutan: eremu euskaldunean ia herritarren %75ek ezagutzen dute, gutxi-asko, euskara. Eremu ez euskaldunean, berriz, portzentaia %8ra jeisten da. Adinak eragin handia du, nafarrek, zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta euskaldun portzentaia altuagoa dute (Nafarroako Gobernua, 2004). III. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera:

«Euskararen bilakaera positiboa da hizkuntza-gaitasunaren ikuspegitik: euskaldunak gero eta gehiago dira euskaldun berriak ugartzen ari direlako (...).

Bestalde, euskal hiztunak motel-motel irabazi arren, galerak oraindik irabaziak baino handiagoak dira. Izan ere, euskara galdu dutenak (20.500) ikasi dutenak baino gehiago dira Nafarroako legediaren arabera antolaturiko hiru eremuetan. Hala ere, alde handiak daude euren artean. Gunea zenbat eta erdaldunago galerak ere orduan eta handiago: eremu euskaldunean euskara lehen hizkuntza izan duten biztanleen %17k ahaztu du, guztiz ala partez, eremu mistoan %64k eta eremu ez euskaldunean %74,7k.» (Eusko Jaurlaritza, 2003).

Bestalde, lege murriztaileak euskal hizkuntz komunitatearen hazkunde ezan ez ezik, nafar euskaldunen hizkuntz eskubideen egoeran ere bere eragina izan du:

«...euskararen legean dagoenaren ondorioz, ez direla eskubideak edo nahi baduzue herritarren edo pertsonaren eskubideak, baizik eta tokian tokiko ahalak, edozeinentzat, nongo herritarra den begiratu gabe, non dagoen besterik kontuan hartu gabe. Ez dira eskubideak, pertsonen eskubideak, baizik eta eremu batzuetan edo besteetan dauden egituraketak edo zuzenbideak eta han dagoenak edo han dagoenean edonork edo norbaitek han dagoen bitartean eskura ditzakeenak» (Zabaleta, 1990, 113 orr.).

Hizkuntz eskubideen murrizketak

1986an onartutako Euskararen Foru Legea murriztailea bazen, are murriztago utzi dute euskararen erabilera ofizialaren aukera legearen garapenerako indarrean sartutako ondoko arauak, administrazio publikoetan batez ere. Izan ere, euskararen indartzea bilatzen ez duen Administrazioak aitzinamenduak ez ditu begi onez ikusi eta horiek alde edo moldez galgatu eta etetera jo du.

«Mugak muga eta oztopoak oztopo, 1986az geroztik —Nafarroan euskara hizkuntza ofiziala zela lehenbiziko aldiz onartu zenetik—, euskararen errekupezioak abiada nabariagoa hartu zuen eta lortutako emaitzak, ez bairik gabe, legegileek eta ondotik izandako Gobernuen arduradunek nahi eta uste baino emankorragoak izan dira, gizartea bera izan delako eragile eta bultzatzaile» (Iñigo, 2001).

Aipamen berezia merezi du Nafarroako euskararen gutxiagotze instituzionalari hasiera eman zion Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 372/2000 Foru Dekretuak, abenduaren 11koak.

372/2000 Foru Dekretuaren ondotik, Nafarroako Gobernuak orduan bitarteko hizkuntz eremukatzea praktikan desagerrarazi zuen, *eremu mistoa eremu ez euskaldunaren* parekoa bihurtu zuela. Aipatutako Dekretu horren bidez, Nafarroako Gobernuak administrazioaren jardueran gaztelania ezarri zuen premiakotzat. Ondorioz, erakunde publikoek herritarrei zuzentzen dizkieten jakinarazpen dokumentu, iragarki, informazio bai eta ibilgailuen errotulazio, inprimaki eta abarrak gaztelaniaz izango dira. Areago, dekretuaren 22.1 artikulua dioenari erreparatzen badiogu:

«Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako administrazio publikoak ez daude inolaz ere behartuta euskaraz jakitea nahitaezko kalifikatze-
ra beren plantilletako lanpostuak bete behar dituztenean, euskara-
gaztelania itzulpen lanekoetan izan ezik».

Horrelako esaldi batek garbi adierazten du zein den legegilearen asmoa, zein dekretuaren helburua. Herritarren hizkuntz eskubideak eta berezko hizkuntza urtez gutxiagotu baten babeserako Administrazioaren betebeharra zein den arautu beharrean, Administrazioa zer egitera ez dagoen behartuta zehazten du. Dekretu berriak ekarri zuen murrizketaz gehiago irakurtzeko ikusi Anaut (2000).

372/2000 Foru Dekretuan oinarriturik, Nafarroako Gobernuak bi ekin-tza plan onartu zituen, *eremu mistorako* bat (2001eko urtarrilaren 8ko Erabakia³⁵) eta *eremu euskaldunerako* bestea (2001eko otsailaren 5eko Erabakia³⁶). Biek oraindik murriztago utzi zituzten herritarren hizkuntz eskubideak. Adibidez, honako hau ezarri zuen, *eremu mistorako* egin-dakoak, seinalizazio, errotulu eta zigilu ofizialei buruz (Eranskinaren 3.1 puntua):

«Lehenbailehen behar diren pausuak emanen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen eraikuntza, egoitza, bulego, langela eta beste edozein lokale-tako fatxadetako errotuluak gaztelania hutsekoak izan daitezen. Prozedura bera erabiliko da seinalizazio eta identifikazio elementu guztiekin. Esandakoa betetzen ez dutenak berehala kenduko dira.»

Eta honako hau ezarri zuen herritarrek eska dezaketen euskarazko ahozko harrerari buruz (4.3):

«Giza baliabide egokiak dauden unitate organikoetan, kontseilari arduradunak baimena eman lezake euskarazko atentzioa eskatzen duen herritarrari halakoa emateko.»

³⁵ 2001eko urtarrilaren 19ko *Nafarroako Aldizkari Ofizialean* argitara emana.

³⁶ 2001eko otsailaren 14ko *Nafarroako Aldizkari Ofizialean* argitara emana.

Nafarroako gizarte eragile ezberdinek (elkartek, sindikatuek,...) bai eta toki entitate anitzek 372/2000 Foru Dekretuari helegiteak tarteratu zizkioten. 2002ko ekainaren 26an, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak (NJANK) emandako epaiek lehendabizi *eremu euskalduneko* ekintza plana eta gero dekretua bera guztiz baliogabetu zituen, forma akatsak zirela eta. Horren ondotik, *eremu mistoko* ekintza plana ere baliogabeturik gelditu zen. Dekretuaren legezko kontraktasunaz azterketa juridikoa irakurtzeko ikusi Agirreazkuenaga (2001).

Baina, NJANK 372/2000 Foru Dekretua eta haren ondoko ekintza planak legez kontraktatzat jo bazituen ere, Nafarroako Gobernuak horien egikaritzeari jarraitu zion, alde batetik, aipatu epaiak heleginez eta, hala eginda, epaien irmotasuna ekidinez eta, beste aldetik, Foru Dekretu berria indarrean jartzeko beharrezko izapidetzak eginez. Azkenean, 2003ko otsailaren onartu zuen 29/2003 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duena, baliogabetutako 372/2000 Foru Dekretuaren eduki ia ber-bera duena. Foru Dekretu berri (edo zaharberri) horren kontra ere helegite anitz tarteratu zituzten Nafarroako gizarte erakunde eta toki entitateek.

2004ko maiatzaren 20an, NJANK 29/2003 Foru Dekretuaren kontra helegite batzuen epaia eman zuen. Horren arabera, zenbait artikuluzuzenbidearen kontrakoak izateagatik baliogabetuta gelditu ziren, hain zuzen ere, ondoko hau ezartzen zutenak: Administrazioa sartzeko lanpostuetan euskara Europako hizkuntza batzuen arabera baloratzea, euskara jakitea eskatzen zen lanpostuetan ari diren langileek gisa bereko lanpostuetan soilik aritu ahal izatea eta *eremu euskaldunetik* kanpo dagoen administrazioek eremu horretako herritarrei jakinarazpenak gaztelania hutsez igorri ahal izatea (15.1, 18.3, 21.1 eta 23.1 artikulua).

Bada beste arau bat argi aski erakusten duena Nafarroako Gobernuaren hizkuntz politikaren izaera murriztailea: 203/2001 Foru Dekretua, uztailaren 30ekoa³⁷, Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillan zein lanpostu diren euskara jakin beharrek (Hezkuntza eta Kultura Departamentuko irakasleak kanpo direla) eta zer jakite maila behar duten ezarri zuena. Nafarroako Gobernuak bere plantilla organikoko lanpostu elebidunak murriztu zituen: aurreko plantillan 234 lanpostu ziren eta aipatu Foru Dekretuak onartutako berrian 153. 13.000 inguru langileko plantilla batetik 153 lanpostu publiko elebidun. Ehundik bat.

Behatokiak bere txostenetan anitz kexa bildu ditu Nafarroako Gobernuari eta haren erakunde autonomiadunei zuzenduak (2002a, 2003a,

³⁷ 2001eko irailaren 10eko *Nafarroako Aldizkari Ofizialean* argitara emana.

2004). Kexa gehienek Nafarroako Gobernuak 372/2000 Foru Dekretuaren bidez garatzen hasia zuen hizkuntz politikarekin dute zerikusia: gaztelania hutsezko inprimakiak, informazio publikoa, errotulazioa, bide seinalizazioa, ..., hots, elebitasun instituzionalaren oinarriko jardunbideak. Ildo horretatik, NJANK 372/2002 Foru Dekretua legez kontrakoa zela epaitu zuela kontuan izanik, aipatu eginbideek lege urraketa izaera dute. Gainera, ikusi ahal izango dugun bezala, kasu batzuetan, Nafarroako Gobernuak aipatu dekretuak ezarritakoa baino haratago jardun du.

Kexa batzuk euskara ahoz erabili ezin izanaren ingurukoak dira, baina gehien-gehienak, berriz, euskararen erabilera idatziaren gainekoak dira, arestian esan bezala: inprimakiak, jakinarazpenak, iragarkiak eta informazio publikoa, bide seinaleak eta errotulazioa, toponomia,... Beraz, garbi dago kexek agerian uzten duten sistematikotasuna: alde batetik, euskararen erabilera idatziari loturik daude, eta bestetik, errepikatu egiten dira. Herritarren kexek behin eta berriz berretsitako jardunbideak direla frogatzen dute. Orokorrean, guztiek dituzte larritasun zantzuak, herritarren hizkuntz eskubideak sistematikoki urratu eta murrizten dituen hizkuntz politika baten adibideak baitira.

Alde batetik, kexa kopuru hori hizkuntz eskubideen alorrean Nafarroako Gobernuaren politikak ekarri duen murrizketa eta legezko atzera jotzearen isla da: lehen herritarrei ematen zitzaien dokumentazioa edo inprimakiak ele bietan egoten ziren, orain gaztelania hutsean; edo lehen ele bietan egoten zen errotulazioa orain gaztelania hutsean jarri dute; edo lehen bide seinaleetan euskarazko izendapena duten toponimoak gaztelaniaz eta euskaraz idazten bazituzten orain gaztelania hutsean egiten dute. Nafarroako Gobernuak euskararen erabilera murriztu eta zenbait kasutan desagerrarazi du eremu publiko instituzionalean. Izan ere, lege murriztaileak praktikan Nafarroako *eremu mistoa* ezabatu du eta *eremu euskalduneko* eskubideen atzerakada nabaria ekarri du, eta beraz, herritarrei aitortutako hizkuntz eskubideak galtzea.

Bestaldetik, Nafarroako Gobernuak ez du betetzen indarrean dagoen legediak ezarritako koofizialtasuna eta nahikoa usua da Foru Gobernuak *eremu euskalduneko* gaztelania hutsezko dokumentazio ofiziala igortzea edo nafar guztiei, hots, modu indiskriminatu batean, banatzen dien informazioa, edo nafar guztien interesekoa dena gaztelania hutsean hedatzea. Herritarrek Behatokira helarazitako kexek garbi adierazten dute Nafarroako Gobernuaren hizkuntz politikaren jardunbideek Europako Kontseiluko EGHEIren eta Gutxiengo Nazionalak Babesteko Hitzarmen Markoaren aurka jotzen dutela. Are gehiago, Nafarroako Gobernuaren jardunbideak, LORAFNAk, bere 9. artikuluan ezarritakoa eta horren garapen gisa emandako 18/1986 Euskararen Foru Legeak jasotakoaren

aurka doan araudian oinarritzen dira. Garbi dagoena da aipatu 372/2000 (gero 29/2003 bihurtu den) Foru Dekretuak, bere edukian, Euskararen Foru Legeak ezarritako helburu horien aurka jotzen duela bete-betean, nahiz eta Foru Dekretuaren aitortutako xedeetan bestelakorik esan. Foru Dekretuaren eta horren ondoren emandako araudiaren azken ondorioa Euskararen Legeak jasotakoa betetzea ezinezkoa bihurtzea da eta lege hark berak zedarritutako *eremu mistoa*, praktikan *eremu ez euskalduna* bihurtzea, Euskararen Legeak berak *eremu mistorako* zein *eremu euskaldunerako* xedatutakoa urratuz.

Oso esanguratsuak dira Herrilan, Garraio eta Komunikazioen Departamentuak harturiko neurriak, bide seinaleen aldaketak Nafarroa osoan barrena gertatu baitira, gaztelania hutsezko seinaleak, *eremu misto* eta ez *euskaldunean* ez ezik, *eremu euskaldunean* ere jarri ditu. Zenbaitetan, bide seinaleetatik legez ofizialdutako euskal toponimoak desagerrarazi ditu: «Pamplona», «Estella» edo «San Sebastián» gaztelaniazko izendapenak soilik idatzi ditu, «Iruña», «Lizarra» edo «Donostia» toponimoak bide seinale ofizialeetan ez idatziz.

Iruñeko kasuan, adibidez, udalaren jarrerak atentzio berezia ematen du, Nafarroako Administrazio Auzitegiak (NAAk) emandako epai ezberdinek Iruñeko Udalaren jardunbidea ez legezkotzat jo baitute Iruñeko Udalaren esparruan euskararen erabilpena eta sustapena arautzen dituen Ordenantzak (1997ko irailaren 12an onartuak) ezarritakoaren kontra jotzen duela esanez. Hori horrela, NAAk Iruñeko Udala jakinarazpen eta komunikazio publiko oro ele bietan argitaratzera behartu zuen. Oro har, Iruñeko Udalaren irudi instituzionalean eta herritarrekiko jardunbideetan euskararen erabilera atzera jotze nabaria gertatu da azken urteotan: Udalaren armarrria, logotipoa eta izen ofizialaren erabilpena gaztelania hutsean, elebiko dokumenturik ez luzatzea, gaztelania hutsezko kale izenen errotulazioa edo gaztelania hutsezko udal informazioa. Horrek denak herritarren hizkuntz eskubideen urratze sistematikoa uzten du agerian. 2003an Iruñeko Udalak 1997an indarrean jarritako Euskararen Udal Ordenantza legez murrizteari ekin zion.

Nafarroako euskaldunak euren hizkuntz eskubideen murrizketaren aurrean

Euskaldunon Egunkariak 2001 urteko bere urtekarian «*Annus horribilis*» lerroburua jarri zion Nafarroako euskararen gora-beheren berri ematen zuen atalari: legezko murrizketak, hizkuntz politika baztertzailea, euskararekiko gutxiespen eta arbuio instituzionalak,... Nafarroako eta Euskal Herri osoko hedabideetan bere tokia hartu zuen Nafarroako Administrazioak euskararen kontra hasia zuen oldarrak eta hainbat artiku-

lu, mahai-inguru eta elkarrizketatan euskalgintzako kideek euren iritziaik eta ikusmoldeak plazaratu zituzten.

Euskaldun *erreferentzial* horietako gehien-gehienek eraso gisa konzeptualizatu dute Nafarroako Gobernuak herritar euskaldunen eskubi-deen kontra abian jarritako hizkuntz politika murriztailea:

«Nafarroako euskaldun gehienak abailduta sentitzen gara azken garaioan eta baditugu honela egoteko arrazoiak; izan ere, oraindik txikiak eta botere gutxidunak, eraso handia jasotzen ari baikara, zorigaitzoko egoera sozial eta politiko bati probetxua atereaz, erdal kultura eta irakaskuntzaren munduaren eragile sozial batzuen aldetik eta zenbait alderdi politiko eta Instituzioetatik» (Iñaki Azkona, *Larrun*, 2000, 22 or.).

«Erasoa etorri da eta gordinkara dator juridikoki» (Iñaki Camino, *ibid.*, 18 orr.).

Euskaldun horien iritziz murrizketa instituzionalak Nafarroan azken urteotan euskarak izan duen aitzinamenduaren aurreko erreakzioak dira: Nafarroan euskararen indartzea begi onez ikusten ez duen Administrazioak euskararen zabaltzeari jarri dizkion galga eta mugak.

«Boterean ziren batzuek apustu garbi bat egin dute: berez zaila den normalizazio prozesua itotzea, eta gaur egun gertatzen ari diren hauek ez dira kasualitate hutsa.

Beraiek gertatzen ari denaren azterketa errealista egiten dute. Badugu euskararen aldeko mugimendu erakargarria, irakaskuntzako D eredu eta ikastolak alternatiba erakargarria dira guraso askorentzat. Hori errealitatea da eta boterean daudenek ikusten dute hori (...) Boteretik zera pentsatzen da, "hau eskuetatik joan dakiguke", eta horregatik une honetan aurrerapen hauek oztopatzerara datozen neurri hauek guztiak» (Iñaki Lasa, *ibid.*, 9 orr.).

«(...) euskararen presentzia gero eta nabariagoarekin kaltetuak edo beldurrez sentitzen diren gizarte sektoreak: unibertsitate eta hezkuntza egituretako partaide zenbaiten jarrera litzateke horren adibide argigarria. Euskararen adozein aurrerapena arrisku politiko bezala ikusten dutenak ez ditut aipatu, hor daude betidanik, ez dira berriak» (Iñaki Azkona, *ibid.*, 22 orr.).

Gehienak bat datoz Nafarroako Gobernuan dagoen Unión del Pueblo Navarro-UPNren erasoan jomugarik garrantzitsuenetakoa D eredu dela aipatzean:

«D ereduaren igoera geldiarazi edo jaitsiarazi nahi dute eta horretarako gizarteari ikusarazi nahi diote euskarak ez duela ezertarako balio» (Jon Alonso, *Argia*, 1.799. alea, 2001eko martxoaren 11koa, 18-19 orr.).

«Gobernua oso kezkatuta dago D ereduko matrikulazio datuekin. Administrazioan hartutako erabakiekin euskaraz ikasteko instrumentu garrantzitsu bat kaltetzen da: motibazio praktikoa. Finean, euskarari balio eta prestigioa kenduz, gurasoek pentsa dezakete “zertarako bidaliko ditut seme-alabak D eredura, ez badu ezertarako balio, ez badio lan bilatzen lagunduko?”» (Isidro Rikarte, *ibid.*, 19 orr.).

Nafarroako hizkuntz komunitateak bere buruaren pertzepzioa duen subjektu gisa dagerkigu. Autopertzepzio horretan bere ahuldade eta indarguneen jabe da eta, batez ere, bere gogo eta nahiaren kontzientzia du: Nafarroako euskaldunek gizartearen alor guztietan euskarari lekua zabaltzeko bidean aitzin egin nahi dute.

«Lan egin beharko da, ongi, anitz, eta orain berean; irudimena beharko dugu hizkuntza alderdi guztietatik bultzatu, bersortu eta berpizteko, lehen ere beste batzuek egin duten bezala. Ehunekotan lehen gehiago ziren euskara zekiten nafarrak eta gutiago honen aldeko lan esplizituan zihardutenak; egun gutiago dira hiztunak, baina lehen baino anitzez gehiago lanean ari diren era guztietako euskaltzaleak» (Iñaki Camino, *Larrun*, 2000, 18 orr.).

Euskararen gutxiagotze instituzionala eta haren diskurtsoa

Nafarroako Gobernuaren jardunbide murriztailea begi-bistakoa da (Barandiaran, 2003; Kasares, 2002b; Mendoza, 2003a, 2003b). Nafarroako Gobernua bera da nafarrek euskararekiko dituzten eskubideen murrizketaren eragile nagusia. Nafar euskaldunen eskubide urraketa sistemati-koa da.

Nafarroako Gobernuak euskararen gutxiagotze instituzional neurri-gabea jarri zuen abian eta hura estrategia pentsatua izan zen, kalkulatu, ez arratsetik goizera berehala asmatua. *Orain artioko hizkuntza politika gehiegi izan da eta Nafarroako gehiengo diskriminatzen du* esaten hasi zen Nafarroako Gobernuburua. Hortik euskara dagokion lekura berriz eramateko saioak etorri ziren *euskaldunak gutxiengo bat baitira Nafarroan eta ez baitagokie gazteleradunen eskubide berberak izatea. Izan ere, euskara ez da nafar guztien eskubidea, soilik ama hizkuntza dutenena, hots, mendialdeko nafarrena. Areago, euskara sustatzearen atzean Nafarroaren identitatea arriskuan jartzen duten interesak daude; horregatik, euskara aldarrikatzen duten nafarrak ez dira fidatzekoak. Gainera, honez gero euskara normalizatuta dago Nafarroan eta euskaldunen egoera normala da. Orduan, Nafarroako hizkuntz politika ofizialak diru publikoa atzerriko hizkuntzen aztertzeke eta sustatzeke erabiltzea zilegi da* (Kasares, 2003).

Halakoak hasi ziren entzuten Nafarroako politikari eta Gobernuko goi karguen ahotik. Gutxiagotze instituzional horrek bere diskurtsoa eraiki zuen, euskarak Nafarroan egina zuen aitzinamendua galgatzeko, gelditzeko (Kasares, 2002b; Vilches, 2002):

«Euskararen nolabaiteko gizarte-sendotze egoeraren aurrean (gaztazkarik eza eta azken urteotan hiztunen hedapen objetiboa), Nafarroako botere politikoak, gizarte mailako estatika konformista aprobetxatuz, aldaketarako ekimena hartzen du. Eremu ofizialean hizkuntzaren presentzia mugatzeko lege ekimen murriztaileak bultzatu dira eta beste esparruetan gero eta gutxiago egiten da. Horrekin batera, gizarte mailan euskararen presentziaren aldeko diskurtsoa deuseztatzeko kontradiskurtsoa eratu da (...) gizarte aurrerapena botere politikoaren ildotik geldiarazi nahi dutenek euskararen aldeko balioen euskarri guztiak, banan-banan, hustutzera bideratu dute» (Vilches, 2002, 132 eta 134 orr.).

Eta Xabier Erizek agerian utzi duen bezala, euskararen «normalizazioa» delakoaren kontrako diskurtsoak hizkuntz errealtatea aldatzeraino iritsi da: Nafarroaren hizkuntza politika aldatu du, «euskararen normalizazioa» kontzepzioa abertzaleen gatibutzat eta gazteleradunen bazterzaitetzat joaz (Erize, 2001).

Herritar euskaldunen hizkuntz eskubideen murriztea zilegi egiten duen diskurtso instituzional horrek bi xede nagusi ditu, gure iduriko:

1. *Euskararako motibazio pragmatikoa ahultzea.* Euskaldunen hazkunde demografikoa gelditu nahi dute. Euskarazko irakaskuntza eta euskalduntzea dira hazkunde horren irabazien sorburua. Zenbait kasutan, euskararekiko atxikimendu horren arrazoia pragmatikoa izan daiteke: hainbat nafarrek euskara ikastea edo seme-alabak euskarazko eredueta eskolatzea erabakitzen dute euskara jakitearen abantaiak bultzaturik, gaztelania eta euskara ezagutzearen balio instrumentalez sinetsirik. Motibazio horiek euskararen balio soziala azpimarratu eta elikatzen duen politika batek mantentzen ditu eta Nafarroako Gobernuaren erabaki anitzek motibazio pragmatiko horiek ahuldu eta ito nahi izan dituzte: dekretuz Administrazioan sartzeko probetan euskararen beharra murriztea eta haren balorazioa txikitzea; irakaskuntzaren eredueta curriculumetan eragindako aldaketak (Iruñeko zenbait ikastetxe publikotan legeak aurreikusten ez duen gaztelera-ingelesa ikasteredua eskaintzen dute eta eremu mistoan D ereduko gela bat zabaltzeko ikasleen ratioa handitu dute); hedabideei diru laguntzak emateko momentuan erdazkoak euskarazkoak baino hobeki saritzen ditu; Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUPen) euskara ikasketa ofizialetako mamia

diren ikasgaietan erabiltzea debekatzen zuen lege proiektua, UPNk prestatua³⁸... Erabaki horiek asmo garbia dute: euskararen balio soziala eta prestigioa gutxitzea, euskara ez dadila izan abantaila soziala eta ez dezala motibazio pragmatikorik piztu. Euskara nahi dutelako ikasten duten nafarrek jakin dezatela euskara jakiteak ez diela abantailarik emango eta ikasteak ez dituela bihurtuko zerbitzu publikoak hizkuntza horretan hartzeko eskubidedun.

2. *Euskararako motibazio identitarioetarako lekurik ez uztea.* Euskara Nafarroaren irudi instituzionaletik ezabatu dute: hiriburuaren izendapenaren erabilera ofiziala, papereria eta errotulazio ofiziala, bide seinalizazioa, informazio instituzioanala ematen duten webguneak, ordezkari instituzionalen adierazpenak,... Instituzionalki Nafarroa elebakarra da eta hala hedatzen eta islatzen du nonahi Nafarroako Gobernuak. Nafartasunak ez du euskalduntasuna biltzen, areago, kontrajarrita baleude bezala azaltzen ditu. Euskararen aldarrikapena eta eskakizuna politikoki ez zuzena den jarrera politiko-zibikoa da: gutxiengo batena, marjinala, nafartasunaren mehatxagarria, fidatzekoa ez dena, susmopekoa, gatazkatsua eta bake soziala hausten duena. «*El euskara es un elemento exógeno a la Universidad, (...) genera confrontación (...) distorsiona el ambiente*» esan zuen Jesús Laguna Hezkuntza Kontseilariak euskara NUPen nola ikusten zuen azaltzeko. Hortik dator hizkuntz politikaren ekintzak, bitartekoak eta diru publikoak euskarari soilik ez lotzearen asmoa, eta euskara atzerriko hizkuntzen pare eta haien balioa sozialaren azpian ere uztearena. Hortik dator euskararen erabilera diru publikoz bermatu beharra ez balute bezala jokatzea. Euskara nork bere saketetik ordaindu beharreko nahiera bailitzan. Bestalde, egun Nafarroak populazio etorkina jasotzen du (honezkero, nafarron ia %5a da). Horrek, nafar euskaldunak portzentualki gero eta gutxiago izatea ekarriko du eta Nafarroako Gobernuak eta erdararen interesekin bat egiten duten denek probestuko dute haien diskurtsoan: Nafarroako euskaldunak portzentaia txiki bat baino ez dira. Arrazoi kuantitatiboak oinarri hartuta murrizketa gehiagoren bidea irekiko dute, Nafarroan euskara eta euskalduntasuna gutxi-gutxiengo baten hautua baino ez dela argudiatuz, eta Europari

³⁸ Nafarroako Gobernuak NUPen euskararen erabilera arautzeko lege proiektua prestatu zuen. Gobernuaren lege proiektuaren lehen artikulua honela zioen: «*La Universidad Pública de Navarra impartirá exclusivamente en castellano o español la docencia de todas las asignaturas que figuran o figuren en sus planes de estudios conducentes a la obtención de títulos universitarios de carácter oficial y validez en todo el territorio nacional, homologados por el Consejo de Universidades o, en su caso, el Consejo de Coordinación Universitaria.*» UPNk ez zuen aski babesba bildu lege proiektua Nafarroako Parlamentuak onar zezala.

begira dagoen Nafarroa kulturantza osatzen duten kultura txiki guzietan bezala —esango dute— izatea badute, baina horretarako ez zaie gehien-goaren diru publikoa emango (Kasares, 2003).

Euskararen kontrako hizkuntz politikaren gaitzespenak

Nafarroako euskaldunen hizkuntz eskubideen murrizketa instituzionalak bertako, Euskal Herri osoko nola nazioarteko gizarte erakunde ezberdinen gaitzespenak bildu ditu. Nafarroan ugariak izan dira herri-tarren mobilizazioak, agerraldiak eta manifestazioak (bai eta auzitegirazteak ere).

Nafarroako nola Euskal Herri osoko gizarte erakunde ezberdinak (Oinarriak, Kontseilua, Behatokia³⁹, EHE, Euskara Kultur Elkargoa,...) agertu dira Nafarroako hizkuntz politika ofizialaren kontra. Euskaltzaindiak (2001) bere gaitzespen ofiziala egin zuen eta Nafarroko toki entitate ezberdinek ere euren ezadostasuna (batzuetan indarrean jarritako arau murriztaileen kontrako helegite gisa) agertu dute. María Jesús Aranda Lasheras Nafarroako Arartekoak ere legeak jasotzen duen elebitasun instituzionala betetzeko gomendio ezberdinak egin izan dizkie Nafarroako Gobernuari eta Iruñeko Udalari.

Nazioartean, *European Bureau for Lesser Used Languages*-EBLUL erakundeak bitan gaitzetsi du Nafarroako hizkuntz politika instituzionala⁴⁰, Nafarroako Gobernuarena eta Iruñeko Udalarena. Izan ere, egun Nafarroa Europaren kontraeredua da: «*the first substantial regression of policies for regional minority languages in EU Member State*»⁴¹ EBLULeko presidentek definitu zuenez.

2004ko urtarrilean EBLULek Nafarroara egindako bisitaren gaineko txostena aurkeztu zuen. Merezki du ikustea zein izan zen erakunde horrek Nafarroako euskararen egoeraren gainean egin zuen balorazioa:

«Euskarak Nafarroako Foru Komunitatean duen egoera oso kezagarria da. Izan ere, euskarari espazio askotan garatzea galarazten zaio, gizartearen eskaerak bestelakoak izan arren: adibidez, gaztelania unibertsitateko hizkuntza bakar gisa ezartzeko ahaleginak, estatutuek elebitasuna onartzen badute ere; eremu ez-euskaldunean

³⁹ Behatokiak txosten monografiko dokumentatua egina du Nafarroako euskararen gutxiagotze instituzionalaren gainean (Behatokia, 2003b).

⁴⁰ www.eblul.org. *Basque resolution, 03/02/2001* eta *13/09/2003*, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren hizkuntz politikak gaitzesten dituztenak.

⁴¹ Egilearen itzulpena: «Lehenbiziko atzerapen garbia erregioetako gutxiengo hizkuntzen politiketan Europako Batasuneko kide den estatu batean.», www.eurolang.net/news, 2001eko abendua.

egoteagatik ikastola batzuk legez kanpo egotea; Parlamentuaren aginduak ez betetzea, oztopo administratiboen bidez; Nafarroako biztanle guztiei arreta ematen dien Foru Administrazio Nagusitik administrazio-zirkuitu elebidun guztiak desagerraraztea; euskara eta erkidegoaren hizkuntzetako baten bat parekatzea (azkena lurraldearen jatorrizkoa ez dela, jakina); bide-paisaia eta publizitatearen arloan erakunde publikoek burututako elebitasunaren murrizketa; administrazio-baldintzak sortzea, lehen bazterten ez zena baztertzeko; Nafarroako Foru Komunitatearen eremutik kanpo euskararen normalkuntzaren alde lan egiten duten beste instituzio eta erakunde batzuekiko lankidetzaren haustura... Horiek EBLUL aztoratzen duten adibideetako batzuk baino ez dira eta Nafarroako Foru Komunitatean gaur egun garatzen den hizkuntza-politika gaitzestera bultzatzen gaituzte.

Egia da ez dagoela hizkuntza-politika perfekturik, lurralde eta gizarte bakoitzak bere berezitasunak baititu. Hala ere, European ezin da onartu hizkuntzaren garapen eta normalkuntza-prozesuan atzera-pausoak ematea, hizkuntza nagusiar bere estatus pribilegiatua itzultzeko asmoz. Hori guztiz onartezina da.

Eskualdeko botere betearazleak eta tokiko botere batzuk euskararen erabilerari buruzko legeak eman eta erabilera hori espazio geografiko jakin batzuetara murrizten ari dira. Jarduera horrek antz handiagoa dauka Ghetto batekin, garapen- eta normalkuntza-politika batekin baino. Gainera, hizkuntza gutxituei buruzko hizkuntza-politikek nagusikeriez eta ospe-galtzeez betetako iraganari aurre egin behar diote. Beraz, hizkuntza gutxitua positiboki bereizten diren politiken ezarpena ez da inoiz hizkuntza normalduaren hitzunaren bereizkeriaztat jo behar. Izan ere, argudio horrek amildegi arrikutsu batera eramaten gaitu, bertan nagusikeria beti saritzen dela. Halaber, normalkuntzarako funtsezko faktorea da tradizioan hizkuntza gutxitu batez hitz egin duen lurraldean hizkuntza hori garatu eta berreskuratzea estutzen duten administrazio-banaketak gainditzea. Gaur egun, hizkuntzaren araberako barneko mugek euskararen ikaskuntza eta erabilerari buruzko eskaera sozialaren bilakaera ahalbidetzen duten politika malguak egotea eragozten dute.

Nafarroako Foru Komunitateak behar bezalako eskumen sistema indartsua du, euskararen erabilera garatu eta normaltzen duten hizkuntza-politika ezartzeko. Izan ere, bere sistema Eskualdeko Hizkuntza eta Hizkuntza Gutxituei buruzko Europako Kartan bildutako gutxieneko baldintzen gainetik dago. Hala ere, azken urteotan ez da hauteman kudeatzaileen behar bezalako borondaterik, politika horiek gauzatzeko. EBLULen, berriz, politika murriztailea eta atzera jotzekoa nabaritu dugu, euskarari dagokionez.» (EBLUL, 2004).

2004ko maiatzean EGHEIren Jarraipen Batzordeko adituek bisita egin zuten Estatura Itunaren aplikazioa nola egiten ari zen lekuan aztertzeko. Nafarroan Gobernuarekin eta gizarte erakunde ezberdinekin bil-

du eta ondoan, Phillip Blair adituen lan taldeko buruak adierazi zuenez, Nafarroan jasotako informazioa kontrajarria zen oso⁴². Ikusteko dago EGHEIren Jarrainen Batzordeak Espainiaren gaineko zer txosten aurkeztuko dion Europako Kontseiluko Ministro Batzordeari.

Bukatzeko, ikusi dugun bezala, azken urteotan Nafarroan herritarren hizkuntz eskubideen murrizketa izan dugu, Nafarroako bertako nola Euskal Herriko hainbat gizarte eragilek salatua eta nazioarteko zenbait erakundek gaitzetsia. Halere, horrek guztiak ez du Nafarroako Gobernuaren hizkuntz politika baztertzailaren aldaketa ekarri eta egun ez dugu elementurik hemendik laburrera ekarriko duela pentsatzeko.

4.3. Hizkuntz eskubideak eremu pribatuan

Euskal Herrian zerbitzu pribatuen arloan ia ez dago hizkuntz araudirik. Halaberean, nazioarteko araudiak ere ezer gutxi aipatzen du horri buruz (ikusi horretarako EGHEIren 13. artikulua). Aldiz, beste administrazio batzuek (Québec, Kataluniak eta Belgikak, adibidez) euren hizkuntz komunitateen eskubideak eremu pribatuan ere arauturik dituzte.

Halere, bada legezko zenbait helduleku eremu pribatuko hizkuntz eskubideei dagokienez: 10/1982 Euskararen Legearen 11. artikulua, garraio publikoei dagokiena edo 86/1997 Dekretuak elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakundeei buruz dioena, biak EAEn; edo Estatu espainiarrean aseguruaren kontratuak arautzen dituen 30/1995 Legea⁴³.

Berrikiago, Eusko Jaurilaritzak 6/2003 Legea, abenduaren 22koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena onartu zuen. Lege horren VII. kapitulu osoa kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntz eskubidei eskainita dago. Honela dio:

«**37. artikulua.** Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak.

Kapitulu honetan ezarritakoarekin eta bertan biltzen diren progresibotasun-baldintzekin bat etorritik, kontsumitzaile eta erabiltzaileek honako hizkuntza-eskubideak dituzte:

- a) Ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzekoa, lege honetako 14. artikuluan ezarritakoaren arabera.

⁴² *Beria*, 2004ko maiatzaren 25a, asteartea, 15 orr.

⁴³ «La póliza del contrato debe estar redactada en todo caso en castellano y, si el tomador del seguro lo solicita, en otra lengua», Ley 30/1995, de 8 de noviembre, de Ordenación y Supervisión de los Seguros Privados, 8. artikulua (6. xedapen gehigarriak aldatua).

- b) Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan kokaturik diren enpresa edo establezimenduekin dituzten harremanetan, ofizialak diren bi hizkuntzatako edozein erabiltzekoa; enpresa eta establezimendu hauek, bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzen dutela ere, zerbitzu egokia eman beharko diete.»

VII. kapitulu horretako gainontzeko artikuluetan ondokoa zehazten da: erakunde publikoek, diruz-lagundutako erakundeek eta interes orokorreko sektoreek kontsumitzaile eta erabiltzaileekin dituzten harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea nola bermatuko duten bezeroarentzako arreta nola egingo den, ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa emateko hizkuntzak zein izango diren eta zer sustapen-jarduketara publiko ezarriko den.

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen lege hori 2004an jarri da indarrean, baina progresibitatearen printzipioaren arabera, bere baitan dituen aginduak ez dira indarrean jarriko agindu horien eragin esparruak erregelamendu bidez arautu arte (Behatokia, 2004). Nafarroan halako lege euskarririk ez dago.

Behatokiak bere txostenetan kexa andana jaso du eremu pribatuari lotuak. Nagusiki erabilera idatziaren inguruko kexak dira eta sistematikotasun zantzuak dituzte. Jaso den kexa kopuruak, horien arloek bai eta herrialde guztietatik bildu izanak ere argi agertzen dute Euskal Herrian eremu pribatuan euskal hiztunei kontsumitzaile gisa ez zaiela inolako hizkuntz eskubiderik bermatzen.

Kexa asko dira denden, merkataritza gunen handien eta zerbitzu pribatuen publizitatearen ingurukoak, gaztelania hutsean egiten dutelako. Dokumentazio idatzia aitatu duten kexen artean asegurueteetan kontratatutako aseguru polizen ingurukoak dira, agian, larrienak.

4.4. **Hizkuntz komunitatea oinarri hartuta: ondorioak eta ekarpenak**

2001eko abenduan Hizkuntz Eskubideen Behatokiak *Euskararen telefonoa* zerbitzua jarri zuen abian. Fundazio horren zuzendaria izan nintzen bi urte eta erditan Euskal Herriko herritarrek milatik gora kexa helarazi zuten zerbitzu horretara. *Euskararen telefonoa* zerbitzuaren bidez herritarrek helarazi zituzten kexek ez ezik, hizkuntz eskubideen urratze egoeraren gaineko etengabeko azterketa egiteak ere bide eman zion Behatokiari egoeraren diagnostika egiteko. Diagnostika horren ondorioak eta hizkuntz komunitatea oinarri izan duen azterketa mota horren ekarpenak dira atal honetan azalduko ditugunak.

Behatokiaren txostenaren ondorioak

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak urtean jasotako kasuak, kasuei emandako bideraketak, gizarte alor zehatzetako hizkuntz eskubideen egoera ezagutzeko egindako azterketak eta egoera hobetzeko abian jarritako jarduerak txosten batean biltzen ditu. 2002 urteko txostenak honako emaitzak eman zituen (Behatokia, 2003a):

1. 2002 urteko txostenak 2001 urtekoak eman zituen ondorio nagusiak guztiz berretsi zituen. Eta berretsi ez ezik, zenbait alorre-tako egoera larriago agertu ere egin zuen.

- a) 2001ean Behatokiak 93 kasu baizik ez zituen landu. Halere, kuantitatiboki gutxi izanda ere, oso kasu adierazgarriak ziren eta guztiz baliogarriak egoeraren azterketa egiteko. Behatokiak bildutako kasuen azterketa kuantitatiboa baino azterketa kualitati-boa eta erlatibizatua hobesten du.
- b) 2002an, berriz, Behatokiak 1.036 kasu aztertu zituen eta horiek denek bide eman zioten aski ongi dokumentatuta zegoen errealitatea xehekiago deskribatu eta baloratzeko.

2. Euskal Herriko herrialde guztietan urratzen dira hizkuntz eskubideak, Iparraldean nola Hegoaldean. Euskal herrian adminis-trazio batzuek estatus ofiziala aitortua diote bertako hizkuntza den euskarari, beste batzuek, berriz, ez. Administrazioek bertako hizkun-tzari ofizialtasun estatusa aitortua izatea eta hizkuntz eskubideak ba-besteko legedia indarrean egotea, ezinbestekoa bada ere, garbi da ez dela aski. Ofizialtasun teoriko hutsa izan daiteke, eguneroko jardunbi-deetan herritarrei oinarrizko hizkuntz eskubideak betetzen ez dizkie-na. Beraz,

- a) ez dagoenean, ofizialtasuna edo administrazioek bertako hizkun-tzari eta herritarren hizkuntz eskubideei legezko babes ematea ezinbestekoa da eta,
- b) legezko babes hori aitortuta dagoenean, beharrezkoa da babes hori nahikoa izatea eta herritarren hizkuntz eskubideei erabate-ko bermea emateko politika eraginkorra garatzea.

3. Euskal Herriko administrazio maila guztietan urratzen dira hizkuntz eskubideak:

- a) Espainiako Estatuko administrazioak ez du Euskal Autonomia Er-kidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen koofizialtasuna errespetatzen.

- Herritarrei dokumentazioa gaztelania hutsean igortzea jardunbide sistematikoa da, ahozko harremanetan tokiko hizkuntzaz zerbitzua ez ematea bezala.
- Estatuko administrazio batzuek ez dituzte herritarrek aurkeztutako euskarazko dokumentuak onartzen.
- Egun ezinezkoa da epaiketa bat euskaraz egitea.

- b) Frantziako Estatuko administrazioak egunero eta sistematikoki urratzen ditu euskal herritarren hizkuntz eskubideak.
- c) Eusko Jaurlaritzak ondoko hiru alorretan ditu herritarren hizkuntz eskubideen babesaren beltzunerik larrienak:

—Osasun arloa: herritarrek hautatu hizkuntzaz zerbitzu ez emateak zerbitzu publikoaren kalitatea bera kalte dezake, eta, beraz, herritarren oinarritzko eskubideak ukitu.

—Justizia arloa: Botere Judizialaren menpe dago eta, ondorioz, goian aipatu bezala, Estatuko lege oinarriak direla eta, Botere Judizialak ez ditu herritarren hizkuntz eskubideak bermatzen. Baina Eusko Jaurlaritzaren Justizia sailburuordetzaren esku egon daitezkeen hainbat ekintzek —adibidez, jakinarazpenak ele bietan egiteak— agerian uzten dute oinarritzkoa (erabilera idatzia) ere ez dela ziurtatzen.

—Herrizaingo arloa: Ertzaintzako kide batzuek agertu dituzten jarrerak berebiziko kezka sortzen dute. Bestalde, euskaraz egin nahi izateagatik herritarrek zerbitzu atzerapenak jasan behar izatea ohikoa dela agerian gelditu da.

- d) Nafarroako Foru Komunitateak sistematikoki urratzen ditu herritarrek euskararekiko dituzten hizkuntz eskubideak.
- e) Herrialdeko Agintaritzan eta toki administrazioetan —udaletan— ere urraketak gertatzen dira. Adibidez, hiri errotulazioa edo seinaletika ingurukoko kexa asko izan dira eta horiek oinarri-oinarritzko arauak izanda, betetzen errazenak, zenbait alorretan arau ez betetze orokor baten aurrean gaudela pentsatzeko bide ematen dute.

4. Hizkuntz eskubideak urratzea ez da soilik gizakien eta hizkuntz komunitateen arteko ekitate edo parekotasunaren printzipio nagusia, *Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalak* oinarri duena eta Behatokiak bere egin duena, urratzea. **Kasu gehien-gehienetan administrazioek beraiek onartutako eta beraien lurraldeetan indarrean dauden hizkuntz legeria ere ez dute betetzen, legea urratzen dute:**

- a) Konstituzioak eta estatu mailako prozedura administratiboko legeak.

- b) Erkidegoetako hizkuntz legedia.
- c) Toki entitateetako ordenantzak.

5. Kasu batzuetan, hizkuntz eskubideaz gain oinarrizko eskubide batzuk ere urratzen zaizkie herritarrei: berdintasunez hartua izateko eskubidea, informazioa hartzeko eskubidea, etab. Bestalde, administrazioaren aldetik delitu zehatzen zantzuak dituzten kasuak ere aurkitu ditugu: bereizkeria, prebarikazioa, etab.

- a) Estatuko administrazio batzuek ez dituzte herritarrek aurkeztutako euskarazko dokumentuak onartzen.
- b) Herritar batzuk gutxietsiak izan ohi dira euskaraz aritzeagatik.
- c) Herritarrek zerbitzu publikoa hartzeko atzerapenak jasan behar izan ohi dituzte zerbitzua euskaraz nahi izanez gero.
- d) Herritar euskaldunek aukera berdintasun eskubidea urratua izan dute.
- e) Epaitegietan euskaraz epaitua izateko eskubidea urratzen da eta, ondorioz, babes judizial eraginkorrerako eskubidea zein defentsa eskubidea urratuak izan daitezke.

6. Estatuz gaindiko arauak ere urratzen dira, adibidez:

- a) *Erregioetako edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Ituna*, Espainiako (1992) eta Frantziako (1999) estatuak sinatua, baina Espainiak bakarrik berretsia (2001). Espainiak Ituna berrestean hartutako gutxienezko konpromisoak ez ditu betetzen.
- b) *Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen-markoa*, Espainiak sinatua eta berretsia (1995). Frantziak ez du sinatu ere egin.

7. Nafarroa Europako kontraeredua da. Nafarroa Europako kontraeredua da bertako hizkuntz gutxiengo baten babesari dagokionez. Nafarroako Gobernuak murrizketak egin ditu legez aitortuta zeuden hizkuntz eskubideetan eta eskubide horiek sistematikoki urratzen dizkie herritarrei:

- a) Nafarroako Gobernuak hizkuntz politika murriztailea garatzen du: eremu publiko instituzionalean euskararen erabilera murriztu ez ezik, zenbait kasutan desagerrarazi ere egin du.
- b) Murrizketek, legeak zedarritutako *eremu mistoa eremu ez-euskaldunarekin* berdinu dute; *eremu euskaldunean* gaztelania hutsezko erabilera administratibo-ofiziala ahalbidetu dute.
- c) Murrizketek, lehen ele bietan zegoen inprimakia, dokumentua, errotulua edo webgunea, orain gaztelania hutsean egotea ekarri dute; Administrazioetik herritarrak lehen euskaraz jaso zezakeen zerbitzua orain gaztelania hutsean baizik ezin jaso izatea.

- d) Nafarroako Gobernuak ez du betetzen indarrean dagoen lege-
diak ezarritako koofizialtasuna: usua da *eremu euskaldunera*
gaztelania hutsezko dokumentazio ofiziala bidaltzea.
- e) Nafarroako Gobernuaren hizkuntz politikak euskararen erabilera-
ren murrizketa orokorra dakar. Murrizketa antolatua eta planifika-
tua da, eta LORAFNAn eta Euskararen Legean ezarritako xedeen
guztiz kontrakoa.

8. Frantziako Errepublikak gutxiengoan eskubideei dagoz- kien nazioarteko estandarrak betetzeak berebiziko premia du.

- a) *Erregioetako edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Ituna* sina-
tu bai baina oraindik ez du berretsi.
- b) *Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen-markoa* ez du sina-
tu ez eta berretsi ere.
- c) *Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmena* sinatzean
gutxiengoan eskubide kulturalak aipatzen dituen 27. artikuluari
eginiko oharra kentzea.
- d) *Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmena* sinatzean gutxiengoan
eskubide kulturalak aipatzen dituen 30. artikuluari eginiko oharra
kentzea.

9. Hizkuntz eskubideen bermerako mekanismo juridiko admi- nistratibo berezitu eta azkarra ezarri beharra dago, gertatutako lege urraketei aurre egin eta haiek zuzentzeko.

- a) Agerian gelditu baita zer tresna edo mekanismo eskasa dagoen
ohiko prozedura juridiko administratiboan hizkuntz eskubideen
urraketa horiei erantzuteko.

10. Hizkuntz eskubideen urraketa zabal eta sistematikoak eus- kal hitzunek euren hizkuntz eskubideez duten pertzeptzio subjek- tiboan du eragina.

- a) Euskal Herrian, euskaldun jendeak luzez biziutako legezko gu-
txiagotasun eta menpekotasunak egungo egoera *naturalizatzea*
ekarri du.
- b) Oraindik orain legeari loturik hautematen dute euskaldun gehie-
nek euren hizkuntza erabiltzeko eskubidea. Horrek oinarriko esku-
bideen inguruan zalantza eta segurtasun falta dakarzikie herritarrei,
bai eta euskara erabiltzeko eskubideez gabeturik egotearen sinis-
tea ere Euskal Herriko lurralderik gehiengan.
- c) Askotan, herritarrek euskaldun gisa oinarriko eskubideak uka-
tuak izatea ohikotzat hartzen dute eta, ondorioz, bigarren maila-

ko herritarra izatearen buru hautemate edo autopertzepzioa bere egiten dute.

Hamar puntutan bildutako ondorio horiek aski erradiografia zehatza ematen dute. Hemendik aurrera zer egoera izango dugun iragartzea erraza ez bada ere, esatea badugu aldaketa larrikik izan ezean egungo egoera ez dela irauliko. Frantzia ez da elementurik ikusten aldaketak izango direnik iragartzeko, nahiz eta gero eta deserosoagoa izan Europako Batasunaren barnean Frantziako Estatuak gutxiengo nazionalekin duen jarrera. Nafarroan, hizkuntz politika instituzionalak erantzun sozial zabala izan du eta nazioarteko zenbait gaitzespen bildu ditu. Halere, kasu honetan ere ez dugu aski elementu pentsatzeko hizkuntz eskubideen kontrako jarrera instituzional hori xamurtuko denik. EAEn politika ausartagoa da beharrezkoa benetan hizkuntz eskubideen babesean jauzi kualitatiboa gertatuko bada.

Hizkuntz komunitatea oinarri duten azterketen ekarpenak

Herritarren bizipenetan oinarritutako azterketak hizkuntzaren estatusaren gaineko azalpen jurilinguistiko hutsak baino sakontasun handiagoa ematen dio diagnosiari. Hizkuntz komunitatea oinarri duten azterketek honako ekarpen hauek dituzte, gure iduriko:

1. Euskal hizkuntz komunitateari haren egoera erreala hautemateko edo haren autopertzepziorako bide ematea. Hizkuntz eskubideen egoera, hots, hizkuntzaren estatusa eta presentzia sozialaren egoera ezagutu eta horretaz jabetzea abiapuntua da hura aldatzearen aldeko urratsak emateko. Euskal hiztun herriak bere egoera hauteman behar du, bere buruaren pertzepzioa lortu behar du, autopertzeiorik gabe besteek (euskal hiztunak ez direnek eta euskararen beharra sentitzen ez dutenek) egiten duten diagnostia eta zabaltzen duten irakurketa hartu beharko baititu, eta horrek ez du Euskal Herriko herritarren eskubideen egoeraren hobetzea ekarriko.

2. Erakunde publikoei haien jarduera hobetzeko laguntza ematea. Halako azterketek, herritarrek beraiek bizitutakoak oinarri dituztela, hizkuntz eskubideen alorrean dauden beltzuneak, hizkuntz lege-diaren inplementazioaren arazoak bai eta sustapen handiagoa eskatzen duten alorrak ere agerian uzten dituzte eta informazio hori Euskal Herriko nola Espainia eta Frantziako erakunde publikoei herritarren hizkuntz eskubideak errespetatzeko haien efikazia eta zerbitzu kalitatea hobetzeko baliagarria lekieke (horretarako probesteko borondatea balute).

3. Herritarrek euren hizkuntz eskubideen gainean duten kontzientzia zabaltzea. Halako azterketek euskararen herrialde histo-

riko guztiak, Euskal Herri osoa hartzen dute eremu. Bertako hizkuntza bost erregimen juridiko ezberdinen pean arauturik dago. Bost estatus ezberdin ditu euskarak bere herrialde historikoetan eta bost herritar kategoria bereizi beharko genituzke legez dagozkien hizkuntz eskubideen arabera. Garbi da Euskal Herriko herritarrek euskara erabili eta gizarte alor guzietan garatzeko duten eskubidea ezin diogula indarrean dagoen legeari lotu. Herritarren arteko bereizketa legezko egiten duten legeetatik aldenduta, giza berdintasunezko irizpideetan eta giza eskubideen printzipioetan oinarritu dugu *hizkuntz eskubide* kontzeptua, Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalari lotuz. Kontzeptu hori aski *iraultzaile* izan daiteke Euskal Herrian, non gutxiagotasun eta menpekotasun legezkoak ezarri eta barnearazi duen egoeraren irakurketak *naturalizatu* baitu herritarren arteko bereizkeria, euskal hiztunei oinarritzko eskubideak ukatuz. Euskal Herriko Iparraldean eta Nafarroako leku batzuetan batez ere, hizkuntz eskubideak *sortu* ere egin behar dira, herritarrek horien pertzepzio objektiborik ez eta subjektiborik ere ez baitute. Oraindik orain, legeari loturik hautematen dute euskaldun gehienek euren hizkuntza erabiltzeko eskubidea. Horrek eskubideen jabetzaren inguruan zalantza eta segurtasun falta dakarzkie herritarrei, euskara erabiltzeko eskubideez gabeturik egotearen sinistea Euskal Herriko lurralde gehienean. Hizkuntz eskubideak Euskal Herriko herrialdeetan indarrean dauden hizkuntz legeen arabera aztertzeak bereizkeria eta oinarritzko eskubideen urraketa kasu anitz ez ikustea eta *ikustezin* bihurtzea ekarriko luke. Herritarrekin bereizkeriaz jokatzeko duen eredu soziopolitiko birsortu eta legitimatu beharrean, herritarren bizipenetan oinarritutako azterketek euskal hiztun herriaren esperientziatik, mundu osoko hiztun herrien arteko berdintasuna eta ekitate eredu baten beharra eta gurea bezalako hizkuntz komunitate gutxiagotuen biziraupena bermatzen duen legezko babes eredu baten premia agerian uzteko ekarpena egiten dute.

4. Hizkuntz eskubideak urratzearen kalte ondorioak agerian uztea. Euskaldun ia guztiak, maila batean edo bestean, elebidun izatea erabilia izan da, eta gaur ere erabilia da, hizkuntz eskubideei berezko eta oinarritzko eskubide izaera ez aitortzeko, eta urratzen direnean urraketa arindu eta justifikatzeko, elebidun izateak nor bere tokiko hizkuntzaz egiteko eskubideari oinarria kenduko balio bezala. Baina, hizkuntz eskubideen urratzeak, herritarrak jabe diren berezko eta oinarritzko eskubidea ez errespetatzeaz gain, batzuetan, kalte ondorio neurgarriak ditu. Izan ere, gutxiengo hizkuntza bat erabiltzea elebidunen apeta huts gisa hartzen dute hizkuntza handietako hiztunek eta haiekin interesak dituzten erakunde anitzek. Hizkuntz komunitatea bera oinarria duten hizkuntz eskubideen gaineko azterketek, berriz, hizkuntz eskubideen

urratzea, bere kalte ondorioak dituen eskubide baten urratze gisa agertzen dute, eta kasu batzuetan, kalte psikologiko zein material oso neurgarri eta agerikoak ekarri dituzte. Bestalde, horiek kontuan hartuz, euskal hiztunen ezinegona eta sufrimendua, bai eta egoera aldatzeko egiten dituzten ahaleginak ere egiaztatu eta agerian uzteko ekarpenak egiten dituzte.

5.

Hizkuntz eskubideen aldeko herri ekimena Euskal Herrian

Sarbidean aipatu dugunez eta lan honetako gainerako ataletan ikusteko aukera izan dugun bezala, Euskal Herriko herritarren hizkuntz eskubideen egoera ez dago soilik indarreango legeen baitan. Horiek legezko egoera baino ez dute islatzen eta jakin badakigu indarrean dauden legeen ontasunak ez duela *per se* errealitatea ona bihurtzen. Politika eraginkorrak jarri behar dira abian, plangintza zehatzak diseinatu eta zorrozki aplikatu eta, garrantzikoagoa dena, hizkuntz komunitateak bere eskubideak aldarrikatu eta galdetu behar ditu, eskubide horiek urratzea guztien arazo —gutxitutako hizkuntzako hiztunena nola hizkuntza nagusiko hiztunena— bihurtuz, azken finean, gizarte bateko herritarren arteko ekitate eta justizia arazoa gizarte osoaren arazoa baita.

Puntu honetan hizkuntz eskubideen aldeko gizartearen aldarrikapenari erreparatuko diogu. Izan ere, historiak erakusten digu gizon-emaumeon eskubideak eta askatasun lorpenak ez ohi direla botereek emanak edo oparituak izan, baizik eta, gehien-gehienetan, prozesu luzeetan eskuratu behar izan direla eta egunez egun gauzatu. Hizkuntz eskubideekin, oinarrizko beste eskubide batzuekin bezala, halaxe gertatzen da.

Euskal Herriko herri mugimenduen gaineko edozein gogoetak gizarte honen dinamismoa uzten du agerian. Ezbairik gabe, herri mugimenduek euren eragina izan dute Euskal Herriaren historiaren azken hiru hamarkadaotan. Euskal Herrian izan diren herri mugimenduen artean euskara eta euskal kulturaren aldekoa zabalena, anitzena, tradizioz luzeenekoa eta sendoena izan da. Izan ere, nekez imajina genezake oraingo euskararen egoera ez ezik, euskal gizarte osoarena ere, gizarte zibilak izan duen ekimen ahalmenik gabe. Beraz, tradizio handiko

mugimendua da euskararen aldeko herri mugimendua. Eboluzio handia izan du eta egun mugimendu zabala eta anitza da.

Xeheki gure gaiari dagokionez, Euskal Herrian euskaldunen hizkuntz eskubideen aldeko herri ekimena aspaldikoa da. Gizarte erakunde anitzek eraman izan dute aurrera hizkuntz eskubideen aldeko aldarrikapena. Eskuarki, ekitaldi puntualak izan dira: kanpaina edo bestelako ekimen berezituak, mobilizazio eta agerraldiak. 2000 urteaz geroztik, berriz, euskalgintzak hizkuntz eskubideen aldarrikapenari gai estrategikoaren trataera eman izan dio. 2001ean, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Hizkuntz Eskubideen Behatokia sortu zuen, bere jarduera Euskal Herriko herritarren hizkuntz eskubideak «*Euskal Herri osoan, arlo publikoan nola pribatuan, bermatzera zuzendua*» duena (Behatokia, 2002a). 2000 urtetik, eta Nafarroa Garaian bereziki, Nafarroako Gobernuak hasi zuen euskararen gutxiagotze instituzionalaren karitik, gizarte erakundeak, sindikatuak, toki entitateak eta herritarrak hizkuntz eskubideen kontrako erabaki administratiboak helegiten hasi ziren epaitegietan. Euskara Kultur Elkargoak auzitegiratzeari heldu dio modu sistematiko samarrean, Nafarroako Foru Komunitatean soilik egin badu ere.

Egun, euskara eta euskal kulturaren inguruko herri mugimendu zabalean hizkuntz eskubideen aldeko aldarrikapenak nolabaiteko protagonismoa hartu du eta auzitegiratzeaz gain (Hizkuntz Eskubideen Behatokiak, Euskara Kultur Elkargoak, sindikatuek,... eta erakunde gehiagok hautatutako bidea), bestelako bideak ere hautatu dituzte hainbat euskal gizarte erakundek hizkuntz eskubideen aldeko lanean: Euskal Herrian Euskaraz taldeak justizia alorrean sustatu duen intsumisio judiziala; Euskal Herriko unibertsitateetan, EHU eta NUPen bereziki, euskaraz ikasteko eskubidearen aldeko mobilizazioak; Iparraldean Demoek zerbitzu publikoen alorrean aitzin eraman duten desobedientzia zibilaren bidea; 2002an Oinarriak Nafarroan egin zuen kanpaina, *Euskaraz, eskubide osoz!*; edo 2004an Kontseiluak Euskal Herri osoan antolatu zuena, *Hizkuntz eskubideak, denon konpromisoa!*.

Atal honetan bi bide horiek landuko ditugu, alde batetik auzitegiratzearena eta bestetik, herri mugimenduaren beste estrategiak.

Auzitegiratzea

Nafarroan, batez ere, gertatu da euskal hiztunen eskubideen aldeko lan dinamikan auzitegiratze edo bide judizialaren bidea jorratzen hastea. Izan ere, Nafarroan, 372/2000 Foru Dekretuaren (eta gero haren ordezkoa izan zen 29/2003 Foru Dekretuaren) kontra hainbat helegite tarteratu zituzten zenbait elkartek, sindikatuk, toki entitatek, alderdi politikok

eta hautetsik. 2001eko urtarriletik aitzin eragile ezberdinek Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren 100 erabaki baino gehiagori helegiteak jarri izan dizkiete. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak eta Nafarroako Administrazio Auzitegiak helegite horietako batzuk onartu dituzte, bai eta helegileei aldeko epaiak eman ere, baina horrek ez du ekarri administrazio horien jokamoldearen aldaketa, epaileek euren epaien bidez beharturik izan ezean.

Behatokiak igorritako ehunka kexen jakinarazpenek ez dute Nafarroako Gobernuaren edo Iruñeko Udalaren jokabide administratiboan ezein aldaketa positiborik eragin. Alderantziz ere, gertatu izan da bi administrazio horiek aurrera eraman nahi duten hizkuntz politika mugatzen duen indarreango legea murrizteko urratsak ematea.

Horri erreparaturik, egin dezakegun gogoeta da auzitegiratzearen bidea oso bide mugatua dela. Ikusi dugun bezala, azkenean, boterean dauden alderdien eta ideologia nagusien esku dago zein lege egonen den indarrean erabakitzea. Beti izango da murrizketaren edo bertan behera uztearen arriskua, izan ere, hizkuntz eskubideak (egungo munduan hainbeste oinarritzko eskubide bezalaxe) oso hauskorrak baitira.

«Eskubideen oinarria boterea da eta hizkuntz eskubideei euskeko etengabe aurre egitea beharrezkoa da (...) Hizkuntz eskubideak hizkuntz politikaren oinarri hauskorra da, eta (...) etengabeko aurre egitea beharrezkoa da hizkuntz eskubideak babesteko nahiz horretan historia luzea duen estatu batean, edo horri lagun diezaiokeen egitura federala duen estatu batean edo hizkuntz politika eleanitza duen batean» [Tollefson (1991, 167 eta 197 orr.), honetatik hartua: Martel (1999, 79 orr.)].

Hizkuntz eskubideak hauskorrak izanda ere, hizkuntz gutxiengoentzat lege sistema hizkuntz plangintzaren oso tresna eraginkorra da. Dena den, hala izateko Gobernuaren maila guztietan ideologia mota dualistek edo anitzek plangintzari sostengua ematea beharrezkoa da. Hala ez bada, legea ez eraginkorra bihurtuko da.

Auzitegiratzeak eman ditzakeen emaitza onak hizkuntz gutxiengoentzat sinbolikoki oso garrantzitsuak izan daitezke. Baina hizkuntz eskubideen aldeko lanean, bide judiziala gizarte dinamika orokorrako baten lagungarri eta osagarritzat baizik ez dugu ulertu behar, gizarte dinamika hori sortu eta sendotzeak lehentasuna duela. Hizkuntz eskubideen aldeko herri mugimendu edo aktibismoak eta auzitegiratzeak gizarte ekintzaren dinamika berri baten alde egin behar dute. Dinamika berri hori *statu quo* eraldatzen saiatuko da eta, bere diskurtsoan, oinarritzko eskubideen berdintasunaren eta elkartasunaren oinarritutako gizarte jus-

tuago eta zuzenago baten alde egiteak ematen dion nagusitasun morala probestu beharko luke.

Beraz, hizkuntz eskubideen aldarrikapena estrategikoa bihurtu beharko luke hizkuntz gutxiagotu baten komunitateak eta bere normalizazio prozesuaren akuilatzaile eta dinamizatzaile gisa erabili. Izan ere, hizkuntz eskubideen aldarrikapenaren subjektua hizkuntz komunitatea bera da eta aldarrikapen horren funtsa komunitateak bere garapen indibidual zein kolektiborako duen oinarritzko eskubidea. Beraz, hizkuntz komunitateari begira, hizkuntz eskubideen aldarrikapena diskurtsoaren ardatza izatea guztiz defendagarria da (Hill, 2002).

Hizkuntz eskubideen aldeko lanari eman diezaiokegun sistematizazioak lanaren eraginkortasuna berretuko du, eta horretarako hizkuntz eskubideak aldarrikatzeko herri mugimenduaren eskarmentua izan duten beste hizkuntz komunitateen esperientzia dugu frogara. Angéline Martel Québecarrak, Kanadako esperientzian oinarriturik, hizkuntz komunitate batek bere eskubideak eskuratzeko estrategia proposatu du, hala eginda bide horretan diren beste «*rebels, heroes and communities*» laguntzeko (Martel, 1999).

Guretzat oso interesgarria izan daiteke Québeceko eskarmentutik datozkigun aholku hauek, gurean ere baititugu auzitegiratzearen bidea modu sistematiko batez nola kinka larrietan soilik jorratu duten gizarte erakundeak. Honako hauek dira hizkuntz eskubideen aldeko lanetan Martelek proposatutakoak:

- Auzitegiratzeko planteamendua sistematikoa izatea. Horrek esan nahi du:
 - Kasu irabazgarriak hautatzea.
 - Jurisprudentzia ezartzeko kasu gune bat osatzea.
 - Komunitatearen interes kolektiboa defendatzen dugun kasuak auzitegien aurrera eraman eta auzitegietan entzun diezaguten aukerak ugaltzea.
 - Prozedura judizialean parte hartuko duten pertsonak eta bi-tartekariak bilatzea.
- Hizkuntz eskubideetan eta auzitegiratzeetan jarritako itxaropentetan errealistak izatea.
- Auzitegiratzearen bidea osatzea. Ekintza sendoen multzo batek auzitegiratzeari oinarri eman diezaioko:
 - Egungo hizkuntz komunitatearen eta izan daitekeenaren gaineko inkestak eta ikerketak egin, datuak aztertu eta txostenak idaztea.

- Ikerketa eta azterketa horiek bereziki gatazkatsuak eta ezta-baidatsuak diren kasuak izan ditzatela kontuan.
 - Hedabideetako foroetan parte hartzea.
 - Lagun dezaketen presiobide taldeak eta pertsonak izatea.
 - Eskaerak egitea eskumen maila bakoitzean.
 - Ez izatea ezezko erantzuna hartzearen beldur. Geroago, jasotako ezetz hori epaitegiak konbentzitu ditzakeen puzzlearen pieza bihurtuko da.
- Ideologien eta diskurtoen rola ulertzea, gureak nola beste aldearenak, ideologiak ulertzen ditugunean auziak hobeki formulatzen baititugu.
- Beste taldeen interesak kontuan hartzea.
- Hizkuntz eskubideen aldeko aktibismo eta auzitegiratze prozesua gu aholkulari edo gidari gaituen heziketa prozesu gisa ikustea. Gobernuak eta abokatuak hezi behar ditugu.
- Batez ere, hizkuntz eskubideen aktibismo eta auzitegiratzearen inguruko giro gatazkatsua gehiago pizten ez saiatzea.

Gizarte eremu harmoniatu eta justuagoa eraikitzeko prozesua luze da eta ez dugu ahantzi behar aktibismoa eta auzitegitatzea prozesu luze horren zati bat baino ez direla.

Herri mugimenduen beste estrategiak

Auzitegiratzeaz gain, bada lehenagotik ere, hizkuntz eskubideen aldeko herri mugimenduak aitzin eramán duen mobilizazio estrategia. Deigarrienetako batzuk aipatzearen: Euskal Herrian Euskaraz taldeak justizia eta osasun arloetan burutu dituen kanpainak (intsumisio judiziala, sinadura eta kexa bilketak, gose grebak,...), argitaratu duen *Bideak, euskaldunon eskuliburua* liburuxka eta Lesakan, 2004ko apirilaren 4an, antolatutako hizkuntz eskubideen aldeko lehen Aldarrikapen Eguna; Iparraldeko Demoek jorratu duten desobedientzia zibilaren bidea edo Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak Euskal Herri osoan abian jarri zuen *Hizkuntz eskubideak, denon konpromisoa!* kanpaina.

Azken urteotan hizkuntz eskubideen aldeko manifestazioak, agerraldiak, elkarretaratzeak, giza-kateak eta halakoak usuak izan dira Pirinioen bi aldeetan. Euskal Herriko herritarrek dituzten egoera eta premien aurrean administrazioen jardunbideen aldaketak bilatzen dituzten presiobide eta ekimen ezberdinak burutu dira.

Bereziki aipagarria iruditzen zaigu Demoen⁴⁴ «*ez-biolentzia aktiboa*» eraginbidea. Talde horrek «*ekintza ahalik eta sinboliko eta ikusgarrienak*» burutu ditu Ipar Euskal Herriak pairatzen dituen «*injustizien gainean herritarren arreta ekartzeko, baina bortizkeriarik erabili gabe, fisikoa zein hitzezkoa*». Ez-biolentzia aktibo edo desobedientzia zibilaren gainean honela dio Demoen ordezkaria den Gorka Torrek:

«Desobedientiaren helburua zuzena ez den legea zuzentzea da, lege bidetik zuzenketa hori egiteko aukerarik ez delarik. Hain zuzen ere, usu sistema ongi gaketua da zuzena ez den hainbat lege indarrean mantentzeko. Beraz bi aukera ditugu: zuzena ez den legea obeditzea, edo desobedientzia, ondorioak geure gain harturik. Jendarteak, oro har, bigarren aukera hori hautatu behar du. Behar etiko, morala eta arrazoizkoa da. Guk horretara bultzatu nahi dugu» (Gorka Torre, Demoen kidea, *Berria*).

Zerbitzu publikoetan euskararen egoera agerian uzteko euren kanpainetan, Demoek, batez ere SNCF enpresa ukitu dute, erakunde horren frantses hutsezko hizkuntz politika aldarazteko eta euskaldunen hizkuntz eskubideen alde:

«SNCFn egiten ari garen kanpainen, uste baino gehiago dago joan. Agerian uzten du hainbat politikariren hitz ederren eta lan eskasaren arteko aldea. Agerian uzten du euskararen ofizialtasunik ezak injustizia handia sortzen duela, epaitegian ikusi dugun bezala. SNCF, Estatua bezala, oso zentralizatua, hierarkizatua eta uniformizatzailea denez, agerian uzten du Frantziako Estatu jakobinoaren egiazko izaera. SNCFn euskara sartzeari lortuz gero, gainerako zerbitzu publikoetan ere sartzeko bidea erraztuko du» (Gorka Torre, Demoen kidea, *Berria*).

SNCF enpresaren euskaldunen eskubideekiko jarrera salatzeke Demoek egindako ekintzarik entzutetsuenetakoa, 2003ko azaroaren 8an, Hendaia eta Baiona arteko burdinbideetan mus partida erraldoia antolatzeari izan zen. Sabotaiaren akusaziopean Demoen kideak atxilotu, epaitu eta ekonomikoki zitortu zituzten⁴⁵. SNCF erakundeak euskal hiztunen

⁴⁴ Demokrazia Euskal Herriarentzat mugimendua 2000. urtean sortu zen «*Ipar Euskal Herriarentzat gero eta antidemokratikoagoa zen testuinguru batean (...) Hain zuzen ere, duela zontzait urte Iparraldeko jendearen gehiengoak adierazten dituen aldarrikapen politiko batzuk ez dira entzunak botere publikoengandik, eta are guttiago gauzatuak. Aldarrikapen hauek ondokoak dira: (...) euskararen irakaskuntzaren eta erabileraren garapenen aldeko hizkuntza politika eraginkor baten abian ezartzea botere publikoengandik (...)*» helbide honetatik hartua: <<http://demoak.free.fr/euskara/filo/index%20anv.htm>>

⁴⁵ «Baionako auzitegiak 33.000 euroko zigorra ezarri die demoei», *Berria*, 2004ko urtarrilaren 16a, ostirala, 2 orr.

eskubideen kontra duen jarrera ez ezik, Frantziako Justizia Administraioarena ere utzi nahi izan zuten agerian:

«Demoak joan den urtarrilaren 8an epaitu gintuzten. Zergatik 63 gazteren aurkako salaketa hau SNCFren partetik eta milaka grebalari frantsesen aurka txintik ez, ekintza berdinarengatik? Arrazoia dugulako eta agintariak ipurdi agerian utziko ditugulako beharbada? Urtarrilaren 8an mus txapelketaren "hordagoa" egiten saiatu ginen, eta Baionako epaitegian beste desobedientzia ekintza bat egiten ere saiatu ginen. Euskararen erabilera Justiziaren aurrean, hain zuzen ere. Baina jarrera inobilista eta jakobino baten aurrean aurkitu ginen. Epailak eta fiskalak Iparraldeko euskaldunei hau esaten zieten behin eta berriz: "Zuek frantsesak zarete eta Frantziako hizkuntza ofiziala frantsesa da, ez duzue itzultzailea izateko eskubiderik"; Hegoaldekoek, berriz: "Zuek espainolak zarete eta euskara erabili dezakezu, itzultzaileak itzuli dezala". Aurreko epaiketen aldean ezberdintasun bat zegoen, aurrekoetan epaiketa zuzenean mozten baitzen euskal hitzen bat entzun bezain azkar. Bai Hegoaldekoek eta bai Iparraldekoek euskaraz hitz egin ahal izan genuen. Baina Iparraldekoen hitzek ez zuten baliorik, ez ziren kontuan hartzen, itzultzaileak itzultzea debekatu baitzuen kasu horietan. Eskubiderik gabeko hizkuntza da Iparraldean gure euskara» (Koldo Larrañaga, «Demoak eta Europako Konstituzioa». *Berria*, 2004ko urtarrilaren 17a, larunbata, 6 orr.).

Demoek zerbitzu publikoak, gizartean hizkuntzari presentzia eta funtzionaltasuna ematen dizkieten eremu funtsezkotzat jotzen dituzte eta euren ekintza bakoitzean «*zerbitzu publiko batean euskara erabiltzen hasteak hizkuntza honen berreskurapenerako duen garrantzia*»⁴⁶ agerian utzi nahi izan dute.

Desobedientzia zibilaren bidean hastean Demoek ekintzen erantzunkizuna euren gain hartu eta, esan bezala, horrek ondorio ekonomiko eta pertsonal latzak ekarri dizkie.

«Euskara borroka hau irabaz dezan ekintzekin segitu behar dugu beraz, une berean isun hauei aurre eginez. Euskaltzale orori borroka honetan esku hartzeko gomita luzatzen diogu. Isunei aurre egiteko laguntza ekonomikoa ere eskatzen diogu, borroka honek aurrera segitu behar duela uste duen orori. Ekintza bat egiteagatik apaitu eta zigortua den orok, euskaltzale guzien laguntza eskuratu behar du, hori baita borroka honek aurrera segitu ahal izateko baldintza». (Gorka Torre, «Euskararen erresistentzia kutxa», *Berria*, 2004ko uztailaren 24a, larunbata, 5 orr.).

⁴⁶ Gorka Torre, «Euskararen erresistentzia kutxa», *Berria*, 2004ko uztailaren 24a, larunbata, 5 orr.

Azken batean, Demoek gizartearen babesa ez ezik, hizkuntz eskubideen aldeko mobilizazioa areagotzea ere bilatzen dute, euskararen aldeko lanetan aritzen diren gizarte eragile guztiek bezala. Mobilizazio eta aktibismoak, izan ditzakeen bere modu eta eraginbide ezberdinetan, funtsezko elementutzat jo izan dute hizkuntz gutxituen aldeko dinamikak aztertu dituztenek.

Puntu honi amaiera emateko, merezi du hona ekartzea 2004ko maiatzean *Linguapax* erakundeak Bartzelonan antolatutako *Hizkuntz aniztasuna, iraunkortasuna eta bakea*⁴⁷ izeneko nazioarteko biltzarrean bildutako adituek berriz ere agerian utzi zutena: gizarte mugimendua bultzatu, berretu eta zabaldu beharra dago gizartea hizkuntz aniztasunaren balioaz sentiberatu eta kontzientziatzeko. Kasu anitzek frogatu duten bezala, *hizkuntz biziberritzea* eta *aktibismoa* loturik agertu ohi dira, hizkuntz komunitatei baitagozkie euren hizkuntzen biziberritze prozesuan aitzindaritza eta protagonismoa. Finean, biltzarreko adituek gogorarazi zutenez, hizkuntz legeen balioa mugatua da oso.

Ondorio gisa, hizkuntz eskubideen aldeko herri ekimena, gizarte zibil antolatuaren nola herritar guztien jarrera eta jokamoldea dira egungo egoera iraultzen ahal duten eragileak.

⁴⁷ <<http://www.linguapax.org/es/congrescas.html>>

6.

Azken gogoeta gisa

Hemen bukatzen da Euskal Herrian hizkuntz eskubideak zertan diren ezagutzeko egin dugun ibilbidea. Azaldutako egoerak ahalik eta datu zehatzenetan oinarritzen saiatu gara betiere, hizkuntz eskubideen urraketez aritu garelarik zertan ari ginen ongi ulertzerantz emateko.

Aztertutako egoera eta datu guztiak azalduta, azken atal honetan bost hausnarketa nagusitan bilduko dugu Euskal Herriko egoera sakonki aztertuta egin dugun gogoeta:

1. Hizkuntz eskubideak funtsezkoak dira euskal hizkuntz komunitateak giza talde berezitu gisa iraun eta birsortu ahal izateko, eta eskubide horien urratzearen azken ondorioa euskara bera desagertzea izan daiteke.

Frantziako Estatuak Ipar Euskal Herriko herritarrekin —eta bere baitan diren hizkuntz gutxiengo guztiekin— duen politika adibide garbia bezain mingarria zaigu hausnarketa honetan.

2. Egungo munduan, *irailaren 11ren osteko mundua* izena ematen hasi gatzazkion honetan, onarizko eskubide anitzekin gertatzen den bezala, hizkuntz eskubideak hauskorrak dira, boterearen eta ideologia nagusien menpean daude eta horien arabera alda daitezke eta, beraz, murriztu ere bai.

Nafarroako Gobernuak 1999tik egin duen euskararen gutxiagotze instituzionala honen adibide garbia dugu. Herritarrek euskararekiko legez aitortuta zituzten eskubideak murriztu ditu eta legez ez ezik, jardunbidez, ekintzez, aldez edo moldez, saiatu da euskararen erabilpen soziala txikitzen eta mugatzen, egungo Europako kontraeredua izateraino.

Hausnarketa honek hizkuntz komunitatearen mobilizazioaren garrantzia gogorarazten digu. Izan ere, hizkuntz biziberritzea hizkuntz komunitatearen aktibismoari loturik dago.

3. Herritarren hizkuntz eskubideen bermea ez da lortzen soilik hizkuntzari ofizialtasuna aitortuta, ofizialtasun horrek benetako babesa behar du izan, ez soilik teorikoa, eta politika eraginkorrez gauzatu behar da.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan ikusi dugun bezala, 25 urteko ofizialtasunak ez du espero zitekeen eragina izan Administrazioaren zenbait arlotan, herritarrek harremanik usuenak dituzten horietan, hain zuzen ere; eta herritarren hizkuntz eskubideek ez dute berme errealik. Hizkuntz politika ausartagoa beharrezkoa da, batez ere ofizialtasunetik ondorioztatzen den derrigorrezko hezkuntzaren bidezko be-launaldi berrien euskalduntzea euskararen estatusetik eratoritzen den ondorio eraginkorra izan dadila.

4. Euskarak, bere lur eta giza esparru historikoa den Euskal Herrian, bost eraentza juridiko ezberdin ditu: ofizialtasuna Euskal Autonomia Erkidegoan, hiru estatus ezberdin Nafarroan eta inolako aintzatespen ofizialik ez Ipar Euskal Herrian.

Egoera hori ulertezina zaigu, areago ere bere herritarren berdintasuna aldarrikatzen duen mugarik gabeko egungo Europa honetan. Ez dago mugarik, denok txanpon bera dugu, eta luze gabe Konstituzio bera ere bai, baina euskal jendeak ez du Euskal Herrian berean hizkuntz eskubideen parekotasunik. Egoera horrek euskal hizkuntz komunitatea bere biziraupenerako behar dituen gutxienezkoen oso azpian jartzen du.

5. Azkenik, gurea bezalako hizkuntz komunitate gutxiagotuek hizkuntzari eusteko eta gizarte arlo guztietan garatzeko euren lanetan hizkuntz eskubideen aldarrikapena lan ildo estrategikoa bihurtu behar-ko lukete.

Izan ere, gure ustez, hizkuntz eskubideen aldeko aldarrikapenak, beste aldarrikapenek (normalizazioaren edo ofizialtasunaren aldekoek) baino zuzenago egiten baitu oinarrizko giza eskubideen, herritarren arteko ekitatearen, aukera berdintasunaren eta eskubide zibilen alde, abiaburu hizkuntz komunitatearen barne ikuspegia duela eta erreferentzia jarrera etiko eta berdinzaleak.

7.

Bibliografia

- AGIRREAZKUENAGA, Iñaki (2001). «Nafarroako Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera Arautzen duen abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuaren legaltasunari buruzko Irizpena», *Eleria*, 8, 65-91.
- AGIRREAZKUENAGA, Iñaki (2003). *Diversidad y convivencia lingüística. Dimensión europea, nacional y claves jurídicas para la normalización del Euskara*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ANAUT, David (2000). «Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzeko dekretua», *Bat*, 36, 27-33.
- ALVAREZ ENPARANTZA, José Luis, Txillardegi (1990). «Hizkuntz lurraldetasuna Belgikan», *Bat*, 2, 49-66.
- BACHOC, Erramun (ikus Baxok, Erramun).
- BARANDIARAN, Alberto (2003). «Euskararen tratamendua Sanzen garaian (1999-2002)», *Jakin*, 135, 21-48.
- BARCOS, Juantxo (2003). «Cuña por el euskara en Nafarroa», *Iraultzen*, 120, 22.
- BAXOK, Erramun (2000). «Hizkuntza eta lurraldea», *Bat*, 35, 13-20.
- Behatokia (ikus Hizkuntz Eskubideen Behatokia).
- BIZKAIKO ABOKATUEN ELKARGOA (2004). Justizia Administrazioa salaketapean. 2004ko apirilaren 5ean eskuratua honako helbide honetatik: <http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1080946323/inprimatzeko>
- BOCG (*Boletín Oficial de las Cortes Generales*) (2002). Senado. I, 567. 26-12-2002, 67-75 orr. 2003ko ekainean eskuratua honako helbide honetatik: <<http://www.senado.es/legis7/publicaciones/pdf/senado/bocg/10567.PDF>>
- BUYLE, Daniël (2000). «The organisation of the Brussels-Capital Region». In DEPREZ, K. eta DU PLESSIS, Th. (argt.). *Multilingualism and Government. Belgium. Luxembourg. Switzerland. Former Yugoslavia. South Africa*. Pretoria: Van Schaik, 44-51.
- COBREROS MENDAZONA, Eduardo (1989). *El régimen jurídico de la oficialidad del euskara*. Oñati: Instituto Vasco de Administración Pública-IVAP.
- DUNBAR, Robert (2002). «Language rights in international law: useful tools for language revitalisation?» *Hizkuntza Biziberritzeko Saioak*. 1999an Bilbon izanda-

- ko Eremu urriko hizkuntzei buruzko VII. Nazioarteko Biltzarraren akta liburua. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 197-223.
- EBLUL (ikus European Bureau for Lesser Used Languages).
- ERIZE, Xabier (2001). «El discurso contrario a la "normalización" de la lengua vasca en Navarra (1997-2002)», *RIEV*, 46, 2, 661-682.
- EUROPEAN BUREAU FOR LESSER USED LANGUAGES (2004). «Informe sobre la visita a Navarra de la Oficina Europea de Lenguas Minoritarias el 28 de marzo de 2003». Txosten argitaratu gabea.
- EUSKALTZAINDIA (2001). «Euskararen egoera Nafarroan: Euskaltzaindiaren adierazpena». *Euskera (separata)*, 46. liburukia (2. aldia).
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2003). *Euskalduntze-alfabetatzearen etorkizunearako oinarriak eraginkortasunari begira eta kalitatea hobetzeari begira*. Gasteiz: Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA (2004). «EAEko Administrazio orokorren euskalduntze prozesua. 1989-2004. Eraitzak eta III. Plangintzaldirako asmoei buruzko Kontseiluaren irakurketa». Txosten argitaratu gabea.
- EUSKO JAURLARITZA (1999). *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA (2003). *Euskararen jarraipena III. 2001. Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- GRIMES, B.F. (argitar.) (1992). *Ethnologue. Languages of the World*. Dallas: Summer Institute of Linguistics.
- HAMEL, Rainer Enrique (1997). «Introduction: linguistic human rights in a sociolinguistic perspective», *International Journal of the Sociology of Language*, 127, 1-24.
- HILL, Jane H. (2002) «"Expert Rhetorics" in Advocacy for Endangered Languages: Who Is Listening and What Do They Hear?» *Journal of Linguistic Anthropology*, 12(2), 119-133.
- HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA (2002a). *Hizkuntz eskubideen egoera Euskal Herrian, 2001ean*. Urteko txosten argitaratu gabea. Legezko Gordailua: NA-1673/2002. www.behatokia.org.
- HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA (2002b). *Adin txikikoen zigor epaitegiak eta hizkuntz eskubideak Hego Euskal Herrian, 2001ean*. Txosten argitaratu gabea. Legezko Gordailua: NA-1803/2003. www.behatokia.org.
- HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA (2003a). *Hizkuntz eskubideen egoera Euskal Herrian, 2002an*. Urteko txosten argitaratu gabea. Legezko Gordailua: NA-991/2003. www.behatokia.org.
- HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA (2003b). *La minorización institucional del euskara en Navarra*. Txosten argitaratu gabea. Legezko Gordailua: 1802/2003. www.behatokia.org.
- HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA (2003c). *Espainiako Estatuko Administrazio Orokorra eta euskaldunon hizkuntz eskubideak*. Txosten argitaratu gabea. Legezko Gordailua: NA-2813/2003. www.behatokia.org.
- HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA (2003d). *Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek, haien hizkuntz eskubideen urraketa dela eta, Osakidetzari zuzendu dizkio ten kexak*. Txosten argitaratu gabea.

- HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA (2003e). *An application of the Spanish state's evaluation of the European Charter for Regional or Minority Languages to Euskara, the Basque language*. Txosten argitaratu gabea. Legezko Gordailua: NA-2671/2003. www.behatokia.org.
- HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA (2004). *Hizkuntz eskubideen egoera Euskal Herrian, 2003an*. Urteko txosten argitaratu gabea. Legezko Gordailua: NA-1778/2004. www.behatokia.org.
- HIZKUNTZ ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALAREN JARRAIPEN BATZORDEA (1997). *Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala / Declaración Universal de Derechos Lingüísticos*. Bartzelonako Deklarazioa 6/VI/1996 Declaración de Barcelona. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- IÑIGO, Andrés (2001). «Euskararen egungo egoera Nafarroan», *Euskera (separata)*, 46. liburukia (2. aldia), 337-345.
- IRIONDO, Xabier (2003a). Hizkuntz eskubideak kontzeptu juridikoa eta Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala. Udako Euskal Unibertsitatearen Zuzenbide sailak antolatutako «Hizkuntz eskubideetan trebakuntza» ikastaroaren hitzaldia argitaratu gabea. Iruña.
- IRIONDO, Xabier (2003b). *Hizkuntza gutxituen lege statusa. HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa 2003-2004*. Asmoz, Lan argitaratu gabea.
- JUNYENT, Carme (1998). *Contra la planificació*. Barcelona: Empúries.
- JUNYENT, Carme (1999). *La diversidad lingüística. Didáctica y recorrido de las lenguas del mundo*. Barcelona: GELA (Grupo de Estudio de Lenguas Amenazadas): Universidad de Barcelona.
- KASARES, Paula (2002a). *Cinco status diferentes para la lengua vasca y los derechos lingüísticos. Linguapaxek antolatutako Hizkuntz Politikei Buruzko Munduko Biltzarraren akta liburu elektronikoa*. Bartzelona, 2002ko apirila. <<http://www.linguapax.org/congres/indexcast.html>>
- KASARES, Paula (2002b). *Estrategias de reproducción sociocultural de los vascos hablantes de Navarra*. Argitaratu gabeko lana, Antropologian Oinarrituko Ikerketa Aplikatuaren Master ikerlana, 2002ko urriaren 3an Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan aurkeztua.
- KASARES, Paula (2003). «Nafarroa eta euskara», *Jakin*, 135, 125-128.
- KIBBEE, Douglas. A. (1998). «Legal and Linguistic Perspective on Language Legislation», KIBBEE, D.A. *Language legislation and linguistic rights*. (1-23 or.). Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company.
- Kontseilua (ikus Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua).
- KYMLICKA, Will (2000). «Justicia etnocultural», *Debats*, 68, 47-63.
- KRAUSS, Michael (1992). «The world's languages in crisis», *Language*, 68, n.º 1, 4-10 orr.
- LAPONCE, Jean A. (1990). «Irtenbide pertsonalak eta lurralde-irtenbideak estatu eleaniztunaren arazoan aurrean», *Bat*, 2, 23-47.
- LARRUN (2000). «Euskara Nafarroan», *Larrun*, 39. Argia aldizkariaren 1.789 zenbakiarekin batera banatutako alea.
- MACKAY, William F. (1989/1993). «Hizkuntza jokaera-aldaketa legeen bidez», *Bat*, 9, 11-21.

- MARTEL, Angéline (1999). «Heroes, Rebels, Communities and States in Linguistic Human Rights Activism and Litigation». In KONTRA, M.; PHILLIPSON, R.; SKUTNABB-KANGAS, T. eta VÁRADY, T. (argit.). *Language: A Right and a Resource. Approaching Linguistic Human Rights.* (47-80 or.). Hungary: Central European University Press.
- MENDOZA, José Luis (2003a). «Hizkuntza Politika Nafarroan», *Jakin*, 135, 49-72.
- MENDOZA, José Luis (2003b). «Política lingüística en Navarra (1999-2002): historia de un desencuentro», *Hermes*, 9, 14-23.
- MONREAL ZIA, Gregorio (2001). «Origen de la Ley del Vascuence de Navarra», *RIEV*, 46, 2, 517-543.
- NAFARROAKO GOBERNUA (1999). *Nafarroako Populazioaren Estatistika. 1996. Populazioaren banaketa euskararen ezagutzari buruz.* Iruña: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Estatistika Erakundea, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia.
- NAFARROAKO GOBERNUA (2004). *Estudio sociolingüístico del vascuence en Navarra. 2003. Competencia lingüística, uso y actitudes.* Pamplona: Departamento de Educación. Dirección General de Universidades y Política Lingüística.
- OLIVERAS JANÉ, Neus (2001). *Els principals conceptes en el reconeixement dels drets lingüístics als estats europeus.* 2003ko ekainean eskuratua honako helbide honetatik: <<http://www.ciemen.org/mercator/pdf/wp2-defct.PDF>>
- Ó RIAGÁIN, Dónall (2002). *Irish-Official yet Lesser Used. Linguapaxek antolatutako Hizkuntz Politikei Buruzko Munduko Biltzarraren akta liburu elektronikoa.* Bartzelona, 2002ko apirila. <<http://www.linguapax.org/congres/indexcast.html>>
- PAULSTON, Christina Bratt (1997). «Epilogue: some concluding thoughts on linguistic rights», *International Journal of the Sociology of Language*, 127, 187-195.
- PHILLIPSON, Robert; RANNUT, Mart eta SKUTNABB-KANGAS, Tove (1994). «Introduction». In SKUTNABB-KANGAS, Tove; PHILLIPSON, Robert. *Linguistic Human Rights. Overcoming Linguistic Discrimination.* (1-22 orr.). Berlin, New York: Mouton de Gruyter.
- RIEV (REVISTA INTERNACIONAL DE LOS ESTUDIOS VASCOS) (2001). *15 años de la Ley del Euskera en Navarra*, 46, 2.
- RODRÍGUEZ OCHOA, José M.^a (2001). «Aplicación y desarrollo normativo de la Ley Foral del Vascuence en el ámbito de la Administración Foral de Navarra», *RIEV*, 46, 2, 545-592.
- RODRÍGUEZ OCHOA, José M.^a (2002). «Nafarroako legeria, euskara foru administrazioan erabiltzeari buruz». In *Hizkuntzen Europako urtea. Euskararen egoera juridikoa Nafarroan / Año europeo de las lenguas. La situación jurídica del euskara en Navarra.* Iruña: Euskara Kultur Elkargoa, 63-76.
- RUIZ VIEYTEZ, Eduardo (1998). *La protección jurídica de las minorías en la Historia Europea.* Cuadernos Deusto de Derechos Humanos, 3. Bilbao: Universidad de Deusto.
- SIGUAN, Miquel (2001). *Bilingüismo y lenguas en contacto.* Madrid, Alianza.

- SKUTNABB-KANGAS, Tove eta PHILLIPSON, Robert (argit.) (1994). *Linguistic Human Rights. Overcoming Linguistic Discrimination*. Berlin, New York: Mouton de Gruyter.
- TRITSCHLER, P.B. (2002). «SNCFeko Baionako zuzendariari egindako elkar hizketak», *Euskaldunon Egunkaria*, 2005eko azaroaren 5eko alean, 12.
- UDALBILTZA (2002). *Hizkuntz eskubideak. Euskal Herriaren Eskubideen Karta*.
- VERNET I LLOBET, Jaume (2002). «La protección jurídica de las lenguas de la Unión Europea», *Drets Lingüístics*, 7. *Anclabes Ihenguisticis na Ounion Ouropeia*. V Simposio Anternacional de lhénguas ouropeias i legislaçones / Enclaves lingüísticos en la Unión Europea. V Simposio internacional de lenguas europeas y legislaciones / Linguistic enclaves in the European Union. V International symposium on european languages and legislation. (25-44 or.). Catatunya: CIEMEN (Centre Internacional Escarré per a les Minories Ètniques i les Nacions).
- VERNET, Jaume (koord.) (2003). *Dret lingüístic*. Valls: Universitat Rovira i Virgili eta Cossetània Edicions.
- VILCHES PLAZA, Carlos (2002). «Euskararen eszenatokiak Nafarroan. 1970-2000». In *Hizkuntzen Europako urtea. Euskararen egoera juridikoa Nafarroan / Año europeo de las lenguas. La situación jurídica del euskara en Navarra*. Iruña: Euskara Kultur Elkargoa, 119-138.
- WURM, Stephen A. (2001). *Atlas of the World's Languages in Danger of Disappearing*. New revised edition. UNESCO Publishing.
- ZABALETA, Patxi (1990). «Vascuence'aren legea», *Jakin*, 56, 107.

Giza Eskubideei Buruzko Deustu Koadernoak, 31 zk.

Lan honek, bere izenburuan dioen bezala, hizkuntz eskubideak zer diren eta Euskal Herrian zertan diren azaldu nahi du. Hizkuntz giza eskubideen oinarriko kontzeptualizaziotik abiatuta, Euskal Herrian dugun egoera jurilinguistikoa aztertu du euskararen estatus diferentek azalduz. Baina, lan honen ikuspegia ez da juridikoa. Euskal Herriko herritarren hizkuntz eskubideak zertan diren ez digu indarrean dagoen hizkuntz legeriak soilik esaten. Legezko egoera hori azaleko egoera formala baino ez da, erreallatea anitzagoa da eta legeak ezartzen duen *statu quo*aren azpian onartze eta kuestionamendu, inertzia eta erresistentzia, jokamolde, joera eta jarrera ezberdinak daude hizkuntza den erreallitate anitz eta identitate elementu horren inguruan. Beraz, lan honek egoera jurilinguistikoa ez ezik, hizkuntz eskubideen inguruko gizarte prozesuak, herritarren bizipenak, kexak eta aldarrikapenak ere azaldu ditu; gizarte prozesu horietan baitago egun euskaldunen hizkuntz eskubideek dituzten legezko mugak, trabak eta aitortzarik eza aldatzeko aukera.

Paula Kasares (Iruñea, 1969) Euskal Filologian (Deustuko Unibertsitatea) eta Gizarte eta Kultura Antropologian (Euskal Herriko Unibertsitatea - EHU) lizentziatua; Hizkuntza Plangintza Graduondokoa (EHU) egina eta Gizarte eta Kultura Antropologian Ikasketa Aurreratuen Diploma (Universitat Autònoma de Barcelona - UAB) eskuratua; egun hizkuntz antropologiaren alorrean doktoregia da (UAB). 1998tik 2000era bitartean Udako Euskal Unibertsitateko Soziolingüistika sailburua izana eta, 2001etik 2003ra bitartean, Hizkuntz Eskubideen Behatoki zuzendaria. Egun, Baztango Udaleko Euskara Zerbitzuan teknikari ez ezik, Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta HIZNET Hizkuntz Plangintza Graduondokoa irakasle ere aritzen da. Hizkuntz antropologiaren eta hizkuntz eskubideen alorretako artikulua batzuen egilea da, besteak beste: «Hizkuntz ukipena eta ukapena Baztanen» (2003), «Cinco *status* diferentes para la lengua vasca y los derechos lingüísticos» (2002), «Averamiento dende l'antropollingüística a la comunidad del Valle de Baztan (Navarra)» (2000). Euskal hedabide ezberdinetan ere euskararen egoeraren inguruko artikulua eta kolaborazio lan ugari egin ditu.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL



Deustuko
Unibertsitatea

